Hiribilduaren hastapenetatik Olaeguitarrak herritar eta udal-ordezkari legez ageri dira zenbait gertaeretan. Horrela, 1350ean alkatea Juan Diaz de Olaegui da, udalerriaren lur eremuak baieztatu nahirik egiten diren izapideetan.

1430etik aurrera ere Juan Ochoa de Olaegui azaltzen da alkate gisa herrien arteko mugarriak zirela eta, Eibarrekin gertatu ziren liskarretan.

Olaeguitarrak, Ahaide Nagusien guduetan ganboatarren aldekoak zirenez, Jaolazako jaunaren esanetara parte hartu zuten Arrasateko erreketan eta harrapaketan (1448), beste hirurogeita hamahiru herrikiderekin batera. Epai-ebazpen baten ondorioz, 1451etik aurrera erasotzaileen familiek egindako kalte horiek ordaindu behar izan zituzten, eta ordainketen lekukoen artean berriro agertzen da Juan Ochoa de Olaegui, oraingo honetan Elgetako erregidore edo zinegotzi-ordezkari moduan.

1493tik aurrera Martin de Olaegui ageri da erregidore edo zinegotzi legez, Elgeta eta Eibarko udalerrien arteko mugarriak finkatzeko izapideetan.

Oinetxe honetako ondorengoak dira baita ere Juan de Olaegui eta haren semeak Francisco eta Marco Antonio de Olaegui, hirurak ere Armadako ikuskatzaileak eta komisarioak izan ziren Espainiar Inperioko hainbat lekutan 1582 eta 1615 urteen tartean.

Hala ere, leinu honetako gizonik itzal handiko eta ahaltsuena **Ochoa Donor-d-Olaegui** (Ochoa de Honor de Olaegui) izan zen. 1430 inguruan jaio eta 1500 inguruan zendu zen. Haren gurasoak Fortun Ochoa de Olaegui eta Sancha de Izaguirre izan ziren.
Ochoa Leonor de Guzmanekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba

Ochoa Donoren hilobia / *Sepulcro de Ochoa Donor.*

Su hija, Guiomar, a la que dedicaremos el siguiente relato, quedó constituida en heredera universal de los bienes de sus padres, fallecidos ya su hermano y hermana.

Ochoa fue "Guarda y Vasallo" de Enrique IV de Castilla (rey entre los años 1454-74) y, como muchos partidarios del bando gamboíno, tomó partido por este monarca en sus luchas contra su hermana Isabel la Católica y a favor de su hija la Beltráneja.
Estuvo al servicio directo de Beltrán de la Cueva (1435/†1492), entre otros títulos Duque de Alburquerque (Badajoz) y Conde de Ledesma (Salamanca), valido del rey, y residente en su castillo-palacio de Cuéllar (Segovia).

Este Duque le invistió cruzado en 1464 con el título honorífico de "Caballero de la Orden Militar de Santiago". Asimismo, fue nombrado Alcaide de Vélez (Málaga), Gomera (Canarias), Uclés (Cuenca), y, también en las propiedades del Duque, ejerció como alcaide perpetuo del Castillo de Mombeltrán (Ávila) en 1482 y alguacil mayor de Roa (Burgos) en 1493.

Hay que pensar que Ochoa por estos cargos, al servicio de la corona castellana, estuvo alejado durante años de las tierras de su casa solariega de Olaegui, que terminó heredando.

Es tal la influencia de Ochoa, que, por sus servicios prestados, los Reyes Católicos en 1483 le otorgan un privilegio anual de 3.100 maravedís en "juro de heredad" (derecho perpetuo de transmitirlo en herencia). Este privilegio ya lo gozaba por merced del rey Enrique IV, y que provenía de las alcabalas (impuestos reales sobre las compraventas) en la villa de Elgeta.

Ochoa quiso dejar vestigios de su poder y fortuna en la iglesia parroquial de Santa María de Elgeta con la construcción en 1473 de un sepulcro monumental para su entierro y una capilla del Apóstol Santiago, en cuyo lugar se construirá un siglo más tarde el actual retablo de ese apóstol, donación del inquisidor Martín Sáez de Ibarra.

En esta sepultura está inscrito: "Al servicio de Dios yzo facer esta capilla del Apóstol Santiago Ochoa Donor D'Olaegui, grande e vasallo del rey, hijo de los nobles e virtuosos linajudos hijosdalgo Fortún Ochoa D'Olaegui he de Sancha de Izaguirre su muger, que Dios perdone, e fizo esta sepultura para su cuerpo do descanse hasta el día del juicio, que plegue a Dios por misericordia le perdone sus pecados, he le resucite a la diestra con los sus santos para la gloria perdurable; y dejó renta situada para siempre para la lumbre he capellanía perpetua de esta capilla por las ánimas de sus padres e suyos según contiene en la cláusula de su testamento; año de Nacimiento de Nuestro Señor Jesucristo de mil y cuatrocientos setenta y tres años".[4]

[4] Cainzos, M.: "Elgeta lehen eta orain", Elgeta, 2018, pag. 276.

izan zituzten: Cristobal, Guiomar eta Marina Donor de Olaegi Guzman.

Hurrengo kontakizunaren subjektua izango den Guiomar alaba geratu zen gurasoen ondasun guztien oinordeko bakar legez, haren neba eta ahizpa desagertu ondoren.

Ochoa Enrique IV. erregearen (1454-1474 artean errege) "Zaindaria eta Basailua" izan zen, eta ganboatarren bandoaren aldekoen artean beste askok egin zuten legez, parte hartu zuen errege honek bere arreba Isabel Katolikoaren aurka izan zituen liskarretan, eta haren alaba Beltranejaren alde egin zuen. Beltran de la Cuevaren (1435/†1492) zuzeneko zerbitzuetan aritu zen. Jaun hau, besteak beste, Alburquerqueko (Badajoz) Dukea eta Ledesmako (Salamanca) Kondea izan zen, erregearen balidoa eta Cuellarko bere gaztelu-jauregian bizilekua zuena.

Duke honek gurutzatu izendatu zuen 1464an, "Santiagoren Ordena Militarreko Zaldun" ohorezko izena emanez. Halaber, ondorengo herrietako alkaide izendatua izan zen: Velez (Malaga), Gomera (Canarias), Ucles (Cuenca). Horrez gain, dukearen jabetzako lurretan baita ere biziarteko alkaide legez aritu zen Mombeltrango Gazteluan (Avila) 1482an, eta Roako (Burgos) aguazil nagusi 1493an.

Pentsatzekoa da, Gaztelako koroaren zerbitzuko kargu guzti haiek zirela eta, Ochoa urteetan zehar Olaegui oinetxetik aldenduta bizi izango zela, baina hala eta guztiz ere, jarauntsiz jabe izatera iritsi zen.

Halakoa izan zen Ochoaren egiteen eragina, non berak emandako zerbitzuen ordainetan, Errege Katolikoek 1483an, urteko 3.100 marabedi egiten zuen betiereko erregalia eman zioten, herentzia bidez transmititu zitekeen betiereko eskubidea, "juro de heredad" zeritzona. Ordurako erregali honen jabe zen, Enrique IV. erregeak emandako sari gisa, Elgetako hiribilduko alkabaletatik (sal-erosketen gaineko errege-zergak) sortuak.

Ochoak bere botere eta aberastasunaren erakusgarriak utzi nahi izan zituen Elgetako Andre Maria eliza nagusian. Hala, 1473an, bera lurperatzeko izango zen sekulako hilobiaren eta Santiagoren kaperaren eraikuntza agindu zuen. Leku horretantxe eraikiko zen mende bat geroago apostolu horren erretaula berria, Martin Saez de Ibarrak inkisidoreak egindako dohaintzaren ondorioz.

Hilobi honetan dago idatzita: "Al servicio de Dios yzo facer esta capilla del Apóstol Santiago Ochoa Donor D'Olaegui, grande e vasallo del rey, hijo de los nobles e virtuosos linajudos hijosdalgo Fortun Ochoa D'Olaegui he de Sancha de Izaguirre su muger, que Dios perdone, e fizo esta sepultura para su cuerpo do descanse hasta el día del juicio, que plegue a Dios por misericordia le perdone sus pecados, he le resucite a la diestra con los sus santos para la gloria perdurable; y dejó renta situada para siempre para la lumbre he capellanía perpetua de esta capilla por las ánimas de sus padres e suyos según contiene en la cláusula de su testamento; año de Nacimiento de Nuestro Señor Jesucristo de mill y cuattrocientos setenta y tres años".[4]

[4] Ikus Cainzos, M.: "Elgeta lehen eta orain", Elgeta, 2018, pag. 276.

3. GUIOMAR DONOR DE OLAEGUI GUZMÁN

Relato de una descendiente de los Olaegui, que entroncó por matrimonio con los linajes de los Ibarra y Elgueta y se enfrentó a múltiples adversidades.

Sus padres fueron Ochoa Donor de Olaegui y Leonor de Guzmán, y los hijos/as de estos: Cristóbal, Guiomar y Marina de Olaegui Guzmán. (Ver genealogía Anexo II).

Guiomar Donor de Olaegui Guzmán (1490/†1555), a la muerte de su hermano Cristóbal y su hermana Marina, quedó constituida en heredera universal de los bienes de sus padres en Roa (Burgos) y Mombeltrán (Ávila), además de la casa-solar Olaegui de Elgeta.

Ibarra

Olaegui

Jaolaza

Los tres escudos de los matrimonios de Guiomar / Guiomarren ezkondeetan hiru armarri.

Guiomar estuvo desposada en tres nupcias, entroncando a los tres linajes de Olaegui, Ibarra y Elgueta:

- Contrajo primeras nupcias (1510) con Pedro Ruiz de Ibarra (1460/†1515) y tuvieron tres hijos: Hernando (Fernando) de Ibarra (1510/†1537), Catalina de Ibarra (1512), García de Guevara (1514/†1542).
  Pedro, al casarse con Guiomar, era viudo sin descendencia y de joven estuvo en la corte castellana al servicio de Fernando el Católico, donde tejió lazos de influencia.
  Desde 1507 adquirió la propiedad de Jaolaza, y así aparece representándola en varios acontecimientos.

- En segundas nupcias (1518) casó con García Ibánez de Elgueta e Izaguirre (1470/†1523), señor de la casa de Jaolaza por derecho genealógico, ya que era hijo de Constanza de Elgueta, descendiente de Jaolaza, y García de Izaguirre.

3. GUIOMAR DONOR DE OLAEGUI GUZMAN

Olaeguitarren ondorengo baten kontaketa, zein ezkontzen bidez Ibarra eta Elguetarren leinuekin ahaidetu, eta era askotako zoritxarrei aurre egin beharrean izan zen.

Haren gurasoak Ochoa Donor de Olaegui eta Leonor de Guzman izan ziren eta haien hiru seme-alabak, hauek: Cristobal, Guiomar eta Marina de Olaegui Guzman. (Ikus II. Eranskineko genealogia)

Guiomar Donor de Olaegui Guzman (1490/†1555), haren neba Cristobal eta ahizpa Marina hiltzean, Elgetako Olaegui oinetxearen oinordeko orokor eta bakar izendatua izateaz gain, gurasoek zituzten ondasun guztiak bereganatu zituen; tartean Roakoa (Burgos) eta Mombeltrangoa (Avila).

Emakumearen argazkia / *Foto de mujer medival*

Hiru aldiz ezkondu zen Guiomar; Olaegui, Ibarra eta Elgueta leinuak uztartu zituelarik:

- Lehenbizikoa (1510) Pedro Ruiz de Ibarrarekin (1460/†1515) eta hiru seme-alaba izan zituzten: Hernando (Fernando) de Ibarra (1510/†1537), Catalina de Ibarra (1512) eta Garcia de Guevara (1514/†1542).
  Pedro, Guiomarrekin ezkondu zenean, alargunduta zegoen eta ez zuen ondorengorik. Gazte zelarik Fernando Catolicoaren zerbitzutara egon zen Gortean, non indar handiko harremanak ondu zituen.
  1507tik aurrera Jaolazaren jabe egin zen, eta horrela ageri da haren ordezkotzak egiten zenbait jazoeretan.

- Bigarren ezkontza (1518) Garcia Ibañez de Elgueta e Izaguirrerekin (1470/†1523) egin zuen. Hau Jaolatza oinetxeko jauna zen zuzenbide genealogikoari jarraituz; izan ere, Constanza de Elguetaren, Jaolazako ondorengoa, eta Garcia de Izaguirren semea zen.

El marido murió en Valladolid, a consecuencia de una reyerta con Pedro González de León, y con el que la viuda Guiomar mantendrá un costoso pleito.
Tuvieron un hijo: Ochoa de Elgueta de Olaegui o de Izaguirre (1525/-1550). Al que su madre viuda, propietaria de la casa de Jaolaza por derecho sucesorio, le cederá en 1545.
Este hijo contrajo matrimonio en 1547 con Domenja de Ibarra, descendiente de los Ibarra de Elgueta, y terminará sus días como conquistador en América, muriendo en Cholula (México) en1550.

- En un tercer matrimonio (1525) casó con Martín López de Zarazqueta, sin descendencia.

Guiomar es la mujer en Elgeta que, a principios del siglo XVI, aparece como una señora influyente y decidida, entroncando por matrimonio a los tres linajes elgetarras más poderosos. Sus tres matrimonios son de significada "conveniencia", pues sus esposos son señores de mayorazgo viudos y con una diferencia de más de veinte años de edad. En aquel momento el matrimonio de viudas no era bien visto socialmente, a no ser que fuera necesario para continuar un linaje o mantener un mayorazgo.
Vivió 65 años, una edad longeva para aquella época, y durante su vida se enfrentó a varios pleitos para defender los intereses de sus dos primeros maridos ya fallecidos. Es continuada la defensa de la propiedad de Jaolaza y otras propiedades contra los Otalara, a la muerte de su hijo Hernando, casado con María Ruiz de Otalora de la poderosa casa-solar de Otalora (barrio Aozaratza de Aretxabaleta). Y también pleitea para reparar los daños por la muerte en una reyerta de su segundo marido en Valladolid, a manos de González de León.

Guiomar, antes de morir en 1555, dejó expresado en su testamento algunas voluntades y las múltiples adversidades:

- "Dice haber gastado mucho dinero en pleitos con los Otalora en defensa de Jaolaza, con Pedro González de León por la muerte de su segundo marido, etc."
- "Se queja de que su primer marido, Pedro de Ibarra, le gastó más de 1.200 ducados de la herencia de su padre, Ochoa Donor".
- "Se lamenta de que siempre le había sido adversa la fortuna así en las muertes de maridos e hijos, como en los pleitos... y por ello había caído en gran pobreza".
- "Declara como heredera universal a su nieta única, María (Pérez) de Ibarra y Jaolaza, hija legítima de su hijo Ochoa ya muerto".[5]

[5] Documentación del Archivo de la casa Unceta. Mayorazgo de Elgueta-Jaolaza.

Senar hau Valladoliden hil zen Pedro Gonzalez de Leonekin izan zuen borroka batean. Heriotza hau dela eta, Guiomarrek auzi garesti eta neketsua eduki zuen hiltzailearekin.
Seme bakarra izan zuten: Ochoa de Elgueta de Olaegui o de Izaguirre (1525/-1550), zeini bere ama alargunak, oinordekotza eskubideei jarraituz, Jaolaza etxearen jabetza laga zion 1545ean.
Seme honek 1547an Domenja de Ibarra, Elgetako Ibarrataren ondorengoa, esposatu zuen, eta azken egunak Ameriketan konkistatzaile moduan eman ostean, Mexicoko Cholula hirian hilgo zen 1550ean.

- Hirugarren ezkontzan (1525) Martin Lopez de Zarazqueta esposatu zuen, eta ez zuten ondorengorik izan.

Guiomar, XVI. mendearen hasierako Elgetako andre hau, betiere itzal handiko gisa ageri zaigu, ezkontzen bidez Elgetako hiru leinu ahaltsuenak uztartu zituena. Haren hiru ezkontzek dute "komenentzia" kutxu argi bat; izan ere, hiru senarrak dira maiorazkoen jabe, hirurak alargunak eta hirurak adinekoak, bera baino hogei urte zaharragoak. Garai hartan emakume alargunen ezkontza ez zen ondo onartua gizartearen aurrean, ez bazen leinuaren iraunkortasunerako edo oinordekotza mantentzeko.
65 urtez bizi izan zen, luze samar sasoi hartarako, eta bizirik iraun zuen artean hainbat auziri aurre egin behar izan zien zendutako bere bi senarren interesak defendatzea zuela helburu. Etengabea da Jaolaza etxearen eta beste ondasun batzuen jabetzaren defentsa Otaloratarren aurrean, bere seme Hernando, Aretxabaletako Aozaraza auzoko Otalora oinetxe ahaltsuko Maria Ruiz de Otalora esposatu zuena hil zenean. Auzitara jo zuen baita ere, bere bigarren senarra izan zena Gonzalez de Leonek Valladoliden hil izanak eragindako kalteak konpondu nahirik.

Guiomarrek, 1555an hil aurretik, egindako testamentuan adierazi zituen hainbat azken-nahi eta jasandako ezbehar ugariak ere:

- "Dio diru asko xahutu duela Otaloratarrekiko auzietan Jaolatzaren defentsan, baita Pedro Gonzalez de Leonekikoan ere bere bigarren senarraren hilketa zela eta"
- "Kexu da lehen senarrak, Pedro de Ibarrak, 1.200 dukat baino gehiago xahutu zizkiola bere aitak, Ochoa Donorrek, utzitako jaraunspenetik",
- "Atsekabetuta dago patuak beti bere aurka egin duelako; bai bere senarren eta semeen heriotzei dagokienez, hala nola auzietan… eta horiek direla eta, pobrezia handian eroria dela".
- "Izendatzen du bere oinordeko unibertsaltzat bere iloba bakar den Maria (Perez) de Ibarra y Jaolaza, bere seme Ochoa jada zenduaren alaba legitimoa denez".[5]

[5] Documentación del Archivo de la casa Unceta. Mayorazgo de Elgueta-Jaolaza.

4. MARTÍN (SÁEZ) IBARRA MARQUIEGUI

Relato de un Inquisidor General en el ejercicio de la persecución y condena de encausados, y que quiso perdurar con su sepulcro y un retablo en la iglesia parroquial.

Martín Sáez de Ibarra y Marquiegui nació en Elgeta sobre 1495 y murió longevo sin una fecha precisa después de 1570, año del que tenemos la última referencia.

Desciende de la antigua familia de los Ibarra de Eibar y tuvo continuidad en uno de sus descendientes establecido en Elgeta. Esta familia elgetarra ostentó como escudo de armas tres panelas (hojas de álamo) de sinople (verde), puestas en triángulo. (Ver imagen en el blasón del sepulcro de la iglesia).

El escudo de los Ibarra / Ibarrataren armarria

Su padre, Francisco Sáez de Ibarra, nacido en Eibar, se instaló en Elgeta al casarse con María Pérez de Marquiegui y Mallea, nativa de la villa y de la casa-solar Marquiegui. De ella eran dueños los padres de su madre, Pedro Sáez de Marquiegui, nacido en Elgeta, y María Mallea, nacida en Eibar.
Tuvieron nueve hijos/as: Pedro, María, Martín, Sancho, Francisco, Diego, Ana, Gracia y Domenja de Ibarra y Marquiegui. (Ver genealogía Anexo III).

Está documentado que Francisco ejerció de abogado en la villa de Eibar y como juez en las tierras del Condestable de Castilla (mando supremo en el ejército del reino castellano), Pedro Fernández de Velasco. El palacio del Condestable estaba asentado en la ciudad de Burgos, en cuya catedral aún se conserva su sepulcro. Por estos cargos ejercidos por Francisco parece verosímil que algunos de sus hijo/as nacieran en otros lugares distintos de Elgeta, y se puede deducir que tres de sus hijos estudiaron leyes y teología para ser ordenados sacerdotes y ejercer cargos institucionales.

4. MARTIN (SAEZ) IBARRA MARQUIEGUI

Auzipetuen jazarpenean eta kondenan izandako jardunean Inkisidore Nagusi baten gorabeheren kontaketa, zeinek bere itzala denbora luzez iraunarazi nahi izan zuen eliza nagusian hilobi eta erretaula bat eraikiaraziz.

Martin Saez de Ibarra y Marquiegui Elgetan sortu zen 1495 urtearen inguruan, eta adintsu hil zen noiz ez dakigula, baina 1570az geroztik, urte horretakoa baita hari buruz dugun azken aipamena.

Eibarko Ibarratarren antzinako familiaren ondorengoa zen, gero Elgetara bizitzera etorri zen ondorengo baten jarraipena izan zuena. Elgetako familia honek bere harmarrian ageri zituen hiru makal-orri berde triangeluan ezarrita. (Ikus elizako hilobian azaltzen den blasoia).

Martineren hilobia / *Sepulcro de Martín*

Haren aita, Francisco Saez de Ibarra, Eibarren jaioa, Elgetara etorri zen bizitzera Maria Perez de Marquiegui y Mallearekin ezkondu zenean, herri honetako Markiegi oinetxeko alaba. Honen jabeak ziren bere amaren aita-amak: Pedro Saez de Marquiegui, Elgetan sortua; eta Maria de Mallea, Eibarren jaioa.
Bederatzi seme-alaba izan zituzten: Pedro, Maria, Martin, Sancho, Francisco, Diego, Ana, Gracia eta Domenja de Ibarra y Marquiegui. (Ikus III. Eranskineko genealogia)

Dokumentuetan bilduta dago Franciscok abokatu-lanetan jardun zuela Eibarren eta epaile moduan Pedro Fernandez de Velasco Gaztelako Kondestablearen (Gaztelako erreinuko gudarostearen agintari nagusia) lurretan. Kondestablearen jauregia Burgosko hirian zegoen kokatuta, nongo katedralean oraindik ere haren hilobia gordetzen den. Franciscok bete zituen lanak zirela eta, litekeena da haren zenbait seme-alaba Elgetatik kanpo sortuak izango zirela mundu honetara, eta ondorioztatu daiteke haren semeetatik hiruk lege- eta teologia-ikasketak egin ondoren apaiztu eta erakundeetan karguak izan zituztela.

Martín en 1543 fue nombrado Inquisidor General del Reino de Navarra en Calahorra, y permaneció en el cargo y en esa sede durante veintisiete años.

Desde 1478, año fundacional de la Inquisición moderna en el Reino de Castilla con los Reyes Católicos, se van conformando una red de tribunales de distrito con sedes permanentes, y un consejo centralizador para todo el reino, el "Consejo General de la Suprema Inquisición". Las primeras sedes permanentes se establecieron en Valladolid y Sevilla, y con el tiempo se activaron las de Barcelona, Zaragoza y Calahorra-Logroño.

El Distrito Inquisitorial Norte de Calahorra-Logroño se va configurando desde 1491, y peregrinó su sede permanente por diversos lugares (Calahorra, Durango, Osma, y de nuevo Calahorra). Tras la conquista de Navarra por el Reino de Castilla con Fernando el Católico en 1512, se vuelve a instaurar al año siguiente como "Tribunal de la Inquisición de Navarra" (o "Santo Oficio del Reino de Navarra"), y discurrió la sede permanente por Pamplona, Estella y Tudela. En los tiempos de Martín como Inquisidor, la sede estaba instalada en Calahorra desde 1521 hasta que en 1570 se trasladó a Logroño, en cuya ciudad se mantuvo hasta 1834, año en que es suprimida la Inquisición por la Reina Gobernante María Cristina.

Este Distrito Inquisitorial Norte ocupaba un territorio estratégico-político de unos 33.000 kilómetros cuadrados. Se extendía por las actuales comunidades autónomas de Cantabria (excepto el valle de Liébana), País Vasco, Navarra, La Rioja, así como, ya en tierras burgalesas, por las poblaciones de la vertiente oriental de los Montes de Oca, y en Soria, por el partido de Agreda.
Asimismo, limitaba con el territorio fronterizo y costero del Reino de Castilla (mar Cantábrico oriental y la frontera con Francia). Así se convertiría este distrito por su situación territorial en un instrumento del dominio y control castellano de la política interior y exterior. De modo que el Tribunal ejercía una jurisdicción independiente de la eclesial, superior a otros organismos y sometida directamente a la Corona Castellana, imponiendo la ideología dominante y propagando la ortodoxia religiosa de la fe cristiana.

En Calahorra el edificio de la Inquisición albergaba las salas de audiencia, dependencias de los oficiales, archivos, algunas viviendas, cárceles o mazmorras perpetuas (o para los condenados por un tiempo), cárceles del secreto (o para los incomunicados mientras se realizaban las instrucciones), salas de tormentos para la tortura.

Este Tribunal estaba organizado con una compleja estructura a nivel interno de la sede permanente y a nivel externo del ámbito territorial.
A nivel interno, la estructura básica estaba constituida por un conjunto de servidores asalariados, organizados de forma jerarquizada. Los inquisidores eran los jueces o responsables máximos del tribunal, y en Calahorra actúaban dos de forma conjuntada (uno de ellos Martín y el otro Fernando de Valdeolivas, con el que compartió el cargo durante diecisiete años). Estos inquisidores, eclesiásticos y juristas, instruían los procesos, decidían los arrestos y pronunciaban los veredictos.

Martin 1543an Nafarroako Erresumako Inkisidore Nagusi izendatua izan zen Calahorran, eta zeregin horretan iraun zuen hogeita zazpi urtez.

1478tik, Errege Katolikoekin Gaztelako Erreinuko Inkisizio berria sortu zenetik, egoitza iraunkorreko barrutiko auzitegien sare bat eratuz joan ziren, eta kontseilu zentralizatzile gisa, erresuma osorako izango zen "Inkisizio Goreneko Kontseilu Nagusia". Lehen egoitza iraunkorrak Valladolid eta Sevillan ezarri ziren, eta denborak aurrera egin ahala, martxan jarri ziren Barcelonakoa, Zaragozakoa eta Calahorra-Logroñokoa.

Iparraldeko Inkisizio-Barrutia 1491etik aurrera hasi zen eratzen, eta egoitza iraunkorra hainbat aldiz aldatu zuen (Calahorra, Durango, Osma, eta berriro Calahorra). Fernando Katolikoren Gaztelako Erresumak 1512an Nafarroakoa menderatu zuenetik, berriro eratu zen 1513an "Nafarroako Inkisizio-Auzitegia" edo "Nafarroako Erresumako Ofizio Santua"; aldika Iruñean, Lizarran eta Tuteran izan zituelarik egoitzak. Martinek Inkisidore jardun zuen garaietan Calahorran zuen egoitza 1521etik, 1570ean Logroñora eraman zuten arte. Han iraun zuen 1834a arte, Erreginaorde Maria Cristinak Inkisizioa deuseztatu zuen urtera arte.

Iparraldeko Inkisizio-Barruti honek 33.000 kilometro karratuko lurralde estrategiko-politikoa hartzen zuen. Gaur egungo honako autonomia-erkidegotara hedatzen zen: Cantabria (Liebanako bailara izan ezik), Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Rioja, baita ere Burgosko lurretan dauden Montes de Ocako ekialdeko isurialdeko herriak, eta Sorian Agreda inguruko barrutia.
Halaber, Gaztelako Erresumaren muga-lurrekin eta kostaldearekin zituen zedarriak (Bizkaiko itsasoaren ekialdea eta Frantziarekiko mugaldeak). Lurraldetasunari dagokionez, zuen kokalekua aintzat hartuta, gaztelarren nagusitasunaren baliabide, eta kanpoko zein barneko politika kontrolatzeko bitarteko bihurtu zen. Era honetan, Auzitegiak elizatik berezitako eskumenak gauzatzen zituen, bestelako erakundeetakoak baino goragokoak, eta Gaztelako Koroari zuzenean lotutakoak; gauzak horrela, ideologia menderatzailea inposatu eta kristau fedearen ortodoxia hedatzeko baliabide zelarik.

Calahorrako Inkisizioaren eraikuntzak bere barruan hartzen zituen entzutegi-gelak, ofizialen gelak, artxibategiak, zenbait etxebizitza, ziega iraunkorrak (aldi luzerako zigortuentzat), isilpeko kartzelak (bakartuentzat), eta torturarako gelak.

Auzitegi hau egitura konplexu baten bidez eratuta zegoen, bai bere barruko zereginei begira, hala nola kanpoan betetzen zuen hedadurari zegokionez ere.
Egoitza iraunkorraren barne egitura hierarkia estu baten menpe arituko ziren soldatapeko zerbitzari-multzo batek osatzen zuen. Inkisidoreak ziren auzitegiaren epaileak edo arduradun nagusiak, Calahorrakoan hauetako bi aritzen ziren elkarlanean (bata Martin, eta bestea Fernando de Valdeolivas, zeinekin kargua partekatu zuen hamazazpi urtez). Inkisidore hauek, elizgizon eta legelariak, prozesuak izapidetu, atxiloketak erabaki, eta epai-ebazpenak emateaz arduratzen ziren.

En el puesto inmediato inferior se encontraba el de fiscal, cargo de promoción al de inquisidor. Unos servidores estaban relacionados con la hacienda del tribunal (un receptor, un notario de secuestros, el juez de bienes confiscados) o con la documentación surgida de la institución (un equipo de notarios o secretarios).

Otros oficiales ejercían sus servicios en las prisiones, como el alguacil de las cárceles secretas, el de la cárcel de la penitencia y el despensero o proveedor de presos. Además, ejercían el Alguacil Mayor (con gran categoría social), el portero, el nuncio (o mensajero) y los traductores de euskara, ya que una gran parte de la población del territorio era solo euskaldun.

A nivel externo del extenso distrito territorial existía una red de ministros (comisarios y familiares), que ejercían funciones de vigilancia, delación e información, sin sueldo fijo, pero beneficiados con privilegios, exenciones fiscales, inmunidad jurídica e incluso prestigio social.
Los ministros comisarios (con frecuencia clérigos del lugar) representaban al Inquisidor en la demarcación donde ejercían su cargo. Su cometido, entre otros asuntos, era recibir las denuncias y testificaciones en las causas de fe y criminales, trasladar a la sede de Calahorra a quienes apresaban, vigilar los movimientos de mercaderes o viandantes, inspeccionar librerías, bibliotecas, fronteras, navíos…
Los ministros familiares se encargaban principalmente de la vigilancia del comportamiento de sus convecinos para delatarlos en caso de presunto delito y acompañaban al comisario del lugar en sus funciones.

Tanto unos como otros (comisarios y familiares), demostrada la pureza de sangre, estaban al servicio del Inquisidor, que en muchos casos eran de su parentela o clientela con continuidad en sus descendientes. Tal es así que a Martín ya longevo, en una visita de 1565 el Inspector General, Jerónimo Manrique, le imputa "tratos de favor familiares".

La Inquisición tenía jurisdicción preferente sobre herejías (judaizantes, moriscos, protestantes, y en aquel momento de modo especial los luteranos), además de las heterodoxias sexuales (bigamias, sodomías, adulterios, fornicaciones puntuales o continuadas como incesto, homosexualidad, adulterio…), manifestaciones orales o proposiciones (blasfemias, burla o menosprecio del culto religioso, dogma o moral…), supersticiones o creencias ancestrales (brujas, hechiceros…), y libros prohibidos o grabados injuriosos en su mayoría importados desde más allá de las fronteras.

Las penas impuestas son, por lo general, leves, como corresponde a delitos menores contra la moral y el dogma. Los delitos graves deben ser enviados al Consejo de Calahorra, donde se abrirá un proceso complicado y costoso para cada uno de ellos. Los gastos de estos dilatados procesos en la sede se veían compensados, facilitando la economía del Tribunal, con las muchas penas pecuniarias impuestas en las visitas inquisitoriales, y de las que hay repetidas quejas y malestar entre la población del extenso distrito.

Maila bat beherago zegoen fiskala, inkisidore kargura jo nahi zutenek betetzen zutena. Zerbitzari batzuk auzitegiaren ogasunarekin zuten zerikusia (hartzaile bat, bahiketetako notario bat, konfiskatutako ondasunen epailea); edo erakundean sortutako dokumentazioaz arduratzen zirenak (notario- eta idazkari-multzo bat).

Beste ofizial batzuk presondegietan aritzen ziren, isilpeko kartzelako aguazila kasu, penitentziako kartzelakoa, edo janaritegiaren arduraduna, kondenatuak hornitzen zituena. Horiez gain, Aguazil Nagusi bat ere izaten zen (gizartean itzal handikoa), atezaina, nuntzioa (edo mezularia), eta euskarazko itzultzaileak; izan ere lurraldeko biztanle gehienak euskal elebakarrak baitziren.

Betetzen zuen lurralde zabaleko kanpo-harremanei begira, ministro-sare bat zegoen (komisarioak eta mirabeak), zeinek betetzen zituzten behaketa-, salaketa- eta informazio-lanak, soldata jakinik gabe, baina bestelako onura batzuk ateratzen zituztenak; hala nola, zerga-salbuespenak, zuzenbide-immunitatea, eta baita gizartearen aurreko itzala ere.
Ministro komisarioak (maiz herriko apaizak) Inkisidorearen ordezkariak ziren euren lana betetzen zuten lurraldeetan. Haien egitekoak, besteak beste, honakoak ziren: fede edo krimen-kontuetako auzibideetako salaketak eta testigantzak jasotzea, atxilo hartutakoak Calahorrako egoitzara eramatea, merkatarien eta ibiltarien joan-etorriak zelatatzea, ikuskari-lanak egitea liburu-dendetan, liburutegietan, mugetan, itsasontzietan… Ministro mirabeak, aldiz, auzokideen portaerak zelatatzea zuten zeregin nagusia, hutsegiterik gertatuz gero, salaketak eginez. Lekuko komisarioari laguntzen zioten euren zereginetan.

Batzuak zein besteak (komisario zein mirabeak), behin odolaren garbitasuna egiaztatuta, Inkisidorearen esanetara jartzen ziren, sarri askotan haien senitartekoak edo itzalpekoak izan eta, ondorengoetan jarraipena izaten zutenak. Horrelaxe ikus daiteke Martinen kasuan ere, hau ordurako adinean aurrera zihoala Inkisidore Nagusi Jeronimo Manriqueri 1565ean egin zion bisitan, honek "familia artekoei mesedezko tratua" leporatu zion.

Inkisizioak heresien gainean zuen lehentasunezko eskumena (judu-antzekoak, moriskoak, protestanteak, eta garai hartan bereziki luteranoak), baita sexu arloko heterodoxietan (bigamia, sodomia, ezkon-nahastea, aldikako edo jarraiko larru-jotzea, intzestua, homosexualitatea…), orobat ahoz egindako adierazpenetan (biraoak, erlijio-kultua edo dogma edo morala gutxiestekoak), hala nola sineskerien edo fede zaharreko usteen aurka (sorginak, aztiak), eta orobat gehienetan kanpotik ekarriak ziren debekatutako liburu edo grabatu iraingarrien kontra.

Ebatsitako zigorrak gehienetan arinak izaten ziren, moralaren edo dogmaren aurkako hutsegite arinei dagokien legez. Hutsegite larriak Calahorrako Kontseiluaren aurrera eraman beharrekoak ziren, eta han izapide luze, korapilatsu eta garestia irekiko zen horietako bakoitzarentzat. Auzitegiaren diru-kontuetan lagungarri izateko, izapidetze luze hauetan sortutako gastuak betetzeko izango ziren, besteak beste, inkisizioaren bisitetan ezartzen ziren diruzko zigorrak, zeinetaz kexu ugari jarri izanaren zantzuak dauden barruti zabaleko biztanleen artean.

Las condenas eran muy variadas: encarcelamiento, multas, confiscación de bienes y propiedades, torturas, y en imputaciones graves la quema en la hoguera, o si el reo aceptaba la culpa, la muerte en la horca. Un medio habitual de control y publicidad del delito era el "sambenito", derivación popular de "saco bendito". El condenado era obligado a vestir un traje o saco bendito, de color amarillo, al que acompañaba un sombrero alto de papel prensado en forma de mitra, los pies descalzos y un cirio encendido en la mano. Cumplido el tiempo de la condena, el traje del "sambenito" se exponía habitualmente en la iglesia o en un lugar visible, con el nombre, la culpa y el castigo de cada procesado. Así el estigma del delito y la pena perduraba en los parientes y allegados, y servía de escarmiento para todos los vecinos.

Las visitas inquisitoriales formaban parte activa de la Institución. Cada uno de los inquisidores de modo rotatorio visitaba el distrito geográfico, dividido en siete partidos, anualmente y por un período continuado de unos cuatro meses. A cada partido (la provincia de Gipuzkoa era uno) le correspondía por lo general una visita cada cuatro años. En esas visitas se desarrollaban varias actuaciones como: el vigilar la observancia y costumbres de la doctrina cristiana, el ejercer control y castigo social específico de las situaciones denunciadas, y el mantener o revisar la red de familiares y comisarios para irradiar la acción inquisitorial. Con motivo de estas visitas se utilizaban también medios propagandísticos y coactivos como el "Edicto de Fe" (o información oral y escrita de posibles delitos) o el "Auto de Fe" (o escenografía pública de las penas, con hogueras y patíbulos para la horca incluidos).

En la visita que Martín de Ibarra realizó en 1547 a Guipúzcoa y Vizcaya, resultaron procesadas por proposiciones heréticas, especialmente luteranas, sesenta y tres personas, y en el período 1547-48, se penitenciaron en la Inquisición de Calahorra, por la misma causa, a otras setenta y seis personas.

De Martín es la donación en la iglesia de Elgeta del sepulcro para sí y los suyos (1563), y el artístico retablo de Santiago y Andrés (1567), en el lugar que ocupaba la antigua capilla de Santiago, donación de Ochoa Donor de Olaegui. El coste de esta última donación, según el contrato conocido, fue un total de 3.300 ducados por la fábrica del retablo y su dorado.[6]

En el sepulcro está escrito: "En el nombre de Dios y en su santo servicio el muy magnífico Señor el Licenciado Martín Saéz de Ibarra, Inquisidor Apostólico en todo el Reino de Navarra y su partido, hizo edificar esta sepultura para sí y para los señores sus padres, el Licenciado Ibarra y Doña María Pérez de Marquiegui y para los señores sus hermanos, el Licenciado Pedro Saéz y Sancho Abad y Francisco Abad, beneficiado de esta iglesia y el Comendador Diego de Ibarra, cuyas ánimas requiescant in pace. Amen. Fue la voluntad del Fundador que otra ninguna persona se enterrase en ella, salvo los susodichos. Dejó renta perpetua situada como contiene en escritura de la dotación. Acabose el año 1563".[7]

[6] Ver "Elgeta, lehen eta orain", pags. 268-271.
[7] Ver más información en Reguera, Iñaki: "La Inquisición española en el País Vasco". Donostia, Ed, Txertoa, 1984.

Zigorrak era askotarikoak ziren, besteak beste: kartzelaratzea, isunak, ondasunak bahitzea, torturak, eta leporatze larrietan sutan erretzea; eta zigortuak kondena aitortzen bazuen, urkamendian hiltzea. Gizartearen aurreran delitua egin izana nabarmena izan zedin eta zainketa errazteko izaten ziren "sambenitoak", gaztelaniazko "saco benditotik" eratorria. Zigortua behartuta zegoen kolore horiko janzkera berezi hau eramatera, eta horretaz gain, mitra-ereduko paper zapaldutako kapelu luzea, oinak ortozik, eta isiotutako kandela ere eskuan eraman beharko zituen. Zigorra behin iraungita "sambenitoa" eskuarki elizan edo bestelako leku ageriren batean erakutsiko zen zigortu bakoitzaren izena, errua eta kondena ere azalduko zelarik. Horrela delituaren estigmak ahaide eta ezagunen artean irauteaz gain, auzoko guztien eskarmenturako ere izango zen.

Inkisizio-bisitak Erakundearen osagai ezagunak ziren. Inkisidore bakoitzak urteoro bere barrutiko, zazpi lurraldetan zatituta zegoena, herrialde guztiak bisitatzen zituen txandaka, lau bat hilabete irauten zuelarik behaketak. Lurralde bakoitza (Gipuzkoa zen hauetako bat) lau urtetik behin bisitatuko zuten. Behaketa horietako bakoitzean hainbat ekintza burutzen ziren; hala nola, kristau doktrinaren ohiturak zuzen betetzen ote ziren behatzea; salatutako egoerak behatu eta hala behar bazen, zigortzea; eta komisario eta mirabeen sarea zaindu eta iraunaraztea horrela Inkisizioaren eragina heda zedin. Bisita hauek zirela medio, propagandarako eta hertsaketarako bideak erabiltzen ziren; hala nola, "Fede-ediktua" (balizko delituen inguruko ahozko eta idatzizko argibideak), eta "Autofedea" (herriaren aurreko zigorren ezarketa agerikoa, sutan erretzeak, urkamendiak eta guzti).

Martin de Ibarrak 1547an Gipuzkoara eta Bizkaira egin zuen bisitan hirurogeita hiru pertsona auziperatu zituzten adierazpen heretikoengatik, bereziki Luteroren jarraitzaileak. 1547tik 1548ra doan aldian Calahorrako Inkisizioan beste hirurogeita hamasei pertsona izan ziren zigortuak arrazoi berberagatik.

Martinen dohaintza da Elgetako elizan dagoen bera eta bere ingurukoentzako hilobia (1563), eta Santiago eta San Andresen erretaula ederra (1567), lehen Ochoa Donor de Olaeguik emandako Santiagoren kaperak betetzen zuen lekuan jarri zena. Azken dohaintza honen kostua, kontratuan ageri denez, guztira 3.000 dukatekoa izan zen, erretaula egin eta urreztatzea barne.[6]

Hilobian idatzita ageri da: "En el nombre de Dios y en su santo servicio el muy magnífico Señor el Licenciado Martín Saéz de Ibarra, Inquisidor Apostólico en todo el Reino de Navarra y su partido, hizo edificar esta sepultura para sí y para los señores sus padres, el Licenciado Ibarra y Doña Maria Pérez de Marquiegui y para los señores sus hermanos, el Licenciado Pedro Saéz y Sancho Abad y Francisco Abad, beneficiado de esta iglesia y el Comendador Diego de Ibarra, cuyas ánimas requiescant in pace. Amen. Fue la voluntad del Fundador que otra ninguna persona se enterrase en ella, salvo los susodichos. Dejó renta perpetua situada como contiene en escritura de la dotación. Acabose el año 1563".[7]

[6] Ikus "Elgeta, lehen eta orain", 268-271 orriak.
[7] Ikus gehiago Reguera, Iñaki: "La Inquisición española en el País Vasco". Donostia, Ed, Txertoa, 1984.

5. DIEGO (SÁEZ) IBARRA MARQUIEGUI

Relato de un militar, explorador, comerciante, hacendado y con poder político, que no consiguió en vida el aspirado título nobiliario.

Diego de Ibarra y Marquiegui nació en Elgeta sobre el año 1510 y murió en la Ciudad de México en 1600. Desciende también de la familia de los Ibarra de Eibar y Elgeta, siendo hermano de Martín Sáez de Ibarra el Inquisidor. (Ver genealogía Anexo III).

El padre de Diego, Francisco Sáez de Ibarra, al ejercer de juez en las tierras del Condestable de Castilla, hizo posible que su hijo desde joven se instruyera y aprendiera el oficio de las armas en la casa y el séquito de este en la ciudad de Burgos, y llegó a ejercer de maestresala o mayordomo de palacio.

Mapa del Virreinato de la Nueva España / Nueva Españako erregeordetzaren mapa

En 1540 pasó a México, en donde estuvo protegido por su tío el capitán Miguel de Ibarra, conquistador de la Nueva Galicia y en 1542 convertido en el primer alcalde de la villa de Guadalajara. Era el tiempo de la gran guerra del Mixton contra los nativos chichimecas (habitantes en el norte de México), en abierta rebelión contra el Imperio Español. Esta fue la primera implicación militar directa de Diego en el Nuevo Mundo, y será la última porque resultó inhábil, al ser herido en una pierna. Los efectos de esta herida los seguirá padeciendo el resto de sus días.

Aún no terminada esta guerra, Diego y otros tres socios exploraron en 1546 la zona central de México y encontraron uno de los yacimientos argentíferos más importantes que tendría el Imperio Español, llamado San Bernabé. Dos años más tarde estos exploradores fundaron, a la sombra de esas minas, la villa de Zacatecas, de la que Diego llegaría a ser Alcalde Mayor.

5. DIEGO (SAEZ) IBARRA MARQUIEGUI

Armagizon, esploratzaile, merkatari, ondasundun eta aginte politikodun baten konta-kizuna, bizi izan artean hainbeste gura izandako noblezia-titulua erdietsi ez zuena.

Diego de Ibarra y Marquiegui Elgetan jaio zen 1510 inguruan eta Ciudad de Mexicon hil zen 1600ean. Eibarko eta Elgetako Ibarratarren ondorengoa zen hau ere, Martin de Ibarra Inkisidorearen anaia.
(Ikus III. eranskineko genealogia)

Diegoren aitak, Francisco Saez de Ibarrak, Burgosko Kondestablearen lurretan epaile lanetan jardun zuenez, ahalbideratu zuen bere semea gazte gaztetatik armetako lanbidean ikasketak egin eta hezi zedin hark Burgosen zuen etxean eta giza-taldean, eta mahaizain eta jauregiko otsein nagusi izatera heldu zen.

Diegoren irudia / *Imagen de Diego*

1540an Mexicora alde egin zuen, non bere osaba Miguel de Ibarra kapitainaren, Nueva Galiciako konkistatzailea eta 1542an Guadalajarako lehen alkate bihurtu zenaren babespean egon zen. Mixtongo gerrate nagusiaren garaia zen, zeinetan Chichimecasen aurka jardun zuten; hauek Mexikoko iparraldeko jatorrizko biztanleak ziren, Espainiar Inperioaren kontra oldartu zirenak. Honako hau izan zen Diegok Mundu Berrian izan zuen lehen parte-hartze militarra, eta azkena ere izango zen; izan ere, zango baten jasandako zauriaren ondorioz ezgaitasun osoa jaso baitzuen. Zauri horren ondorioak bizitza osoan nozitu beharko zituen.

Gerrate hura artean amaitu gabe, Diegok eta beste hiru bazkidek 1546an Mexicoko erdigunea esploratu eta Espainiar Inperioko zilar-meatoki aberatsenetariko bat aurkitu zuten, San Bernabe deitutakoa. Bi urte geroago esploratzaile hauek meatze horien itzalpean Zacatecasko hiribildua sortuko dute, zeinaren Alkate Nagusi izatera helduko zen Diego.

El embrujo de la plata atrajo a muchas personas hacia allí y no tardaron en producirse conflictos cruentos y continuados con los nativos.

No obstante, Diego se alejó de este núcleo de operaciones mineras y conflictos, marchando a la Ciudad de México, capital del Virreinato de la Nueva España, y dejó sus posesiones en manos de mayordomos y apoderados. Allí en la capital, aprovechando la fortuna acumulada, tejió un poder político-económico entre la élite virreinal con parientes y amigos. De modo que en 1556 contrajo matrimonio con Ana de Velasco de Castilla, hija del virrey de la Nueva España, Luis de Velasco. Este matrimonio se realizó por poderes, ya que Ana residía en la Península Ibérica.

Después de cinco años la esposa llegó a México, y en ese intervalo Diego viajó a Perú para explorar sin éxito nuevos negocios.

Una vez reunido el matrimonio en la capital de México, emprendió un largo viaje hasta las tierras septentrionales, donde Diego tenía sus mayores posesiones. Allí se asentó en Pánuco (Zacatecas), en donde nacieron sus dos hijos: Luis y María Ana de Ibarra y Velasco.

Diego acumuló una de las mayores fortunas del imperio colonial en México del siglo XVI. Además de numerosas minas, se hizo propietario de extensos latifundios de haciendas con ganados y siembras de trigo y maíz.

De ello tenemos constancia, al fundar en 1578 un mayorazgo (transmisión o vinculación del dominio de bienes a un heredero/a) en favor de su hija María Ana, muerto ya su hijo Luis.

En esta fundación se declaran los siguientes bienes:[8]

- Un total de 3.080 pesos de las alcabalas (impuestos reales sobre compraventas) de Orense y Cabreros (España).
- Haciendas de beneficio e ingenios de minas en Zacatecas, Pánuco, San Martín y Sobrerete, que habían costado 92.000 pesos de oro.
- Minas en Tepezalá, Indé y Santa Bárbara.
- Estancias de ganado mayor, llamadas Santa Ana, Santiago, Estancia Vieja, Chichimecas, Ciénaga Salada, Buenavista, y Guadiana, todas en la jurisdicción de la Nueva Vizcaya. Se estima que el ganado contenido en ellas pasaba de 130.000 cabezas el vacuno y de 4.000 el caballar.
- Una parte de la hacienda de Lagos, en copropiedad con otra familia allegada, en la que había más de 20.000 yeguas y otras tantas ovejas.

[8] AGI (Archivo General de Indias), Guadalajara de Mexico, 6. Última fundación del Mayorazgo realizada por Diego en el pueblo de Tultiplan (Mexico) ante el escribano real Juan Guijarro (11-01-1578).

Zilarrak sortutako lilurak jende ugari erakarri zuen inguru haietara eta laster sortuko ziren gatazka odoltsu eta etengabeak bertako jatorrizko biztanleekin.

Dena den, Diegok alde egin zuen mehatzen ustiaketetatik eta hauen ondoko gatazketatik. Nueva Españako Erregeordetzako hiriburu zen Mexicoko Hirira jo zuen, bere ondasunak ahaldunen eta maiordomoen esku utzita. Behin hiriburuan, metatuta zeuzkan aberastasunak baliatuta, eta Erregeordetzako gizarte-elitea osatzen zuten bere inguruko senide eta lagunen itzalpean ekonomia- eta politika-botere sare ahaltsua ehuntzeko gai izan zen. Gauzak horrela, Ana de Velasco de Castilla, Nueva Españako Erregeorde zen Luis de Velascoren alabarekin ezkondu zen 1556an. Ezkontza hau ahalordeen bidez egin zen; Ana Iberiar Penintsulan bizi baitzen. Bost urte igaro ondoren emaztea Mexicora iritsi zen, eta denbora-tarte horretan Peru aldean aritu zen Diego negozio berriak miatu nahian, azkenean ez zuen baina, arrakasta handirik lortuko.

Behin Mexicoko hiriburuan senar-emazteak bilduta, iparraldeko lurraldeak bisitatzera abiatu ziren, non jabetzako lurralde handienak zituen. Zacatecasko Panuco herrian finkatu eta han jaioko ziren beren bi seme-alabak; Luis eta Maria Ana de Ibarra y Velasco.

Diegok Mexicoko inperio kolonialeko XVI. mendeko dirutzarik handienetariko bat pilatu zuen. Hainbat meatze-ustiategiz gain, etxalde eta lur zabalen jabe egin zen, non azienda ugariak hazteaz gain, arto eta galsoro handiak erein zitzakeen.

Hori guztia ikus dezakegu 1578an maiorazkotza sortu zuenean (jaraunsleari oinordekotza-loturaz utzitako ondasun-eremua), bere alaba Maria Anaren aldekoa, Luis semea jada zendua baitzen.

Fundazio horretan honako jabetzen aitortza egiten zen: [8]

- 3.080 peso alcabaletakoa (sal-erosketen gaineko errege-zergak), Ourense eta Cabreros (Espainia) lurraldeetakoak.
- Zacatecas, Pánuco, San Martin eta Sobrereteko meategietako irabazien ondasunak, 92.000 urrezko peso kostatu zirenak.
- Meategiak Tepazalánen, Indén eta Santa Barbaran.
- Aziendak handiak hazteko etxaldeak; Santa Ana, Santiago, Estancia Vieja, Chichimecas, Cienaga Salada, Buenavista eta Guadiana deitutakoak, denak ere Nueva Vizcayako lurraldean zeudenak. Balioztatu daiteke etxalde horietan guztietan hazten zirela 130.000 behi-azienda eta 4.000 zaldi baino gehiago.
- Lagos etxaldearen zati bat, hurbileko beste familia batekin partekatzen zutena, non 20.000 behor eta beste hainbeste ardi zeuden.

[8] AGI (Indiaseko Artxibo Orokorra), Guadalajara de Mexico, 6. Última fundación del Mayorazgo realiza da por Diego en el pueblo de Tultiplan (Mexico) ante el escribano real Juan Guijarro (11-01-1578).

- Hacienda de Trujillo, que era la más notable de sus propiedades. Esta estancia estaba situada a orillas del río Grande de Medina cuyas aguas aprovechaba para el cultivo y cuyos pastizales alimentaban innumerables cabezas de ganado que producían cada año unos 30.000 becerros.
- Varias casas importantes en el centro de la ciudad de México.
- Varias casas que ocupaban una manzana de la plaza mayor en la villa de Durango (capital de Nueva Vizcaya y al norte de México).

Sobre el año 1554 Diego recibió en México a su joven sobrino, Francisco de Ibarra, nacido en Eibar e hijo de su hermano mayor Pedro Sáez de Ibarra. Lo introdujo en la corte virreinal, y patrocinará con unos 200.000 pesos sus expediciones y conquista del reino de Vizcaya (Durango, Chihuahua, Coahuila, Sonora y parte de Sinaloa). Este sobrino, por los servicios prestados, fue nombrado gobernador y capitán general del nuevo reino. Doce años más tarde, en 1566, el rey Felipe II le concedió el cargo con carácter vitalicio por dos vidas (generaciones), y con el derecho de designar un sucesor con el salario de 2.000 pesos anuales.

Sin embargo, Francisco de Ibarra en 1575, con unos cuarenta años y sin descendencia, muere y termina heredando el cargo de gobernador su tío Diego. Toma posesión y permanece algún tiempo en la jurisdicción, pero su residencia más estable estaba en el centro del poder de la capital de México. Ejercía el cargo la mayor parte del tiempo a distancia con sus tenientes y justicias, a pesar de las muchas quejas de sus súbditos y las repetidas órdenes reales para que residiera personalmente en la jurisdicción de su gobierno.

Es una constante en la vida de Diego el interés por conseguir un título nobiliario. Esto se acentúa desde 1593, ya longevo, en que expone reiteradamente al Consejo de Indias sus servicios en el Virreinato de la Nueva España durante más de cincuenta años. Su petición es de 10.000 pesos en indios y el título de conde o marqués. Se le concede el dinero para la compra de indios esclavos, pero no el título.

No obstante, una vez fallecido, algunos nietos y nietas pudieron disfrutar de títulos nobiliarios, concedidos en mérito a los servicios del abuelo Diego. Así, les fue concedido por disposición real en 1609 el de Marqués de Salinas del Rio Pisuerga (Palencia), y también en 1616 el de Conde de Santiago de Calimaya (Toluca-México).[9]

[9] Ver más información en Flores, M. Elizabeth: "Entre la ambición por el poder y la riqueza". Universidad Autónoma de Zacatecas.

- Trujillo etxaldea zen bere jabetzarik bikainetariko bat. Medinako Rio Granderen ertzean kokatuta zegoen eta hango urak probetxatzen zituzten laborantzarako. Hango belardietan bazkatzen ziren ezin konta ahala abelburu, urtero 30.000 inguru txahal ekoizten zutenak.
- Mexicoko hiriburuko erdigunean zenbait etxe nabarmen.
- Durangoko (Mexicoko iparraldeko Nueva Vizcayako hiriburua) enparantza nagusian etxadi oso bat osatzen zuten hainbat etxe.

1554 urtearen inguruan Diegok bere iloba gaztea Francisco de Ibarra, Eibarren sortua eta bere anaia Pedro Saez de Ibarraren semea, jasotzen du Mexicon. Erregeordetzaren gortean sarrarazten du, eta 1554an 200.000 peso inguruko laguntza eman zion Vizcayako erresuman (Durango, Chihuahua, Coahuila, Sonora eta Sinaloako zati bat) egin behar zituen espedizio eta konkistetarako. Iloba hau, egindako lanengatik, erresuma berri horretako Gobernadore eta Kapitain General izendatu zuten. Hamabi urte geroago, 1566an, Felipe II. erregeak berretsi zuen karguan bi gizalditarako, urteko 2.000 pesoko soldata izango zuen oinordeko bat izendatzeko eskubidea zuelarik.

Hala eta guztiz ere, Francisco de Ibarra 1575ean berrogeiren bat urtekoa zela eta oinordekorik gabe hil zenean, bera osaba Diegok hartuko zuen gobernadore kargua heredentzian. Kargua hartu eta denboraldi batez lurralde hartan biziko da, baina, hala ere, bere bizileku nagusia agintearen muina zen Mexicoko hiriburukoa izango zuen. Mendekoen kexu ugariak gorabehera, eta bere gobernua gauzatzen zen lurraldean bizitzeko agindua erregearengandik ere makina bat aldiz jasota zuen arren, bere lana gehienetan urrundik beteko zuen ahaldun eta justiziak tarte zirelarik.

Diego bere bizitza osoan irmo saiatu zen noblezia-titulu bat lortzearen alde. Hau areagotu egingo da adinez aurrera joan ahala, 1593tik aurrera behin eta berriz agertuko ditu Indietako Kontseiluaren aurrean Nueva Españako Erregeordetzarentzat egindako zerbitzuak berrogeita hamar urtetan zehar. Bere eskaera da 10.000 peso indiarrak erosteko, eta markes edo konde titulua. Dirua eman zioten indiar morroiak erosteko, baina ez titulurik.

Hala eta guztiz ere, behin hura zenduta, haren biloba batzuk eduki ahal izan zituzten nobleziako tituluok, haien aitajaun Diegok egindako zerbitzuen merezimendu gisa. Gauzak horrela, 1609an emandako errege-agindu baten bidez Salinas del Rio Pisuergako markes (Palencia) izendatu zituzten, eta 1616an emandako beste baten Santiago de Calimayako (Toluca-Mexico) konde.[9]

[9] Ikus Flores, M. E.: "Entre la ambición por el poder y la riqueza". Universidad Autónoma de Zacatecas.

Relato de un capitán de navío que con la fortuna adquirida constituyó un mayorazgo e hizo valiosas donaciones eclesiales.

Francisco de Zuloeta y Arriola nació en Elgeta en 1640 y murió el año 1708 en su última residencia de Bergara. Por su mandato testamentario fue enterrado en la sepultura que tenía en propiedad en el interior de la iglesia de Elgeta.

Su padre fue Antonio de Zuloeta Sustaiza, procedente del caserío Zabaleta Gainekoa (barrio de Angiozar), y su madre, María Perez Arriola Zabaleta, nacida en el núcleo urbano de Elgeta. Fueron tres hermanos: Francisco, Antonio y José Zuloeta Arriola. (Ver genealogía en el Anexo IV)

El puerto fluvial de Sevilla / Sevillako ibai-portua

Francisco, treinta años después de su nacimiento, aparece en la década de los años 1670-80, residiendo en Sevilla y ejerciendo como capitán de navío en viajes a las Indias.

De joven, como otros emigrantes vascos, llegó a Sevilla en la segunda mitad del siglo XVII para mejorar sus condiciones de vida. La mayoría de ellos se embarcó con destino definitivo a las Indias y algunos se vincularon al tráfico mercantil de la ciudad.

Esta ciudad hispalense, regada por el río Guadalquivir, tiene un puerto fluvial, pero distante cien kilómetros de la costa, con algunos tramos del río sinuosos y de poco calado. A pesar de esta localización, fue desde la antigüedad un estratégico e importante puerto comercial.

Ontzi-kapitain baten kontakizuna, zeinek irabazitako dirutzekin maiorazkoa eratu zuen eta elizari balio handiko dohaintzak egin zizkion.

Francisco de Zuloeta y Arriola Elgetan 1640an jaio, eta Bergarako bere etxean hil zen 1708an. Bere mandatuagatik Elgetako elizaren barruko hilobian lurperatu zuten.

Haren aita Antonio de Zuloeta Sustaiza izan zen, Zabaleta Gainekoa baserrikoa (Angiozar auzoa); eta ama, Maria Perez Arriola Zabaleta, Elgetako herri-erdigunean sortua. Hiru seme izan zituzten: Francisco, Antonio, Jose Zuloeta Arriola. (Ikus IV. eranskineko genealogia)

Zuloeta Maiorazkoaren kontu-liburua / *Libro de Cuentas del Mayorazgo Zuloeta*

Francisco, jaio eta handik hogeita hamar urtera, 1670-1680 hamarkadan, Sevillan ageri da bertan bizi eta ontzi-kapitain lanak egiten Indietara egiten dituzten joan-etorrietan.

Gaztetan, beste emigratzaile euskaldun batzuk legez, Sevillara iritsi zen XVII. mendearen bigarren erdian bere bizi-baldintzak hobetu asmoz. Haietatik gehiengoak Indietarako bidea hartzen zuen han garatzen zirelarik betiko, eta beste batzuk hiri hartako merkataritzako bizimoduarekin lotzen ziren.

Sevillar hiri honek, Guadalquivir ibaiak ureztatua, ibai-portu bat du, itsasotik ehun kilometro barrura, erreka zati batzuk oso bihurgunetsuak eta sakonera gutxikoak dituela. Ezaugarri hauek gorabehera, oso antzinatik erabili izan den merkataritza-portu estrategiko eta garrantzi handikoa da.

Y tras el descubrimiento de América se convirtió en un puerto universal, con la exclusiva de puerto único en la carrera de Indias. Así mantuvo ese monopolio hasta que este tráfico comercial se centró en el puerto de Cádiz desde 1717.

En el largo y peligroso tránsito oceánico se siguió esta organización:

- El Consejo de Indias, máximo órgano del reino castellano creado en 1524 para la administración indiana, ordenaba el número de viajes y embarcaciones.

- El "Consulado de la Universidad de Cargadores a Indias de Sevilla" (fundado en 1543), por medio de la Casa de Contratación (creada en 1503) y la asociación gremial de los "Cargadores de Indias", decidía la carga y registro de los productos a exportar (en una mayoría agrarios, férreos y metálicos, textiles, pinturas, libros y papel, armas y pólvora, ceras…).

- En los inicios esta navegación atlántica se surcaba con navíos aislados, sin protección alguna. Sin embargo, a partir de 1543 se estableció un convoy anual y protegido por naves armadas como defensa de los ataques piratas y corsarios. Y desde 1561 se asienta el sistema de dos convoyes anuales al Nuevo Mundo: uno en abril (denominado "flotas") con destino al Virreinato de Nueva España (NE) (la actual México) con puerto final en Veracruz, y su extensión a Puerto Rico, Honduras y Cuba; y el otro en agosto (denominado "Galeones") a Tierra Firme (territorios de Venezuela, istmo de Panamá y parte de la actual Colombia) con puerto final en Portobelo (Panamá), y con extensión a Margarita, Venezuela y Santa Marta. Ambos convoyes pasaban el invierno en las Indias y en el mes de marzo se reunían en el puerto de la Habana para emprender juntos la travesía de tornaviaje hasta Sevilla.

- En la segunda mitad del siglo XVII solo se formaron 42 convoyes –23 con destino a NE y 17 a TF–. Cada convoy podía oscilar entre unos 6 y 16 navíos mercantes y siempre acompañados por algunos navíos de defensa. Esta travesía duraba alrededor de dos meses y medio, con un cómputo aproximado de doce días hasta Canarias, un mes hasta México y otro hasta el Caribe. Eran frecuentes los retrasos a causa de las inclemencias del tiempo, de la presencia de corsarios, o de la demora de los comerciantes en el depósito o venta de los productos.

En esta época que nos ocupa, Sevilla vivía un ajetreo permanente para preparar y recibir los viajes de ida y vuelta a América, con el transporte de productos y tránsito de viajeros. En torno a esta intensa vida comercial giraron profesiones propias del mar como el pilotaje, armadores, dueños de navíos, capitanes, marineros; y también de otras actividades como prestamistas, compradores de oro y plata, mercaderes de todo tipo de productos y de personas esclavas.

Amerika aurkitu zenez geroztik, mundu-mailako portu bihurtu zen, Indietako sal-erosketetako norgehiagokan eskubide guztiak zituen portu bakarra izango zena. Monopolio hori mantendu zuen Cadizko portuak merkataritza-trafiko hori lortu zuen arte 1717tik aurrera.

Ozeanoa zeharkatzen zuen ibilbide luze eta arriskutsuan honako antolamenduari jarraitu zitzaion:

- "Indietako Kontseiluak", gaztelar erresumak indiar administraritzarako 1524an sortutako erakunde gorenak, erabakitzen zuen bidaien eta itsasontzien kopurua.

- "Indietarako Zamatzaileen Unibertsitateko Sevillako Kontsulatuak" (1543an sortuak), Kontratazio-Etxeak (1503an fundatua) eta "Indietarako Zamatzaileen" gremio-elkarteak elkarreraginez sortutakoak erabakitzen zuen esportatu beharreko produktuen zama eta erregistroa (gehienetan nekazaritzakoak, burdinazkoak eta metalezkoak, ehungintzakoak, margoak, liburuak eta paperak, armak eta bolbora, argizariak…).

- Hastapenetan Atlantikoko nabigazio bidaldi hau inolako babesik ez zuten itsasontzi isolatuen bidez egiten zen. Hala eta guztiz ere, 1543tik aurrera urteko konboi bat ezarri zen itsasontzi armatuek babestuta, horrela itsaslapurrei eta kortsarioei aurre egiteko moduan zirela. 1561etik aurrera Mundu Berrira urteko bi konboi bidaltzearen sistema ezarri zen: bata apirilean ("ontzidi" deitua) Espainia Berriko Erregeordetza (EB) helburu izango zuena (oraingo Mexico) Veracruzko portua azken helmuga zuena, eta handik Puerto Rico, Honduras eta Cubara zabaltzen zena; eta bestea abuztuan ("galeoiak" deitua) Lehorreko Lurraldeetara (LL) bideratua (Venezuelako lurraldeak, Panamako istmoa, eta oraingo Colombiako zati bat) Panamako Portobeloko portua azken helmuga zuena, eta handik Margarita, Venezuela eta Santa Martara zabaltzen zena. Bi konboiak negua Indietan igarotzen zuten eta martxoan Habanako portuan elkartu ondoren Sevillarainoko itzulerako nabigazioari ekiten zioten.

- XVII. mendeko bigarren erdian 42 konboi baino ez ziren osatu- 23 EB helburu zutenak eta 17 LL-era. Konboi bakoitzaren merkantzia-ontzi kopurua 6 eta 16 tartekoa izan zitekeen, betiere defentsarako beste ontzi batzuen laguntza izaten zutelarik. Bidaldi honek bi hilabete eta erdi inguru irauten zuen, gutxi gora behera honela osatzen zelarik: hamabiren bat egun Canarietara, hilabete Mexicoraino, eta beste hainbeste Cariberaino. Oso ohikoak ziren atzerapenak besteak beste honako arrazoi hauek zirela medio: eguraldi txarrak, kortsarioak agertu izana, merkatariek beren produktuak berandu ontziratu edo saldu izana.

Diogun garai horretan, Sevillak etengabeko harat-honata eta mugimendua bizi zuen Amerikara joan eta etorri beharreko bidaiak prestatu eta produktuen garraioa eta bidaiarien joan-etorriak antolatu ahal izateko. Merkataritzako giro bizi honen inguruan itsasoarekin lotura duten lanbide ugari mogitzen ziren; hala nola, pilotuak, armadoreak, ontzien jabeak, kapitainak, marinelak; eta baita bestelako jardueretakoak ere; esate baterako mailegu-emaileak, urre eta zilar-erosleak eta era askotako produktuen merkatariak, baita esklaboenak ere.

Así se asentaron en la ciudad por esas fechas hombres de negocios y marineros vascos, y bastantes de ellos se introdujeron en los órganos del poder económico e institucional de la ciudad. Los que tuvieron éxito en este ambiente, como es el caso de Francisco, además de desarrollar su capacidad personal, sin duda se aprovecharon de las excelentes relaciones solidarias de paisanaje o de parentesco que mantenía este colectivo vasco.

Así lo muestran al menos dos organizaciones.
Una fue la "Hermandad de los Vizcaínos" (fundada en 1540), con solo cofrades naturales de las tierras vascas y con su propia capilla de Ntra. Sra. de la Piedad en el convento de S. Francisco de la ciudad. Esta cofradía, como lugar de encuentro, además de celebrar los actos religiosos, propiciaba las relaciones de negocios, defendía a los integrantes en cualquier tipo de juicio eclesiástico o civil, y promovía el rescate de cautivos en "tierra de moros".

Y otra fue la asociación en compañías comerciales. De hecho se conocen una veintena de ellas, que se constituyeron para el comercio de hierro y manufacturas metálicas, producidas en las numerosas ferrerías vascas. Entre ellas cabe destacar a un grupo de familias mercaderes de Elorrio, que como resultado de su éxito comercial y riqueza acumulada construyeron numerosos palacios y otras obras en su villa natal.

En este ambiente de Sevilla encontramos a Francisco en esta segunda mitad del siglo XVII. Quizás al principio sería llamado o acogido por familiares paternos o maternos, ya que otros Zuloeta y otros Arriola residían allí con una destacada posición social y económica. También parece evidente que los primeros años serían de aprendizaje en el oficio y los negocios.

Lo cierto es que Francisco aparece en los archivos de la Casa de Contratación de Sevilla, entre los años 1670-80, como "capitán" del navío llamado "Virgen de Atocha". Según estos datos, en esta década viajó en cuatro ocasiones al Virreinato de la Nueva España y en tres a la denominada "Tierra Firme". Es decir, participó en la mayoría de las expediciones de este período, lo que le supuso estar viajando continua y regularmente a las Indias.[10]

La estancia de Francisco en Sevilla fue temporal, pues veinte años más tarde retornó a su pueblo. Y en ese intervalo de tiempo se enriqueció notablemente con sus actividades marineras y mercantiles. Así el mismo, al retornar y con motivo de formalizar su contrato matrimonial, tasaba todo su patrimonio en 55.000 ducados de a diez reales de plata.[11]

[10] Ver Fernández, F.: "Comerciantes Vascos en Sevilla" (1650-1700). Diputación de Sevilla. Eusko Jaurlaritza-Publicaciones, 2000.
[11] (AHPG-GPAH 1/1888, B: 057r-064v)

Gauzak honela, garai haietan hiri hartan hartu zuten bizilekua hainbat negozio-gizon eta marinel euskaldunek, eta haietako zenbait hiriko aginpide ekonomikoa eta politikoa zuten erakundeetan sartu ziren. Giro horretan arrakasta lortu zutenak, gure Francisco kasu, beren gaitasun pertsonala garatu ahal izateaz gain, inolako zalantzarik gabe baliatu ziren euskaldunen artean herrikidetasuna edo senitartekotasuna zela eta, sortutako elkarlaguntzako giro ezin hobeaz.

Horrela adierazten dute orduko bi erakundek.
Bata "Bizkaitarren ermandadea" izan zen, 1540an sortua, bakarrik Euskal Herrian jaiotako anaikideak zituena, eta hiriko San Francisco komentuan "Nuestra Señora de la Piedad" kapera propioa zuena. Kofradia hartan, biltokia zenez, elizkizunak emateaz gain, merkataritzako harremanak errazten zituen, bere kideak defendatzen zituen edozein epaiketa zibil edo elizakoren aurrean, eta "mairuen herrian" gatibu zeudenak askatzea sustatzen zuen.

Eta bestea merkataritza-etxeen elkartea izan zen. Hala, ezagunak dira horrelako hogeiren bat, euskal burdinoletan ekoitzitako burdinaren eta metalezko manufakturen salerosketetarako sortu zirenak. Haien artean, nabarmentzekoa da Elorrioko merkatari- familien talde bat, zeinek merkaritza-arrakastari eta metatutako aberastasunari esker, jauregi eder askoak eta bestelako herrilan ugari eraiki zituzten beren jaioterrian.

Sevillako giro honetan aurkitzen dugu Francisco XVII. mendearen bigarren erdian. Litekeena da hasiera batean aitaren edo amaren aldeko senideren baten babespean aritu izana; izan ere, beste Zuloetar eta Arriolar batzuk bizi ziren han, gizarte- eta ekonomia-maila gailena zutenak. Agerikoa dirudi baita ere, hasierako urteak langintzaren eta salerosketen ikasketara emanak izango zirela.

Egia da Franciscoren izena azaltzen dela Sevillako Kontratazio-Etxearen artxibategietan, 1670 eta 1680 urteen artean "Virgen de Atocha" ontziaren "kapitain" moduan. Datu hauen arabera, hamarkada horretan lau aldiz bidaiatu zuen Espainia Berriko Erregeordetzara eta beste hiru bider "Lehorreko Lurraldeetara". Hau da, aldi horretan egindako bidaia gehienetan parte hartu zuen, eta horrek aldian aldiko eta etengabeko bidaietan ibili beharra ekarri zion.[10]

Franciscok Sevillan egindako egonaldia aldi baterakoa izan zen, hogei urte geroago bere herrira itzuli baitzen. Denbora-tarte horretan biziki aberastu zen bere itsasoko eta merkataritzako lanbideei esker. Gauzak horrela, etxera bueltatu eta bere ezkontzako kontratua egin beharra zuela kausa, bere ondasun guztiak zilarrezko hamar errealeko 55.000 dukatetan balioztatu zituen.[11]

[10] Ikus Fernández, F.: "Comerciantes Vascos en Sevilla" (1650-1700). Diputación de Sevilla. Eusko Jaurlaritza-Publicaciones, 2000.
[11] (AHPG-GPAH 1/1888, B: 057r-064v)

Como consecuencia de esta fortuna acumulada, a partir del año 1680 se conoce una amplia documentación, una referida a donaciones y otra referida a la adquisición de propiedades.

En cuanto a donaciones, están documentadas las realizadas en las iglesias parroquiales de Elgeta y Angiozar, residiendo aún en Sevilla:

- El envío de lámparas, objetos y ornamentos litúrgicos para las parroquias de Elgeta y Angiozar.[12]

- La donación del Retablo Mayor de la parroquia de Elgeta (1684). Para ello realizó dos contratos: la fábrica de madera y las pinturas. La fábrica de madera se construyó siguiendo la traza del maestro arquitecto Martín de Olaizola, en colaboración con los también maestros artesanos Jose de Echeberria y Juan de Iturriza, que integraban un reconocido taller en Elorrio; y el precio de la obra, además de aportar el material necesario, fue de 2.200 reales de ocho de plata. Y las pinturas u ocho valiosos lienzos del pintor Juan Simón Gutiérrez, fiel intérprete del maestro Murillo, fueron elaboradas y traídas desde su taller en Sevilla.[13]

- La donación del retablo colateral de San Sebastián y la construcción del púlpito también en la parroquia de Elgeta (1685).

- La fundación con los Jesuitas de Misiones Populares para predicar y enseñar la doctrina cristiana a los vecinos de Elgeta y sus barrios (1689). Estas misiones se realizarían anualmente y durante un mes, y consta que la fundación se mantuvo durante casi un siglo. Para ello donó inicialmente 33.000 reales de vellón (13.200 reales de plata).[14]

- Obras de reformas y albañilería en la parroquia de Angiozar (1710).

También está documentada la inversión de su fortuna en propiedades rústicas y urbanas. Con el retorno a su pueblo acumuló el amplio patrimonio de 19 caseríos, 2 molinos, 6 casas urbanas y otras fincas. A su vez, todas estas propiedades fueron arrendadas con pagos en especie y metálico, y aparecen escrituras con numerosas operaciones financieras de préstamos e hipotecas promovidas por él.

Con toda esta propiedad integrada fundó el Mayorazgo y Vínculo de los Zuloeta. El Mayorazgo o forma de vinculación de la tierra (vigente como institución desde 1505 a 1820) establecía la imposibilidad de enajenar la propiedad familiar o una porción de la misma, al tiempo que dictaba una orden sucesoria de persona única a heredar.

[12] (EUA, Actas de 1681).
[13] (AHPG-GPAH 1/1887, C: 117r-135v)
[14] (EUA, legajo 150, doc. 4)

Metatutako aberastasun hori zela eta, 1680tik aurrera dokumentazio zabala ezagutzen da, alde batetik egindako dohaintzei buruzkoa , eta bestetik erositako ondasunen ingurukoa.

Dohaintzei dagokienez, dokumentatuta daude Elgeta eta Angiozarko eliza nagusiei egindakoak, artean Sevillan bizi zela:

- Lanparak, eta liturgiarako objektu eta apaingarriak bidaltzea Elgeta eta Angiozarko eliza nagusietarako.[12]

- Elgetako parrokiako Erretaula Nagusiaren dohaintza (1684). Horretarako bi kontratu egin zituen: zurezko egiturarena, eta pinturarena. Zurezko egitura Martin de Olaizola arkitekto maisuak egindako trazan oinarrituta eraiki zuten, zeregin horretarako Elorrioko lantegi entzutetsua osatzen zuten Jose de Etxebarria eta Juan de Iturriza maisuen lankidetza izan zutela. Lan guzti horien kostua, beharrezkoak ziren gaiak hornitzeaz gain, zilarrezko zortziko 2.200 errealekoa izan zen. Eta pinturetan, Murillo maisuaren jarraitzaile zintzoa zen Juan Simon Gutierrez margolariaren zortzi mihise baliotsuak, haren Sevillako lantegian landu eta handik ekarri zirenak.[13]

- San Sebastianen alboko erretaularen dohaintza eta pulpituaren eraikuntza, Elgetako eliza nagusian baita ere (1685).

- Jesuitekin batera herri-misioak sortzea Elgetako eta auzoetako bizilagunei predikatu eta kristau-dotrina erakusteko (1689). Misio hauek urtero egingo ziren hilabete batez, eta jasota dago antolakuntza horrek ia mende oso bat iraun zuela. Horretarako hasieran 33.000 kobrezko errealeko (13.200 zilarrezko erreal) dohaintza egin zuen.[14]

- Angiozarko parrokiako eraberritze eta igeltserotza lanak. (1710)

Agirietan jasota dago baita ere haren dirutzaren inbertsioa baserrietako zein hiriko ondasunetan. Herrira itzultzean honako ondare zabala metatu ahal izan zuen: 19 baserri, 2 errota, 6 kaleko etxe, eta bestelako lursail batzuk. Aldi berean, jabetza hauek guztiak alokatu egin ziren, dirutan edo gauzaz ordaindu behar zirenak. Eta horrela agertu dira dokumentu ugari berak sustatutako mailegu eta hipoteken inguruko finantza-eragiketak jasotzen dituztenak.

Zituen ondasun guztiak bilduta Zuloetarren Maiorazkoa eta lotura fundatu zuen. Maiorazkoak edo lurrarekiko loturak (1505etik 1820ra indarrean iraun zuen instituzioa) ezartzen zuen sendiaren ondasunak edo hauen zati bat besterentzeko debekua, eta aldi berean agintzen zuen oinordekotza jasoko zutenen pertsona bakarren hurrenkera.

[12] (EUA, Actas de 1681)
[13] (AHPG-GPAH 1/1887, C: 117r-135v)
[14] (EUA, legajo 150, doc. 4)

Veamos algunos de los muchos bienes, extraídos del Libro de Cuentas del Mayorazgo de los Zuloeta:[15]

- Caseríos en el territorio actual de Elgeta (Mendiguchia-Urrejolaegi, Lasarte, Ikatzarre, Miravalles, Izaguirre, Udaiaga).
- Caseríos en el barrio de Angiozar (Zuloeta Gañekoa, Zabaleta Suso, Altzerreka, Berraondoena, Arescurenaga Yuso, Orbe casilla, Calegoen- Indianocoa, Jauregui, Ugarte, Campos).
- Caseríos en el barrio de Ubera (Posadas, Ibarguen-Ibargain, Anduri).
- Casas en los núcleos urbanos de Elgeta, Eibar, Bergara, Angiozar, Ubera.
- Molinos: uno en Angiozar y otro en Ubera.
- Variedad de fincas y terrenos diseminados en torno al territorio de Elgeta.

También a su vuelta a Elgeta contrajo matrimonio con María Benita Sumendiaga Arreguia (Elgeta 1647/ †1707 Bergara). Ella era hija de Martín Sumendiaga y Magdalena de Arreguia, residentes en Elgeta. Su padre, caballero de la Orden de Santiago, procedía de una familia comercial de Eibar. Y su madre era descendiente de la casa-solar de Arreguia (Angiozar).

Se casaron en Elgeta en agosto de 1687, con 47 y 40 años respectivamente. Y es posible que esta ceremonia nupcial coincidiera con la inauguración de los retablos de la iglesia parroquial donados por él. Y también consta que al mes siguiente, el día de San Miguel, tomó posesión como alcalde ordinario de Elgeta durante un año, como era preceptivo.

El matrimonio, Francisco y María Benita, no tuvo descendencia. A su muerte el Mayorazgo de los Zuloeta se fue transmitiendo según lo formalizado en la Fundación hasta que estas instituciones fueron derogadas por orden gubernamental en 1820.
Los sucesores herederos de Francisco Zuloeta Arriola fueron: Jose Zuloeta Arriola (su hermano), Jose Zuloeta Campos (su sobrino), Jose Antonio Zuloeta Olaso (su sobrino-nieto), María Simona Zuloeta Zupide (su sobrina-bisnieta), Felipe María Azcona Zuloeta (el hijo de la anterior).

(Ver mayorazgo en el Anexo IV).

[15] (BUA 01-L/396 y 397) (Libros de Cuentas del Mayorazgo de los Zuloeta, años 1696-1779).

Ikus ditzagun Zuloetarren Maiorazkoaren Kontu-Liburutik ateratako ondasun ugarietako batzuk:[15]

- Gaur egungo Elgetako lurretako baserriak (Mendigutxia-Urrejoalaegi, Lasarte, Ikatzerre, Miravalles, Izagirre, Udaiaga).
- Angiozar auzoko baserriak (Zuloeta Gainekoa, Zabaleta Suso, Altzerreka, Berrondoena, Areskurenaga Yuso, Orbetxetxoa, Kalegoen-Indianokoa, Jauregi, Ugarte, Campos).
- Ubera auzoko baserriak (Posadas, Ibarguen-Ibargain, Anduri).
- Elgeta, Eibar, Bergara, Angiozar eta Uberako kaleko etxeak.
- Errotak: bat Angiozarren eta beste bat Uberan.
- Elgetako lurren inguruan sakabanatutako era askotako lursail eta alorrak.

Herrira itzultzean Maria Benita Sumendiaga Arregiarekin (Elgeta 1647/†1707 Bergara) ezkondu zen. Hura Elgetan bizi ziren Martin Sumendiaga eta Magdalena de Arregiaren alaba zen. Aita, Santiagoren Ordenako zalduna, Eibarko merkatari-familia batetik zetorren. Ama Angiozarko Arregia oinetxekoa zen jatorriz.

Elgetan ezkondu ziren 1687ko abuztuan, hurrenez hurren 47 eta 40 urte zituztela. Litekeena da eztei hauek bat etortzea eliza nagusiko erretaulen inaugurazioarekin, berak dohaintzan emandakoak zirenak. Jasota dago baita ere, hurrengo hilean, San Migel egunez, Elgetako ohiko alkatetza hartu zuela urtebeterako, halabeharrezkoa zenez.

Francisco eta Maria Benita senar-emazteek ez zuten ondorengorik izan. Haiek hiltzean Zuloetarren Maiorazkoa Fundazioaren aktan formalizatu bezala igorri zen, harik eta instituzio hauek indargabetu ziren arte 1820ko gobernu-agindu baten bidez.
Francisco Zuloeta Arriolaren ondorengo oinordekoak hauek izan ziren: Jose Zuloeta Arriola (haren anaia), Jose Zuloeta Campos (haren iloba), Jose Antonio Zuloeta Olaso (haren iloba txikia), Maria Simona Zuloeta Zupide (haren birbiloba), Felipe Maria Azkona Zuloeta (aurrekoaren semea).

(Ikus Maiorazkoa IV. Eranskinean)

[15] (BUA 01-L/396 y 397) (Libros de Cuentas del Mayorazgo de los Zuloeta, años 1696-1779)

Relato de un militar en muchas batallas, y que tuvo el reconocimiento real como Tesorero de Bulas de la Santa Cruzada

Luis Egurbide-Asula y Lamarain nació en Elgeta en 1670 y murió en Santafé de Bogotá (actual capital de Colombia) en 1716.

Sus padres fueron: Nicolás Egurbide Oregui (1624) y Francisca Lamarain Arescurenaga, casados en Elgeta el año 1671 y vivieron en el caserío Azula (barrio Goimendi de Elgeta). Tuvieron seis hijos/as: Bartolomé, Domingo, Josefa, Mariana, Mª Ignacia y Luis Egurbide-Asula Lamarain.
(Ver genealogía en Anexo V)

Luis, siendo aún joven, y posiblemente coincidiendo con el matrimonio del hermano mayor en 1695, partió de su caserío y se alistó como militar voluntario. Fue enviado al Virreinato de la Nueva Granada (la actual Colombia y parte de Panamá y Ecuador) para servir en la guarnición de la ciudad de Cartagena de Indias (Colombia). Esta ciudad, localizada sobre el océano Atlántico, en el mar Caribe, era uno de los puertos más transitados de la América colonial, acumulando un valioso patrimonio. Su historia estuvo asociada a la piratería por los frecuentes ataques corsarios europeos en aquellos mares, de modo que la ciudad estaba totalmente fortificada y defendida. De hecho estos corsarios no solo atacaban en mar a los navíos españoles que transportaban metales preciosos, sino también los buscaban adentrándose en tierra.

En esta defensa militar de Cartagena de Indias estaba Luis con 27 años, cuando el 13 de abril de 1697 se produjo un ataque destructor y por sorpresa de corsarios franceses, mandados por el Barón de Pointis. En esta batalla nuestro elgetarra perdió el brazo y el ojo izquierdos. No obstante, salvó la vida porque los atacantes la respetaron a los defensores prisioneros o heridos, y en compensación, a pesar de una previa capitulación, se llevaron riquezas y valiosos tesoros de la ciudad.

Curado de las heridas graves sufridas, y ya con las incapacidades de un brazo y un ojo, partió hacia el Perú. Allí formó parte del personal militar español que vigilaba el Océano Pacífico. Con anterioridad se habían instalado unos astilleros en el Perú, donde se construyeron las primeras naves hechas en América. Aprovechando estas naves, viajó Luis de norte a sur, defendiendo los barcos españoles de los corsarios franceses.
Más tarde fue nombrado Sargento Mayor (con potestad en lo militar después del Gobernador y Teniente del Rey) en la Compañía de la ciudad de Archidona (Ecuador) y en la provincia de Quijos y Maca con todo su partido y jurisdicción en el Virreinato del Perú.

Gudu askotan aritutako militar baten kontakizuna, erregeak esker onez emandako Gurutzada Santuko Bulden Diruzain izendapena jaso zuena.

Luis Egurbide-Asula y Lamarain Elgetan sortu zen 1670an eta Bogotako Santafen (Colombiako oraingo hiriburua) hil 1716an.

Haren gurasoak Nicolas Egurbide Oregui (1624) eta Francisca Lamarain Arescurenaga (1632) izan ziren, Elgetan ezkonduak 1671an. Elgetako Goimendi auzoko Azula baserrian bizi izan ziren eta sei seme-alaba eduki zituzten: Bartolome, Domingo, Josefa, Mariana, Maria Ignacia eta Luis Egurbide-Asula Lamarain.
(Ikus V. eranskineko genealogia)

Luis, artean gaztea zelarik, eta seguru asko bere anaia nagusiaren 1695eko ezkontzarekin bat etorriz, baserritik irten eta borondatezko soldadu sartu zen. Nueva Granadako Erregeordetzara bidali zuten, (oraingo Colombia eta Panamako eta Ecuadorreko zati batzuk), Cartagena de Indiasko garnizioan zerbitzuak betetzeko. Caribeko itsasoan, Atlantikar ozeanoan kokatuta dagoen hiri hau Ameriketako kolonietako porturik garrantzitsuenetako bat zen, ikaragarrizko ondasunak biltzen zituena. Europako kortsarioek itsaso haietan egiten zituzten eraso ugariak zirela eta, hiri horren historia itsaslapurretarekin lotua ageri da. Horiek horrela, hiria guztiz gotortua eta defendatuta zegoen. Piratek metal baliotsuz betetako ontziak itsasoan erasotzeaz gain, lehorrean sartuta ere bilatzen zituzten meatzeak.

Cartagena de Indiasko defentsa militar horretan aurkitzen zen Luis 27 urtekoa zela, non 1697ko apirilaren 11an kortsario frantsesen, Pointiseko baroiaren aginduetara, eraso bortitz eta ezusteko bat pairatu zuten. Gatazka hartan gure elgetarrak ezkerreko besoa eta begia galdu zituen. Hala ere, bizirik atera zen erasotzaileek errespetatu egin zituztelako defendatzaile gatibu edo zaurituak. Horren ordainez, aldez aurretik hitzarmenak egin bazituzten ere, frantsesek berekin eraman zituzten hiriko aberastasunak eta ondasun baliotsuak.

Behin zauri larriak sendatuta, jada besoko eta begiko ezgaitasunak zituela, Peru aldera abiatu zen. Han ozeano Barearen zaintzan zegoen espainiar gudarostean parte hartu zuen. Ordurako Perun jarrita zeuden ontziola batzuk eta han egin ziren Ameriketako lehenbiziko itsasontziak, zeinak erabili zituzten kortsario frantsesengandik gordetzeko. Horietako batean nabigatu zuen Luisek ozeanoan gora eta behera.
Geroago Sarjentu Nagusi izendatu zuten (militar arloan agintea zuen Gobernadorearen eta Erregearen tenientearen ondoren) Ecuadorreko Archidona hiriko Konpainian, eta Quijos y Macako probintziaren eskumeneko barruti osoan, Peruko Erregeordetzan.

En 1709 emprendió un viaje de ida y vuelta a la Península Ibérica, y hay que pensar que las dificultades de varios meses en condiciones penosas de viaje le compensaban por las gestiones a realizar. Nada más llegar lo encontramos residiendo en la villa de Madrid al servicio cortesano del rey Felipe V.

Mapa del Virreinado de Nueva Granada / Nueva Granadako erregeordetzaren mapa

Al año siguiente consiguió por mandato y cédula real perpetua la "Tesorería de la Bula de la Santa Cruzada" de Santafé (hoy Bogotá) y su jurisdicción, en el virreinato de Nueva Granada. El tal nombre de Santafé no fue oficial durante la época colonial, pero su uso se volvió común por la necesidad de distinguir esta Santafé de otras ciudades con el mismo nombre, siendo Bogotá el nombre indígena de la región.
Este empleo, al parecer muy codiciado, consta que le fue concedido por la Corona "en agradecimiento a sus buenos y leales servicios como militar, y en reconocimiento a sus cualidades personales".

La labor en este cargo era recoger el aporte económico que hacían los fieles al Papa para promover y financiar las Santas Cruzadas, a cambio de otorgar beneficios o indulgencias de valor espiritual para acortar las penas del purgatorio en la otra vida. Tal impuesto se creó en los siglos XII y XIII en el continente europeo, y se extendió en 1573 a América del Sur y a las Antillas. En el origen de estas Cruzadas estuvo primero el intento de restablecer el control de la Iglesia Romana sobre Tierra Santa o Lugares Sagrados (1096-1291), y más tarde se extendieron hasta el siglo XV por la Europa latina cristiana. Durante este largo período de las Cruzadas se necesitaron hombres y dinero para pagar las guerras o expediciones contra los infieles o no creyentes de la religión cristiana.

Para acceder a este cargo, una vez nombrado, se necesitaban dos requisitos: uno el demostrar la pureza de sangre y así lo hizo con un documento de hidalguía (1709) promovido por su hermano Bartolomé que residía en Elgeta; y el otro el pagar a "juro de heredad" (derecho a transmitirlo en herencia) una cierta cantidad de dinero, que en este caso fue de 2.000 doblones (4.000 ducados). Por el desempeño del cargo la Corona le pagaría 1.000 pesos de a ocho reales de plata de salario anual (unos 725 ducados).

1709an Iberiar Penintsulara joan-etorriko bidaia batera abiatu zen, kontuan eduki beharrekoa da hilabetetako horrelako nabigazio neketsuaren eragozpenen ordaina espero izango zuela hemen egingo zituen gestioen ondorioz. Iritsi eta berehala ikusten dugu Madrilen Felipe V.aren gorteko zerbitzuetan.

Gurutzada Santuko Bulda / *Bula de la Santa Cruzada*

Hurrengo urtean lortu zuen erregearen aginduz eta biziarteko zedula beten bidez Santafeko (gaurko Bogota) eta bere eskumeneko lurretako "Gurutzada Santuaren Bulden Diruzaintza", Nueva Granadako erregeordetzan. Santafeko izen hau ez zen ofiziala izan kolonia-garaiak iraun zuen bitartean, baina denbora aurrera joan ahala izen arrunt bihurtu zen, eta Santafe hau izen bereko beste herri ugaritik bereizteagatik hartu zuen Bogota, azken hau lurralde hari indigenek ematen ziote izena zelarik.

Lanbide hau, dirudienez oso gutiziatua, jasota dago Koroak eman ziola "militar legez egin zituen zerbitzu on eta leialengatik, eta bere gaitasun pertsonalen esker-onez". Kargu honen zeregina zen aita santuaren jarraitzaileek gurutzadak sustatu eta diruz laguntzeko egiten zituzten diru-dohaintzak biltzea, gero purgatorioko egonaldia laburtzeko lagungarri izango ziren barkamenen ordainez. Zerga hau XII. eta XIII. mendeetan ezarri zen europar kontinentean, eta 1573an Hego Amerikara eta Antilletara hedatu zen. Gurutzada hauen jatorria hasiera batean izan zen Erromatar Elizak Lurralde Santuetako eta Leku Santuetako kontrola berrezartzeko (1096-1291) egin zituen ahaleginetan, geroago XV. mendera arte luzatu ziren Europako lurralde latindar kristauetan. Gurutzadek iraun zuten denbora luze horretan gizon eta diru asko eta askoren beharra izan zen fedegabeen edo erlijio kristauan sinesten ez zutenen aurkako gerrate eta espedizioak ordaindu ahal izateko.

Behin izendatuta, kargua erdiesteko bi baldintza ziren ezinbestez bete beharrekoak: lehena odolaren garbitasuna egiaztatzea, eta horrelaxe egin zuen Elgetan bizi zen bere anaia Bartolomek bultzatutako kaparetasun-agiri beten bidez (1709); eta bestea "onibar-zin" gisa (oinordekotzan eskualdatzeko eskubidea) diru multzo bat ordaintzea, kasu honetan 2.000 dobloi (4.000 dukat) izan zirenak. Karguan aritzeagatik Koroak zilarrezko zortzi errealeko 1.000 peso ordainduko zion (512 dukat) urte bakoitzeko.

También al año siguiente, en 1711, se le confirió el título honorífico de "Caballero de la Orden Militar de Santiago". En este intervalo de dos años de estancia en la Península Ibérica fue nombrado alcalde ordinario de Elgeta por un año como era preceptivo. La elección fue excepcional, incumpliendo las ordenanzas municipales. En el acta de nombramiento se dice que "por concurrir en el susodicho Don Luis todas las artes y calidades necesarias para gozar de los oficios honoríficos de paz y de guerra que se distribuyen entre los vecinos caballeros nobles hijosdalgo de sangre y limpios como conviene a conferirle a empleo y ocupación del Ayuntamiento ordinario de la Villa y su jurisdicción, dispensando por esta vez lo que ha previsto y dispuesto por las ordenanzas especialmente en la Constitución presente".[16]

Terminado el año de mandato municipal, viajó de nuevo a la Nueva Granada para ejercer su recién nominado cargo de Tesorero. El viaje era largo, penoso y arriesgado. Se salía del puerto de Cádiz, se arribaba a Cartagena de Indias, de allí se enlazaba con otro navío por el Río Grande de la Magdalena, atravesando Colombia, y se subía la cordillera de los Andes hasta llegar a Santafé de Bogotá. Hacia 1712 empieza su labor de Tesorero, junto a otros colaboradores, con las dificultades propias de recolectar un pago o impuesto eclesial en una población necesitada y la de sortear un extenso y abrupto territorio. Una vez recogido el dinero, se enviaba al Vaticano en paquetes, totalmente sellados, para garantizar su seguridad.

Después de ejercer el cargo durante cuatro años, enfermó gravemente, y falleció en 1716, a los 46 años.

Luis, antes de morir, dejó en su testamento el reconocimiento de dos hijos de madres distintas que había dejado en la Península Ibérica: uno llamado Miguel de Azula (nacido en 1696), y cuya madre posiblemente se llamaba Ana de Bastida; y el otro nominado como José Luis de Azula (nacido en Elgeta en diciembre de 1711), cuya madre se llamaba Juana Ignacia Iturriza y Murua, oriunda de Azkoitia. Se duda de si estos hijos fueron legítimos, o más bien fueron aceptados por él para poder transmitir la "Tesorería de la Santa Cruzada", que era hereditaria y perpetua.

Lo cierto es que, a su muerte, Miguel de Azula ejercerá la Tesorería por espacio de seis años, y fallecerá también prematuramente. La continuará, por deseo de Miguel, el otro denominado en el testamento hijo y hermano, José Luis de Azula, que la ejercerá durante siete años y medio hasta abandonarla para dedicarse al oficio de abogado y editor. Con posteridad otros descendientes siguieron ejerciendo este cargo hasta que en 1790 fue suprimido por una orden real de Carlos IV.

Merece mencionar que otros descendientes de Luis ocuparon cargos de importancia en Colombia, entre ellos su biznieto Luis Eduardo de Azuola (Azula), promotor de la independencia del país.[17]

[16] EUA / AME - Archivo Municipal de Elgeta/ Archivo Municipal de Elgeta- (Actas Municipales del 29-09-1710).
[17] Ver más información en Salamanca, Gloria Patricia: "Historia de los Azula en Colombia". Revista Antzina, nº 9 (junio 2010).

Hurrengo urtean, 1711an, eman zioten baita ere "Santiagoren Ordenako Zaldun" ohorezko titulua. Penintsula Iberikoan bizi izan zen bi urteko denbora-tartean Elgetako alkate arrunt izendatu zuten, legeak hala agintzen zuenez urtebeterako. Hautaketa hau ezohikoa izan zen, udal-ordenantzak ez baitzituzten bete. Izendapenaren agirian esaten da ezen "lehen aipatutako Don Luis hori, herrikide zaldun noble odolez garbi eta kapareen artean banatzen diren bake zein gerra garaiko ohorezko ofizioetan aritzeko arte eta gaitasun guztiez hornituta dagoenez komeni da Udalaren eta bere lurren ardura arrunta ematea, indarrean dagoen Konstituzioak aurreikusi eta agindutakotik salbuetsiko bada ere oraingo honetan".[16]

Udaleko aginte-aldi hau amaituta berriro jo zuen Nueva Granadara izendatu berri zen Diruzain kargu horretan aritzera. Bidaia luzea zen, arriskutsua eta neketsua. Cadizko portutik ateratzen ziren Cartagena de Indiasera iristeko, eta handik beste ontzi bat hartu eta Rio Grande de la Magdalena ibaian zehar nabigatuz Colombia zeharkatzen zuten. Gero Andetako mendilerroa igo beharra zegoen Bogotako Santafera iristeko. 1712 aldera ekin zion Diruzain langintzari, beste lankide batzuekin batera. Ez zuten eragozpenik falta izango; izan ere, ez zen zeregin erosoa elizarako zerga bat biltzea berez behartsuak ziren biztanleen artean, eta horrezaz gain, oso zabala eta malkartsua zen lurraldea saihestu beharra zegoen. Behin dirua bilduta, Vaticanora bidaltzen zuten guztiz zigilatutako fardeletan, horrela ziurtasuna bermatuz.

Karguan lau urtez aritu ondoren oso larri gaixotu, eta 1716an zendu zen 46 urte zituela.

Hil aurretik egindako bere testamentuan Penintsula Iberikoan utziak zituen ama banaren bi semeren aitortza egin zuen: bata Miguel de Azula izenekoa (1696an jaioa), zeinaren ama seguru asko Ana de Bastida deitzen zen; eta bestea, Jose Luis de Azula deitutakoa (Elgetan jaioa 1711an), zeinaren ama Juana Ignacia de Iturriza y Murua izenekoa zen, Azkoitin jaioa. Zalantzazkoa da bi seme hauek legitimoak izan ote ziren, edo nolabait onartuak "Gurutzada Santuaren Diruzaintza" eman ahal izateko, betirakoa eta herentzian ematekoa zenez.

Egia da, hura hilda, Miguel de Azulak Diruzaintza horretan jardun zuela sei urteko tartean, hau ere goiztiar zendu zelarik. Testamentuan aipatutako beste semeak, Jose Luisek, jarraituko du karguan, bere anaia Miguelek ere hala nahita. Zazpi urte eta erdiz aritu ondoren utzi egin zion abokatutzara eta editore lanetan jarduteko. Geroztik, hauen ondorengo batzuk aritu ziren kargu horretan, 1790ean Carlos IV.ak emandako errege-agindu batek ezabatu zuen arte.

Aipatzekoa da Luisen beste ondorengo batzuk kargu garrantzitsuetan aritu zirela Kolonbian, hala nola, Luis Eduardo de Azuola (Azula), herri horren independentziaren bultzatzailea. [17]

[16] EUA / AME - Elgetako Udal Artxiboa /Archivo Municipal de Elgeta- (Udal Aktak 1710-09-29).
[17] Ikus Salamanca, Gloria P.: "Historia de los Azula en Colombia". Revista Antzina, nº 9 (junio 2010).

8. JOSÉ IGNACIO RECALDE MALLEA

Relato de un mercader por tierra y mar, que con su fortuna fundó Obras Pías en beneficio de sus familiares y de la salvación de su alma.

José Ignacio de Recalde y Mallea nació en Elgeta en 1719 y murió, de viaje para Cádiz, en Cartagena de Indias (Colombia) en el año 1769.

Casó con Catalina Girar y no tuvieron descendencia.

Sus padres fueron: Marcos de Recalde Iriarte (hijo de Juanes de Recalde y María Andrés de Iriarte) y Magdalena de Mallea Sustraiza (natural de Elgeta e hija de Ignacio de Mallea Usabiaga y Ana de Sustraiza Egocheaga, casados en Azcoitia en 1671).

Al nacer José Ignacio sus padres residían en Elgeta, de donde era nativa la madre, y aquí fue bautizado. De joven emigró al Virreinado de Perú, pero no como militar, sino como buscador de fortuna. Allí desarrolló una intensa vida comercial por tierra y mar, llegando a disponer en propiedad de dos navíos de transporte.

Mapa de viajes comerciales / Merkataritza bidaien mapa

Fue un comerciante acaudalado, que revirtió parte de su fortuna en Obras Pías o Fundaciones Testamentarias, vinculadas al patrimonio eclesial, y de carácter piadoso-asistencial.

Estas Obras Pías eran una expresión de religiosidad, o instrumento en el más allá de la muerte, para acortar las penas del purgatorio con la acumulación de indulgencias eclesiales.

8. JOSE IGNACIO RECALDE MALLEA

Itsasoan eta lehorrean aritutako merkatari baten kontaketa, zeinek bere dirutzarekin sortu zuen "Obras Pias" ekintza bere familiartekoen mesederako eta bere animaren salbamendurako.

Jose Ignacio de Recalde y Mallea Elgetan sortu zen 1719an, eta Cartagena de Indiasen (Colombia) hil 1769an, Cadizera bidean zela.

Catalina de Girar esposatu zuen eta ez zuten ondorengorik eduki.

Haren gurasoak izan ziren: Marcos de Recalde Iriarte (Juanes de Recalde eta Maria Andres de Iriarteren semea) eta Magdalena de Mallea Sustraiza (Elgetan jaioa eta Ignacio de Mallea Usabiaga eta Ana de Sustraiza Egocheagaren alaba, Azkoitian ezkonduak 1671ean).

Jose Ignacio jaiotzean gurasoak Elgetan bizi ziren, amaren sorterrian, eta hemen bataiatu zuten. Gaztetan Peruko Erregeordetzara joan zen, baina ez militar moduan, aberastasunen bila baizik. Han itsasoan eta lehorrean garatutako merkataritzan sartu zen buru-belarri, eta garraioetarako bi itsasontziren jabe izatera heldu zen.

Ignacio Recalderen itsasontzia / *Navio de Ignacio Recalde*

Merkatari aberatsa izan zen eta bere ondasunen zati bat Errukizko Ekintzetara edo Testamentu-fundazioetara dedikatu zuen. Hauek errukizko sorospen jitea zuten eta elizaren ondarearekin zuten zerikusia.

Errukizko Ekintza hauek erlijiotasunaren adierazle ziren, edo hil ondoren purgatorioko oinazeak gutxitzeko baliabidea, elizak emandako induljentzia ugari metatzea ahalbideratzen baitzuten.

Pero estas Obras eran también, en el más acá, una estrategia familiar rentable hasta su desamortización en 1798, por decreto real de Carlos IV. En efecto, de una Fundación se seguían estas ventajas socio-económicas: los beneficiarios de tales obras solían ser familiares o allegados del fundador; al acudir a ellas se adquirían unas rentas fijas, que al ser consideradas bienes eclesiásticos, no estaban sometidas a carga fiscal; les facilitaba a los herederos vivir de los réditos, evitando otros trabajos penosos; y eran un medio de ostentar la nobleza del apellido o el prestigio social de la familia entre las personas beneficiadas o en el lugar de la donación.

Del testamento de José Ignacio, formalizado en la Ciudad de los Reyes (Lima) (19-11-1768), extraemos sus bienes y también sus legados u obras pías.[18]

En primer lugar nombra como legada universal a su esposa, Catalina Girar, por no tener descendencia, y le deja 30.000 pesos, todo el menaje de su casa, alhajas de oro y plata, perlas, diamantes y vestidos, y la mitad de las gananciales que le corresponden.

En segundo lugar declara sus bienes: un caudal en dinero (60.000 pesos), valor de alhajas y joyas (23.000 pesos), la propiedad de los navíos "Bentura" y "Aguila" (35.000 pesos). Era un capital total de 118.000 pesos de a ocho reales de plata (unos 85.800 ducados).

En tercer lugar lega sus Obras Pías, que serán arbitradas por el Cabildo eclesiástico de Elgeta y en algún caso por el propio Concejo, y que están así enumeradas:

- Fundación de dos capellanías (una en cada iglesia parroquial de Elgeta y Angiozar) (en total 12.000 pesos). Los clérigos beneficiarios elegidos para estas capellanías serán de preferencia para sus parientes hasta el cuarto grado.

- Celebración de misas en sufragio de su alma (6.000) (cada misa a 8 reales de vellón, es decir, unos 1.745 pesos). El lugar de celebración será en el santuario de Ntra. Sra. de Aranzazu (2.000) y en otros lugares según el parecer de los albaceas (4.000).

- Inversión en el "Camino Real de Coches", que se estaba construyendo desde 1764, a propuesta de las Juntas Generales de Gipuzkoa, bajo la dirección del maestro de obras Francisco de Ibero. El trazado del camino discurría, atravesando toda la provincia, desde Arlabán hasta Irún. De modo que enlazaba Gatzaga, Valle de Leniz, Alto Deba, Oñati, Zumarraga, Goierri, Hernani, Oiartzun e Irún, hasta el confín con Francia. En este proyecto manda invertir 13.000 pesos al 2% de renta y

[18] EUA / AME - Elgetako Udal Artxiboa /Archivo Municipal de Elgeta, legajo 46, documento 2.

Baina Ekintza hauek, hemengo lur honetan hil aurretik ere, familien estrategia errentagarria zen 1798an Carlos IV.aren errege-dekretu batek ezeztatu zuen arte. Izan ere, Fundazio baten bidez honako gizarte- eta ekonomia-abantailak etortzen ziren: ekintza haien onuradunak fundatzailearen senitartekoak edo hurbilekoak izaten ziren, haietara jotzean errenta finkoak eskuratzen zituzten, eta hauek elizaren ondasuntzat hartzen zirenez, ez zuten zergarik ordaindu behar. Horrela, oinordekoei ahalbideratzen zitzaien errentetatik bizitzera, lan neketsurik egin beharrik izan gabe, eta gainera bide ematen zuen abizenaren noblezia erakusteko, edo benefiziatuen aurrean edo dohaintza egindako herriko biztanleen aurrean familiaren ospea agertzeko modua.

Jose Ignaciok Ciudad de Los Reyesen (Lima) 1768ko azaroaren 19an egindako testamentutik jasotzen ditugu bere ondasunak eta, baita ere ondareak eta errukizko ekintzak.[18]

Lehenbizi, legatu bakar izendatzen du bere emazte Catalina de Girar, ondorengorik ez duelako, eta 30.000 peso uzten dizkio, etxeko arreo guztia, urrezko zein zilarrezko apaingarriak, perlak, diamanteak, jantziak eta irabazpidezko ondasunen erdia.

Bigarrenez, bere ondasunen aitortza egiten du: dirutakoa (60.000 peso), apaingarri eta bitxien balorea (23.000 peso), "Bentura" eta "Aguila" itsasontzien balioa (35.000 peso). Kapital guztia ziarrezko zortzi errealeko 118.000 peso (85.800 dukat) zen.

Hirugarrenez bere Errukizko Ekintzak oinordetzan uzten ditu, Elgetako elizako apaizen kabildoak eta kasuren batetan Udalak berak kudeatuko dituenak. Honakoak izendatzen ditu:

- Bi kapilautza sortzea Elgeta eta Angiozarko elizetan bana jartzeko, guztira 12.000 peso. Aukeratzen diren benefiziodun elizgizonen artean lehentasuna izango dute laugarren mailara arteko senitartekoek.

- Bere animaren aldeko mezak ematea (6.000) (meza bakoitza 8 adatsezko erreal, hau da, 1.745 peso inguru). Meza hauek Arantzazuko Santutegian emango dira (2.000), eta beste leku batzuetan testamentu-betearazleek hala erabakitzen badute. (4.000)

- Inbertsioak egitea "Kotxeentzako Errepidearen" eraikuntzan. Gipuzkoako Batzar Nagusiek sustatuta, Francisco de Iberoren lan-maisuaren gidaritzapean, 1764tik aurrera egiten ari ziren bide honek probintzia oso zeharkatzen zuen Arlabandik Iruneraino. Gauzak horrela, Gatzaga, Leintz bailara, Debagoiena, Oñati, Zumarraga, Goierri, Hernani, Oiartzun eta Irun elkartzen zituen, Frantziako mugaraino iristen zelarik. Agintzen du proiektu honetan 13.000 peso inbertitzea % 2ko errentarekin, urtero eman beharko

[18] EUA / AME - Elgetako Udal Artxiboa /Archivo Municipal de Elgeta, legajo 46, documento 2.

tributo anual hasta su redención. Dicho de otra manera, la Provincia de Gipuzkoa, responsable de la obra, pagaría a los legados testamentarios 260 pesos anuales durante 50 años.

- Ayudas para pósitos (depósitos) de trigo, maíz y demás granos a repartir entre los más pobres y necesitados de Elgeta (5.000 pesos), en consideración a la escasez y hambruna de la que el testador era sabedor en ese momento.

- Imposiciones para censos (1.000 pesos), con el aprovechamiento de los réditos según las necesidades más urgentes.

- Distribución de un dinero entre los parientes hasta el cuarto grado (4.000 pesos). Es curioso que esta manda obligó a un minucioso proceso genealógico entre sus parientes para demostrar el derecho a recibir la donación correspondiente.

- Dotes para el casamiento de mozas pobres, según sorteo regulado por el Cabildo (300 pesos a cada una).

- La construcción y fábrica de una lámpara fundida en plata para alumbrar ante el altar de la imagen de Ntra. Sra. del Rosario, venerada en la iglesia parroquial de Elgeta. La lámpara será de 200 marcos de plata de chafalonía (objetos inservibles de plata para fundir), y para el mantenimiento del aceite de la lámpara (1.000 pesos).

La fundación, fruto de sus réditos, se mantuvo activa durante más de sesenta años. Así en 1832 el Obispado de la diócesis autorizó la utilización de un capital remanente de estas ayudas de la Fundación Recalde para la traída de aguas a Elgeta y Angiozar. En agradecimiento el Concejo quedó obligado a una misa aniversario perpetuo en sufragio de este benefactor.

zioten hainbanako bat jarritako dirua guztiz eskuratu arte. Bestela esanda, Gipuzkoako Probintziak, obraren erantzule zenak, oinordekoei urteko 260 peso ordaindu beharko zien 50 urtetan.

- Gari, arto eta bestelako labore batzuk gordetzeko biltegiak eraikitzeko laguntza ematea. Labore hauek Elgetako txiro eta behartsuen artean banatu beharko ziren (5.000 peso), jakitun baitzen une hartan gosete eta gabezia larriak jasaten ari zirela.

- Zentsu edo hipoteketan diru-jartzeak egitea (1.000 peso), horien korrituak beharrizan premiazkoenetan erabiliko dira.

- Laugarren mailara arteko senitartekoei dirua banatzea (4.000 peso). Bitxi samarra da agindu honek senitartekoen artean izan zuen eragina; izan ere, ahaidetasuna frogatzeko makina bat izapidetze genealogiko ekarri zuen horrela laguntzak jasotzeko eskubidea agerian utzi nahirik.

- Neska txiroentzako ezkonsariak, apaizen kabildoak araututako zozketa baten bidez (300na peso bakoitzari).

- Elgetako eliza nagusian gurtzen den Errosarioko Andre Mariaren aldarearen aurrea argiztatuko zuen zilar galdatutako lanpara bat egitea. Lanpara hau dagoeneko erabiltezinak diren zilarrezko gauzak galdatuta egingo da eta 200 marko pisatuko ditu; lanpararako olioa iraunarazteko, berriz, 1.000 peso.

Egindako inbertsioen korrituei esker, Fundazioak bizirik iraun zuen hirurogei urte baino gehiago. Horiek horrela, elizbarrutiko gotzaintzak 1832an baimena eman zuen Recalde Fundazio honetan geratzen zen diru soberakina Elgeta eta Angiozarrera ura ekartzeko lanetan erabil zedin. Horren ordainez Udala behartuta geratu zen betidaniko urteurren-meza bat ateratzera ongile horren alde.

9. JUAN ANDRÉS LOMBIDE MEZQUÍA

Relato de un artista intérprete y compositor de órgano.

Juan Andrés de Lombide y Mezquía nació en Elgeta en 1745 y murió en Madrid en 1811.

Sus padres fueron: Andrés Lombide Uribe y Ana María Mezquía Heredia. Tuvieron tres hijos nacidos en Elgeta: Antonio Félix (1740), Miguel Ramón (1742) y Juan Andrés (1745) Lombide Mezquia.

Juan Andrés fue ordenado sacerdote en 1769 a los 24 años, y cinco años antes de su ordenación ya ejercía como organista en la parroquia de los Santos Juanes de Bilbao.



Catedral de Oviedo / Oviedoko katedrala

En 1765 logró este cargo en la antigua parroquia de Santiago de Bilbao, hoy convertida en catedral, y que en aquel momento era una parroquia principal dentro de la diócesis de Vitoria-Gasteiz.

Durante su permanencia en Bilbao desarrolló una intensa labor artística como ejecutante y compositor musical. A su vez, encontró un ambiente artístico e intelectual idóneo en la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, de la que era miembro. De modo que en 1772 presentó la composición de seis Sonatas para clave y violín al ingresar en la Sociedad y ser aceptado en calidad de "socio profesor". Al año siguiente volvió a presentar un libro o tratado pedagógico de música bajo el título "El arte del organista" (Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, Vitoria, 1773).

9. JUAN ANDRES LOMBIDE MEZQUIA

Artista organo jole eta konposatzaile bati buruzko kontaketa.

Juan Andres de Lombide y Mezquia Elgetan jaio zen 1745ean eta Madrilen hil 1811an.

Haren gurasoak izan ziren: Andres Lombide Uribe eta Ana Maria Mezquia Heredia. Elgetan jaio ziren hiru seme izan zituzten: Antonio Felix (1740), Migel Ramos (1742) eta Juan Andres (1745) Lombide Mezquia.

Abadetu egin zen 1769an 24 urte zituela. Ordenatu baino bost urte lehenago organo jole ari zen Bilboko Santos Juanes parrokian.

Organoa / *Órgano*

1765ean kargu hori hartu zuen Bilboko Santiago orduko eliza nagusian, gaur egungo katedrala bihurtu zenean. Garai hartan ere Gasteizko elizbarrutiko parrokia garrantzitsuenetarikoa zen.

Bilbon bizi izan zen bitartean lan artistiko bizia garatu zuen, bai jole moduan, baita konposatzaile gisa ere. Aldi berean giro artistiko eta intelektual bikaina aurkitu Real Sociedad Bascongada de los Amigos de Pais zeritzon elkartean, zeinen bazkide izan zen. Gauzak horrela, 1772an, Elkarte horretara sartzerakoan, non onartua izan zen "bazkide irakasle" gisa, aurkeztu zuen klabe eta bibolinerako sei Sonatak biltzen dituen konposizioa. Hurrengo urtean liburu berri bat aurkeztuko zuen: musika-tratatu pedagogiko bat zen "Organo jotzailearen artea" izenekoa. (Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pais, Gasteiz, 1773).

De su estancia en Bilbao tenemos una escritura reveladora de su sueldo y dedicación. En ella expone al Patronato de la Villa, responsable de su contrato, que, dada la gran variedad de trabajos a realizar, se le aumente el sueldo hasta llegar a 300 ducados. El Patronato le adjudica el sueldo solicitado, y en una nota del escrito aparece: "se le concede en consideración a la especial habilidad de organista y compositor, y además se le añade 40 ducados por el trabajo de afinación del órgano de la iglesia parroquial de Santiago y 10 ducados por igual afinación en el de San Nicolás, y ha de ser también a su cargo el pago del salario del Alza fuelles…"

Juan Andrés, de temperamento inquieto, perseveró en sus aspiraciones por promocionarse como organista en plazas de mayor relevancia. Se conocen estas oposiciones sin éxito: a la Real Capilla de Madrid (1768), quedando en un tercer puesto; a la catedral de Calahorra (1771), ocupando un cuarto lugar; y a la catedral de Toledo.

En 1778, esta vez con éxito, se presentó a la Prebenda de la Catedral de Oviedo. en la que concursaban cinco prestigiosos organistas. El Cabildo de la catedral, celebradas las oposiciones y con el visto bueno del tribunal, nombró a Juan Andrés para ocupar la Prebenda de Organista Titular. En esta selección fueron necesarias varias votaciones por la calidad de los concursantes. En esta Catedral permanecerá por espacio de ocho años como maestro organista. Su labor iba dirigida a la interpretación, bien como solista o acompañante de la Capilla en sus múltiples intervenciones durante el culto, que llenaba prácticamente las mañanas y gran parte de las tardes del año, y también se ocupaba en la formación musical de los niños de coro.

Debió de ser una persona de carácter, como lo demuestran las desavenencias que mantuvo con el maestro de capilla de aquella Catedral, y en las que el Cabildo en 1782 se vio obligado a mediar entre ambos.

En 1786 se trasladó a Madrid para opositar al puesto codiciado de organista del Real Monasterio de la Encarnación, un convento de monjas agustinas recoletas, al que pertenecieron damas de alta nobleza, y cuyo monasterio favorecieron los reyes.

Conseguido el cargo, desde entonces fijó su residencia en la capital. Ingresó en la Congregación de Nuestra Señora de la Soledad, a la que pertenecía el entorno del monasterio. Fue nombrado tesorero de la misma en 1799, detalle que revela su plena integración en el medio en el que se desenvolvió durante los últimos años de su vida. De sus obras, aunque perdidas en su mayoría, se conservan algunas composiciones sacras y partituras editadas (Donostia, 1976) y otras catalogadas en el Archivo Vasco de la Música en Rentería (Eresbil).[19]

[19] Ver más información en González, A: "Don Juan Lombide y Mezquía, distinguido organista que fue de la catedral de Oviedo". Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País (RSBAP), 3-4 (1981), págs. 630-634.

Bilbon egin zuen ibilaldiaren inguruan badaukagu idazki bat non ageri diren bere soldata eta dedikazioa. Idazki horretan adierazten dio Udalerriko Patronatuari, bere kontratuaren arduradunari, egin beharreko zeregin ugari zela eta, soldata 300 dukateraino igotzea eskatzen du. Patronatuak onartu egiten du eskatutakoa, eta idazkiaren ohar batean honakoa ageri da: "ematen zaio organo jotzaile eta konposatzaile moduan duen trebezia bereziarengatik, eta 40 dukat gehitzen zaio Santiagoko eliza nagusiko organoa tonuan jartzeagatik, eta beste 10 dukat San Nicolasen egiten duen afinazioagatik, eta gainera bera gain hartu behar duelako hauspo eragilearen soldata…"

Juan Andres, ipurterre samarra, temati saiatu zen izen eta garrantzi handiagoko organo jole-plazetara lehiatzen. Ezagunak dira arrakastarik gabe amaitu ziren oposizio hauek: 1768an Madrileko Kapera Errealera, non hirugarren geratu zen; Calahorrako katedralera (1771), laugarren geratu zen; eta Toledoko katedralera.

1778an, orain arrakastatsu, Oviedoko Katedraleko Prebendara aurkeztu zen beste lau lehiakiderekin batera, denak ere izen handiko organo joleak. Katedraleko kabildoak, behin oposizioak bukatuta, eta Epai Mahaiaren onarpenarekin, Juan Andres izendatu zuen Organo Jotzaile titular izateko prebendarako. Lehiakide guztien bikaintasuna aintzat hartuta, hainbat bozketa izan ziren beharrezkoak. Katedral honetan egongo da zortzi urtez organo jole maisu gisa. Bere lana organoa jotzera zegoen bideratuta, bai bakarlari moduan, baita Kaperaren laguntzaile gisa ere hain ugariak ziren elizkizunetan. Zeregin hauek betetzeak urte osoko ia goiz guztiak eta arratsaldeko zati bat eskatzen zioten, eta horretaz gain koruko mutikoen musika-heziketaz ere arduratu beharra zeukan.

Dirudienez izaera bizikoa izan zen, katedral hartako kapera maisuarekin eduki zituen tirabirek erakusten dutenez. Halatsu, non 1782an kabildoak parte hartu behar izan zuen bien arteko bakeak egiteko.

1786an Madrilera joan zen Real Monasterio de la Encarnacion izeneko Agustindar errekoletoen komentuko organo jole plaza gutiziatua erdietsi nahian. Komentu honetara biltzen ziren goi mailako nobleziako damak, eta erregeen fabore ugari jasotzen zituen monastegiak.

Kargua lortuta, hiriburua hartu zuen bizileku. Bakardadeko Andre Mariaren Kongregazioan sartu zen, monasterioaren inguruan zebiltzan gehienak bezalatsu. Bertako diruzain izendatu zuten 1799an, eta horrek erakusten du zenbateraino moldatu zen bere azken urteetan bizi izan zen gizarte haren ohituretara. Berak egindako lanetatik, gehienak galduak, gordetzen dira oraindik zenbait erlijio-konposizio eta argitaratutako partitura (Donostia, 1976), eta beste zenbait Errenteriako Euskal Musikaren Artxibategian (Eresbil).[19]

[19] Ikus González, A: "Don Juan Lombide y Mezquía, distinguido organista que fue de la catedral de Oviedo". Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País (RSBAP), 3-4 (1981), págs. 630-634

10. JOAQUÍN ITURBE ARREGUI "SANTUA"

Relato de un elgetarra que ejerció varios oficios y en sus últimos años pasó a la historia como bandolero.

Joaquín Iturbe Arregui nació en Elgeta el año 1752, y la última referencia es del año 1800, recluído en la cárcel.

Sus padres fueron José Iturbe (Vicayn) Apellaniz (Elgeta, 1707) y Ángela Arregui Portal, casados en Elgeta en 1737.

Tuvieron diez hijos/as, los siete primeros nacidos en Elgeta y los tres últimos en Ermua: José (1739), Isabel (1740), Juan (1743), Santiago (1745), María Manuela (1747), Gertudris (1750), Joaquín (1752), Tomasa (1754), José Apolinar (1758), José Dionisio (1760) Iturbe Arregui.
Joaquín casó con María Ana Arregui Eguren el año 1771 en Durana (Arratzua- Ubarrundia en Araba), y tuvieron una hija: Mª Josefa Iturbe Arregui (Elgeta, 1772).

Por los datos anteriores, extraídos de los registros sacramentales, podemos seguir los inicios de su trayectoria de vida. Al poco de nacer Joaquín, sus padres se trasladaron de Elgeta a Ermua, en donde nacerán sus otros tres hijos menores. En Ermua, ya joven, ejerció durante algún tiempo de carnicero, no sabemos si como empleado o como parte de un negocio familiar. Con 19 años se casó con María Ana Arregui, que era oriunda de Durana (Araba), y al año siguiente tuvieron una hija, bautizada en Elgeta. Esto nos hace suponer que al menos en ese primer año estaban establecidos en la villa.

Por otra parte tenemos otros datos, extraídos de los juicios incoados contra él. De ellos se deduce que al poco tiempo de contraer matrimonio abandonó la vivienda familiar. Sirvió por espacio de nueve años en el Regimiento de Caballería español de Alejandro Farnesio, donde fue destinado –se dice textualmente- por "vago y mal entretenido". Después se alistó como corsario en una flota de dos cañoneras francesas de Lapurdi. Su navío, tripulado por treinta y seis hombres, es apresado por los ingleses y todos ellos son encerrados en una cárcel de Lisboa durante año y medio.

A Joaquín se le conoce por ser un famoso bandolero. Con esa denominación de "bandolero" se suele englobar a salteadores de caminos, forajidos y delincuentes. El bandolerismo era un fenómeno habitual más de la sociedad tradicional con sus contradicciones, sobre todo en épocas de pobreza e inestabilidad. Para muchos bandoleros fue la estrategia para asegurar su supervivencia, y no necesariamente por ser despiadados y descontrolados. Sus actividades delictivas no solían ser tanto para evitar la caída en la pobreza, sino más bien una escapatoria, una vez que habían llegado a ella.

10. JOAQUIN ITURBE ARREGUI "SANTUA"

Hainbat ofiziotan aritu ondoren bere azken urteetan gaizkile izateagatik historiara pasa zen elgetar baten bizitzaren kontakizuna.

Joaquin Iturbe Arregui Elgetan jaio zen 1752 urtean, eta bere azken berria 1800 urtekoa da, kartzelaratua zegoela.

Bere aita-amak Jose Iturbe (Vicayn) Apellaniz (Elgeta, 1707), eta Angela Arregui Portal izan ziren, Elgetan ezkonduak 1737an.

Hamar seme-alaba eduki zituzten zazpi Elgetan eta hiru txikienak Ermuan: Jose (1739), Isabel (1740), Juan (1743), Santiago (1745), Maria Manuela (1747), Gertrudis (1750), Joakin (1752), Tomasa (1754), Jose Apolinar (1758), eta Jose Dionisio (1760) Iturbe Arregi.
Joaquin Maria Ana Arregui Egurenekin ezkondu zen 1771ean Duranan (Arratzua-Ubarrundia, Araba) eta alaba bat izan zuten: Maria Josefa Iturbe Arregui (Elgeta, 1772).

Sakramentu-erregistroetan jasotako datuetan oinarrituta jakin dezakegu haren bizitzako lehen urteetako ibilbidea. Joaquin sortu eta berehala gurasoak Ermura joan ziren bizitzera, non jaioko ziren haren azken hiru neba-arrebak. Ermuan, gaztetan, harakin aritu zen aldi batez; ez dakigu, baina, inoren kontuko enplegatu moduan, ala familiaren negozioaren partaide gisa. 19 urte zituela Arabako Durana herrian jaioa zen Maria Ana Arreguirekin ezkondu zen, eta hurrengo urtean alaba bat izango dute, Elgetan bataiatua. Honek erakusten digu seguru asko lehen urte horretan Elgetan zutela bizilekua.

Beste alde batetik, bestelako datuak ere baditugu, haren aurka irekitako epaiketetatik ateratakoak. Horietatik ondorioztatu daiteke ezkondu eta denbora gutxira familiaren etxebizitzatik alde egin zuela. Soldadu moduan aritu zen bederatzi urtez Alejandro Farnesioren espainiar Zalduneriako Erregimentuan; nora bidali zuten, hitzez hitz esanda, "alferra eta gaizki zaindua izateagatik". Geroago kortsario edo pirata izateko eman zuen izena Lapurdiko bi kanoiontzi frantsesetan. Haren itsasontzia, hogeita hamasei gizoneko eskifaia zuena, ingelesek harrapatu zuten eta denak Lisboako presondegi baten eduki zituzten urte eta erdiz.

Joaquin ezaguna da gaizkile famatua izateagatik. "Gaizkile" izendapen horrek bere baitan biltzen ditu bidelapur, iheslari eta bestelako delitugileen esanahiak. Gaizkiletza, kontraesan guztiak gorabehera, oso ohiko gertakaria zen gizarte tradizionalean, batik-bat gabezia- eta ezegonkortasun-garaietan. Bidelapur askorentzako bere biziraupena bermatzeko baliabidea zen, ez berez krudel edo ankerrak zirelako. Haien delituzko ekintzak ez ziren izaten txirotasunean jaustea saihesteko; baizik eta, nagusiki, jada eroriak ziren pobreziatik ihes egiteko bide bat.

Atraco en el camino / Lapurreta bidean

La época de Joaquín, a finales del siglo XVIII, coincide con lo que las autoridades de Gipuzkoa califican como el mayor mal de la provincia y que se debe perseguir en cada municipio, nombrando comisionados asalariados. En esos edictos la primera y simple razón de la existencia de este mal era la vagancia u ociosidad, encarnada en vagabundos, mendigos o gitanos, es decir, todos los itinerantes libres o sin estancia fija.

Los castigos más comunes para estos declarados malhechores, como aparecen en las sentencias judiciales, van desde la multa y el destierro con trabajos forzados (galeras, presidios militares en la península o las colonias) hasta la pena de muerte. Las cárceles, descritas como de extrema miseria, no son tanto un castigo permanente, cuanto un lugar para asegurar por un tiempo las investigaciones.

Por esos años en las comarcas del Alto y Bajo Deba, donde se movilizan preferentemente Joaquín y su cuadrilla, hay testimonios de que existía una notable inseguridad. Esta situación puede explicarse por diversas coyunturas. La Guerra de la Convención (1793-1795) dejó una sociedad empobrecida, inundada de soldados, y el aprendizaje de delinquir por los desertores o licenciados del ejército. Además, se había construido el "Camino Real de Coches", favoreciendo la movilidad, que discurría por este territorio entre dos zonas fronterizas, atractivas para el robo y el asalto. Existían santuarios o ermitas, al igual que ventas, posadas y cuevas, que ofrecían refugio y lugar para esconderse. A ello se añadía que muchos de ellos eran naturales del territorio, y por tanto conocedores del asentamiento geográfico de la zona con sus márgenes y alturas para ejecutar sus actuaciones.

Joaquín Iturbe tenía el apelativo de "Santua" (Joaquín Santua). Así era conocido entre los bandoleros de Gipuzkoa, porque no quería herir ni matar a nadie. Según la leyenda llevaba siempre trabuco o escopeta, pero tenían el cañón curvado por la punta.

Atendiendo a los testimonios judiciales, Joaquín es descrito como un auténtico bandolero, astuto y fachendoso. Se relata que quebrantó prisiones, atracó a viandantes, urdió sagaces coartadas, alardeó de tener en jaque a sus perseguidores.

Santuaren irudia / *Imagen de Santua*

Joaquinen garaia, XVIII. mendearen amaiera, bat dator Gipuzkoako agintariek probintziako gaitzik okerrentzat jo izan zutenarekin. Gaizkiletza horri udalerri bakoitzak jazarri beharko zion horretarako soldatapeko mandatariak izendatuz. Ediktu horien arabera gaitz hori agertu izanaren arrazoi bakarra nagikeria edo alferkeria ziren, etxe jakinik izan gabe noraezean ibiltzen ziren arlote, eskeko eta ijitoek eragindakoa.

Gaizkiletzat jotakoentzako zigorrik usuenak, auzitegietako ebazpenetan agertzen denez, isunetatik hasi eta behartutako lanak egiteko desterrura (galeretara, penintsulako edo kolonietako presondegi militarretara) bidaltzea zegoen, edo kasurik okerrenean heriotze-zigorrera. Kartzelak, miseria gorrikotzat azaltzen direnak, ez ziren horrenbeste zigor iraunkorra betearaztekoak, baizik eta ikerketak burutzeko behar zen denbora hartzea bermatzera bideratutakoak.

Urte horietan Debagoiena eta Debabarrena eskualdeetan, Joakin eta bere mutilak nagusiki ibiltzen zirenekoak, frogatuta dago segurtasun-gabezia handia zegoela. Hori horrela gertatzeko eragile ugari dira kontuan hartu beharrekoak. Alde batetik, Konbentzio-gerrak (1793-1795) gizateria txirotuta utzi zuen, soldaduz josia, eta gaizkiletzara ohituta zeuden ejerzituko desertore eta lizentziatuak nonahi. Bestalde, "Kotxeentzako Errepidea" irekia zegoenez, horrela bi mugen artean zegoen lurraldean joan-etorriak erraztuz, leku egokia zen lapurretak egiteko. Horrez gainera, lurralde osoa josita zegoen haitzuloz, ermitaz, santutegiz, bentaz eta bestelako ostatuz, non oso erraza zen gordelekua aurkitzea. Horri gehitu behar zitzaion, gaizkile gehienak inguruan sortuak zirela, eta beraz oso ondo ezagutzen zituztenak lurraldearen gorabehera guztiak bere ekintzak burutzeko.

Joaquin Iturbek "Santua" ezizena zuen (Joakin Santua). Horrela ezagutzen zuten Gipuzkoako bidelapurrek, ez zuelako inor zauritu edo hil nahi. Kondairak dioenez, beti trabuko edo eskopeta eramaten omen zuen aldean, baina kanoiaren punta nolabait biratua omen zeukaten.

Epaitegietako testigantzek diotenez Joaquin gaizkile hutsa zen, maltzurra eta amarrutsua. Esaten da kartzeletatik ihes egin zuela, ibiltariei lapurretak egin zizkiela, legea hautsi nahian trikimailuetan jarduten zuela eta harro zela jazarleak kezkatuta edukitzeagatik.

En una de las requisitorias se le describe como "de cuerpo de mediana altura, bastante gordo y bien dispuesto", y que iba vestido de "chupa de paño azul ajado, calzón de paño negro, zapatos, medias de lana azul y blanca, botines de cuero, sombrero, una red negra vieja en la cabeza y botones de plata en la zamarra".

Parece que en los juicios sorprendía su dialéctica y sutileza jurídica, y se conocen dos cartas al Corregidor de Gipuzkoa en castellano con correcta caligrafía y no tan buena sintaxis, lo cual sorprende en una población en la que la mayoría de las declaraciones en un juicio aparecían con un "no sabe firmar".

Desde 1796 a 1799, por los procesos incoados contra él, se conocen varias fechorías, y siempre como jefe de una cuadrilla con frecuencia renovada. En julio de 1796 asaltó el caserío Pagaegui de Eibar al frente de una partida de diez hombres armados y enmascarados. En aquella ocasión el botín fue de 600 ducados de dinero y 400 de utensilios y otros objetos. A los tres días asaltó a un mulero navarro a la altura de Astigarribia (entre Deba y Mutriku) y la víctima logró huir.

En enero de 1797 asaltó a una mujer en el alto de Salinas, y en marzo de 1798 a otro hombre en las inmediaciones del Santuario de Urkiola. Al mes siguiente robó al carnicero de Eskoriatza una yegua con su silla y aparejos, una capa y un doblón de a ocho; y cinco días más tarde en el puerto de Saldropo, paraje de Otzarte (Gorbea), robó a un jinete, acompañado de su criado, el dinero, el reloj y un par de hebillas de plata.

Fue detenido en cuatro ocasiones, y mostró su capacidad para evadirse en tres de ellas. Dos de ellas en la cárcel de Mutriku, en una rompiendo el cepo que trababa sus piernas, y en la otra haciendo un agujero en su celda. La tercera evasión fue de la prisión de Tolosa, emborrachando a los guardianes con aguardiente, y se descolgó luego con una cuerda desde su celda al exterior. Fue también huésped de las cárceles de Bilbao.

El último asalto fue en septiembre de 1799 en una casa del barrio Areitio de Mallabia y en aquella ocasión fue detenido e internado en el Castillo de la Mota (monte Urgull de Donostia), que era la cárcel provincial considerada más dura y segura. Con anterioridad por otros robos y el primer quebrantamiento de prisión se le impuso diez años de presidio cerrado en Filipinas, y se desconoce el motivo por el que no llegó a cumplir dicha pena.

En el último juicio conocido el fiscal Antonio Javier Ajarrista en el escrito al Juez se expresaba así: "Este reo es un Jefe muy ejercitado en semejantes robos, salteamientos y violencias, dispuesto y armado para quitar la vida a cualquiera que se hubiese opuesto a sus malvados designios. Por tanto corresponde y suplico a vuestra merced se sirva condenarle a la pena del último suplicio". Al final no consta que fuera ejecutado. [20]

[20] Ver más información en Arocena, Fausto: "Joaquín de Iturbe, Santua, salteador de caminos". Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, año 16, cuaderno 3 (1960), pgs. 303-307.

Errekisitoria batean honela deskribatzen dute: "altuera ertaineko gorputzekoa, gizen samarra eta itxura onekoa", eta honela jantzia: "ehunezko jaka urdin maiztua, oihalezko galtzamotz beltzak, zapatak, artilezko galtzerdi urdin eta zuriak, larruzko bortzegiak, kapelua, sare beltz zaharra buruan eta zilarrezko botoiak txamarran".

Badirudi epaiketetan aho bete hortzekin uzten zituela ingurukoak bere dialektika eta legegaietan erakusten zuen zorroztasunarekin. Ezagunak dira Gipuzkoako korregidoreari bidalitako bi gutun gaztelaniaz idatzitakoak non kaligrafia zaindua erakusten duen, eta sintaxi ez hain ona, hala ere. Hau guztia harrigarri samarra gertatzen da zein eta epai batean adierazpenak egitean orduko biztanleria gehienaz esaten den "ez daki sinatzen".

1796tik 1799 urtera, bere aurka irekitako prozeduretan jasota dago, zenbait gaiztakeria egin izana eta beti taldeburu agertzen da, taldeko kideak aldatzen baziren ere. 1796ko uztailean Eibarko Pagaegi baserrian lapurreta egin zuten hamar gizon armatu eta maskaratutako talde baten buru zela. Orduko hartan atzemandako altxorra diruzko 600 dukatekoa izan zen, eta beste 400 ohostutako lanabes eta gauzetan. Handik hiru egunetara mandazain nafar bat erasotu zuen Astigarrabian, Deba eta Mutriku tartean, non ihes egitea lortu zuen nozituak.

1797ko urtarrilean emakume bat erasotu zuen Gatzagako gainean, eta 1798ko martxoan beste gizakume bat Urkiolako santutegiaren inguruan. Hurrengo hilean Eskoriatzako harakinari behor bat ohostu zion bere jarleku, uhal eta guzti, baita kapa eta zortziko dobloi bat ere. Bost egun geroago, Saldropoko mendatean, Gorbeia inguruko Otzarteko parajean, bere morroiaz lagunduta zihoan zaldun bati ebatsi zion dirua, erlojua eta zilarrezko belarri pare bat.

Lau bidar atxilotu zuten, baina hirutan gauza izan zen ihes egiteko. Horietako bi aldiz Mutrikuko espetxetik, behin zangoak lotzen zizkion harrapagailua apurtuta eta hurrengoan bere ziegatik zuloa eginez. Hirugarren ihesaldia Tolosako kartzelatik izan zen, non zaintzaileak pattarrez mozkortu ondoren, soka batetik zintzilikatuta horman behera eginez. Bilboko espetxeak ere ezagutu zituen.

Bere azken erasoaldia 1799ko irailean egin zuen Mallabiako Areitio auzoan, aldi hartan atxilo hartu eta Donostiako Urgull mendiko Motako Gazteluan sartu zuten, Gipuzkoako presondegirik gogor eta seguruentzat jotzen zutenean. Egindako lapurreta batzuk eta zigorra hausteak zirela eta, lehenago ere kondenatua izan Filipinetan bete beharreko kartzela-zigor itxira; ez dakiguna, ordea, da zergatik ez zuen bete ezarritako zigorra.

Ezaguna den azken epaiketan Antonio Javier Ajarrista fiskalak epaileri zuzendutako idatzian honela zioen: "erruztatu hau lapurretetan, iruzurretan eta bestelako bortxakerietan trebatutako buruzagi bat da, eta armatuta dabil, bere asmo zitalei aurre egingo zien edonori bizia kentzeko prest. Horregatik guztiagatik zilegi da eta hala eskatzen diot berorri zigortu dezala azken sufrimendura". Ez dago inon jasota, hala ere, exekutatua izan zenik.[20]

[20] Ikus Arocena, Fausto: "Joaquín de Iturbe, Santua, salteador de caminos". Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, año 16, cuaderno 3 (1960), pgs. 303-307.

11. PEDRO ANTONIO OLAÑETA MARQUIEGUI

Relato de un emigrante que se hizo rico con el comercio, que terminó siendo militar y general, y que se declaró rebelde en sus últimos días.

Pedro Antonio de Olañeta y Marquiegui nació en Elgeta (1774) y murió en Tumusla (provincia de Charcas en Bolivia) el año 1825.
Sus padres fueron: Pedro Joaquín de Olañeta Obiaga y Úrsula de Marquiegui Sostoa, casados en Elgeta el año 1771. Su padre procedía de la casa-solar de Olañeta (barrio de Ubera).
Tuvieron tres hijos en Elgeta: Pedro Antonio, Pedro Francisco, Gaspar Antonio Olañeta Marquiegui.
(Ver genealogía Anexo VI).

Hacia 1785 emigró con sus padres y hermanos a América, seguramente llamados y acogidos por otros familiares asentados allí con anterioridad. Con el tiempo fijó su residencia en la zona de Potosí y Salta, dedicándose al comercio. Alcanzó una gran fortuna con sus actividades mercantiles, sobre todo entre los Virreinatos del Perú y del Río de la Plata, y la posesión de una extensa hacienda de campo, destinada a la ganadería y agricultura. Dada su condición de comerciante fue denominado "el contrabandista" por sus posteriores adversarios.

Mapa del Alto Perú / Garaiko Alto Peru mapa

11. PEDRO ANTONIO OLAÑETA MARQUIEGUI

Atzerrira joan eta merkataritzan aberastutako emigratzaile baten kontaera, zeina azkenean militar eta general izanda, matxinatu egin zen bere azken egunetan.

Pedro Antonio de Olañeta y Marquiegui Elgetan jaio zen 1774an, eta Tumuslan Boliviako Charcas probintzian hil 1825ean
Haren aita-amak honakoak izen ziren: Pedro Joaquin Olañeta Obiaga eta Ursula Marquiegi Sostoa, Elgetan ezkonduak 1771an. Aita Ubera auzoko Olañeta oinetxeko ondorengoa zen. Hiru seme eduki zituzten Elgetan: Pedro Antonio, Pedro Francisco, eta Gaspar Antonio Olañeta Marquiegui.
(Ikus VI. eranskineko genealogia)

1785 inguruan Ameriketara emigratu zuen bere guraso eta anaiekin batera, seguru asko lehendik han bizi ziren senitartekoek deitu eta babestuta. Denbora bat pasata Potosi eta Salta inguruetan finkatu zen merkataritzan jarduten zuela. Dirutza handiak egin zituen batez ere Peruko eta Rio de la Platako Erregeordetzen artean gauzatutako salerosketako tratuen bidez, eta nekazaritzara eta abeltzaintzara emandako etxalde handi baten jabe eginez. Bere merkatari izaeran oinarrituta "kontrabandistatzat" hartuko zuten geroago izango zituen aurkariek.

Olañetaren irudia / *Imagen de Olañeta*

Situados sobre 1810 en la América de Pedro Antonio ya terrateniente y con la revolución independentista de mayo en marcha, la situación política era muy compleja.

Por una parte el Imperio Español estaba librando en la Península Ibérica la guerra de la Independencia contra los franceses y existía un antagonismo permanente entre los absolutistas (o realistas), que pretendían restaurar el antiguo régimen bajo un monarca absoluto, y los liberales (o constitucionalistas), que defendían los derechos soberanos de la ciudadanía, por encima del monarca. Estos liberales logran instaurar la Constitución de Cádiz de 1812, basada en la división de poderes, por leyes uniformes y modernas, por la igualdad civil y por la reducción de privilegios corporativos.

Mientras esto ocurría en la Península, se estaba librando con éxito en la América colonial la guerra de la Independencia. Este fenómeno de emancipación se desarrollaba a escala continental, y los ejércitos de uno y otro bando eran una mezcla de grupos sociales: en una mitad de criollos (personas de estirpe española pero nacidos en América), y en la otra mitad un porcentaje semejante de mestizos e indígenas (estos últimos en su mayoría esclavos que combatieron en las milicias españolas).

En este contexto bélico nuestro elgetarra, bien por defender sus intereses económicos, bien por sus propios ideales absolutistas, se alistó en los cuerpos de las milicias del ejército español. Pronto destacó como comandante en las campañas contra las incursiones de los independentistas argentinos contra el Alto Perú. Más tarde ascendió a coronel y después a general de brigada.

El Alto Perú, en el que se movió principalmente, era la denominación de las provincias altas del Perú (Paz, Cochabamba, Potosí, Chuquisaca), y es parte del actual altiplano de Bolivia. Este territorio estuvo primero bajo la jurisdicción del Virreinato del Perú (con sede en Lima), y posteriormente dependió del Virreinato del Río de Plata (con sede en Buenos Aires).

En 1821 Olañeta aceptó el mando militar del Virreinato del Perú y participó activamente en las campañas realistas de 1823.

Olañeta, como absolutista convencido, detestaba la Constitución Liberal de 1812, y al saber su abolición por Fernando VII (01-10-1823), terminó por enfrentarse a la tendencia liberal de José de la Serna, Virrey del Perú. Se sublevó contra su autoridad como jefe militar del Alto Perú y se autoproclamó "único defensor del altar y del trono", declarándola zona autonómica. Esto ocurría en enero de 1824. En esta rebelión fue decisiva la influencia de su sobrino criollo Casimiro Olañeta, hijo de su hermano Gaspar, que era su secretario y jurista con ideas liberales encubiertas, y que será más tarde un político determinante en la constitución de la independencia de Bolivia.

Dagoeneko 1810ean kokatu behar gara, Pedro Antonio lursail handien jabe da, hasia da maiatzeko iraultza, independentzia lortu nahi duena, zalantzarik gabe egoera politikoa oso konplexua da.

Alde batetik, Espainiar Inperioa Penintsula Iberikoan frantsesen aurkako Independentzia Gerran sartuta dabil buru belarri. Eta aurkakotasun iraunkor bat zegoen absolutisten (edo erregezale) eta liberalen (edo konstituzio-zale) artean; lehenengoak errege absolutu baten menpeko antzinako erregimenaren aldekoak ziren; bigarrenak, ostera, erregearen aurrean lehentasuna izango zuen herritar burujabeen eskubideen alde zeuden. Liberal hauek 1812an Cadizko Konstituzioa ezartzea lortu zuten, botere-banaketan oinarritutakoa, lege berdin eta modernoen bidez herritarren arteko berdintasuna sustatu eta handi-mandien erregalien gutxitzearen aldekoak.

Penintsulan hau gertatzen zen bitartean, kolonietako Ameriketan Independentzia-gerra zihoan aurrera arrakastatsu. Emantzipazioaren aldeko fenomeno hau kontinente haren mugen barruan gauzatzen zen eta alderdi bateko zein besteko ejerzituak gizarte-talde desberdinen nahasketa batez osatuta zeuden: erdi bat inguru kreolak (espainiar jatorrikoak, baina Amerikan jaioak), eta beste erdia mestizoak eta indigenak (azken hauek Espainiako milizietan borrokatutako mirabeak).

Testuinguru honetan gure elgetarra, dela bere ekonomia-interesak defendatzeagatik, edo dela berezkoak zituen ideia absolutistengatik, espainiar gudarosteen milizietan sartu zen. Peru Garaian independentzia-zale argentinarren erasoaldien aurkako kanpainetan nabarmendu zen gure komandantea. Geroago Koronelera igoko zena eta azkenik Brigada-Jeneralera.

Peru Garaia, gure pertsonaia gehien batean aritu zen lurraldea, Peruko goialdeko probintziei ematen zitzaien izena da (Paz, Cochabamba, Potosí, Chuquisaca), gaur egun Boliviako goi-ordokiko parte direnak. Lurralde hau hasiera baten Peruko Erregeordetzaren (Liman zuen egoitza) eskumenaren pean egon zen, eta geroago jarri zen Rio de la Platako Erregeordetzaren menpe (Buenos Airesen zuen egoitza).

1821an Olañetak Peruko Erregeordetzako aginte militarra onartu zuen, eta biziki parte hartu zuen errege-zaleen 1823ko kanpainetan.

Olañetak, bete-beteko absolutista izaki, gorrotatu egiten zuen 1812ko Konstituzio Liberala, eta jakin zuenean Fernando VII.ak indargabetu egin zuela (1823-10-01), aurre egin zion Peruko Erregeorde Jose de la Sernari, liberalen aldeko joera zuenari. Peru Garaiko militar buruzagia zenez, haren agintearen aurka altxatu zen, eta bere burua aldarrikatu zuen “aldarearen eta tronuaren defendatzaile bakar”, lurralde hori autonomo izendatu zuelarik. Hau 1824ko urtarrilean gertatu zen. Matxinada honetan erabakigarria izan zen bere iloba Casimiro Olañetaren, Gaspar anaiaren seme kreolaren eragina. Iloba hau, Pedro Antonioren idazkaria eta legelaria izan zena, isilpeko ideia liberalak zituena, geroago politika-gizon ospetsu eta erabakigarria izango zen Boliviako independentzia eraiki zenean.

El Virrey del Perú envió un gran contingente militar para aplastar la rebelión, al mando del general Jerónimo Valdés. Ambos bandos realistas (o al servicio del rey) se combatieron arduamente durante un tiempo, pero sin ningún resultado.

Esta división española de las dos tendencias, con dos ejércitos enfrentados, propiciará a su vez el avance del ejército patriótico americano. En realidad nos encontramos con tres ejércitos en lucha: los liberales españoles del Virreinato de José de la Serna, los absolutistas españoles liderados por Pedro Olañeta, y los sublevados patriotas iberoamericanos a la cabeza por un frente con Simón Bolívar y Sucre, su lugarteniente, y por otro frente con José San Martín.

El poder de los españoles liberales de Serna se terminó con la batalla de Junín y la decisiva y última de Ayacucho (02-12-1824). Esta batalla, con su capitulación militar, puso fin al Virreinato del Perú.

En esta situación las fuerzas absolutistas lideradas por Olañeta se concentraron en Potosí en un intento desesperado por resistir, pero tuvo que abandonarlo ante el avance de los patriotas independentistas. Estos tomaron posiciones en el río Tumusla (Potosí), y el 1 de abril de 1825 unos mil setecientos soldados de Olañeta les atacaron. La batalla fue dura y prolongada, y, al ser herido Olañeta, sus soldados se dispersaron. Olañeta falleció al día siguiente. Fue este el último combate para poner fin al dominio español y proceder a la independencia de Bolivia.

En la Península Ibérica, el rey Fernando VII ante el desastre de Ayacucho, procedió el 12 de julio de 1825 al nombramiento de Olañeta, su fiel absolutista, como virrey del Río de la Plata, pero el rey no sabía que ya había muerto tres meses antes.[21]

[21] Ver Cortés, M. J.: "Ensayo sobre la historia de Bolivia". Imprenta Breeche de Sucre,1861, pags. 82-95.

Peruko Erregeordeak gudaroste ikaragarria bidali zuen matxinada suntsitzera Jeronimo Valdes jeneralaren aginduetara. Bi gudaroste errege-zaleok, edo erregearen zerbitzukoak, elkarren kontra aritu ziren bortizki denbora batez, baina inolako emaitzarik gabe.

Espainiarrak bi joeretan banatuta egoteak, elkarren aurka ari ziren bi gudaroste izateak ekarri zuen amerikar abertzaleez osatutako ejerzituak errazago aurrera egitea. Azken batean, hiru gudaroste dira borrokan ari direnak: alde batetik, Jose de la Serna erregeordearen espainiar liberalak; bestetik, Pedro Olañeta buru zuten espainiar absolutistak; eta azkenik, matxinatutako abertzale ibero-amerikarrak bi frontetan banatuta; Simon Bolivarren eta Sucreren, haren bigarrenaren, menpean batzuk; eta Jose San Martinen gidaritzapean besteak.

Sernaren espainiar liberalen botereak lurra jo zuen Juningo batailan, eta erabakigarria eta azkena izango zen Ayacuchocoan (1824/12/02). Bataila honek, eta bertako kapitulazio militarrek eman zioten bukaera Peruko Erregeordetzari.

Egoera honen aurrean Olañeta buru zuten indar absolutistak Potosi aldean bildu ziren, egoerari eusteko azken eginahaletan, baina ospa egin behar izan zuten abertzale independentisten aurrerapenek behartuta. Azken hauek Tumusla errekan (Potosí) finkatu ziren , eta 1825eko apirilaren lehenean Olañetaren mila eta zazpiehun soldadu inguruk eraso egin zieten. Bataila latza eta luzea izan zen, eta Olañeta zaurituta erori zelarik, bere soldaduak sakabanatu egin ziren. Olañeta hurrengo egunean hilko zen. Huraxe izan zen azken borrokaldia espainiarren agintealdiari amaiera eman eta Boliviaren independentzia ahalbideratu zuena.

Iberiar Penintsulan Fernando VII. Erregeak Ayacuchoko hondamendiaren berri izanda, 1825eko uztailaren 12an, Olañeta, bere absolutista fidela, Rio de La Platako erregeorde izendatu zuen, baina erregeak ez zekien hau zendua zela hiru hilabete lehenago.[21]

[21] Ikus Cortés, M. J.: "Ensayo sobre la historia de Bolivia". Imprenta Breeche de Sucre,1861, pags. 82-95.

12. MARÍA ÁNGELA TELLERÍA ARANA

Relato de una guerrillera antifrancesa valiente y heroica, que tuvo su reconocimiento en vida.

María Angela Telleria Arana nació en Elgeta en 1779 y murió en Rosal de la Frontera (Huelva) en 1864.

Sus padres fueron: Ignacio Telleria Basauri (1731) y Agustina Arana Ascasibar (1737), casados el año 1761 en Elgeta, y tuvieron estos seis hijos/as: Juan Bautista, María Concepción, Agustina, Juan, Juana María, María Ángela Telleria Arana.
(Ver genealogía Anexo VII)

María Ángela es el testimonio de una heroína en la Guerra de la Independencia (1808-1814). Fue una guerra solidaria de hombres y mujeres luchando por la libertad en contra de las numerosas fuerzas de ocupación francesas.

En esta guerra algunas mujeres compartieron con los hombres la defensa de ciudades o pueblos, o se incorporaron a las partidas guerrilleras, otras mujeres ejercieron con mucha pericia labores de apoyo y

Calle de Durango / Durangoko kalea

colaboración como el espionaje o la evasión de prisioneros patriotas españoles.

Nuestra elgetarra en 1809, con treinta años de edad, vivía en Durango, cuando el pueblo fue invadido por

12. MARIA ANGELA TELLERIA ARANA

Bizi zen artean esker ona jaso zuen gerrilari ausart eta heroiko bati buruzko kontaera.

Maria Angela Telleria Arana Elgetan jaio zen 1779an eta Rosal de la Fronteran (Huelva) hil 1864an.

Haren aita-amak Ignacio Telleria Basauri (1731) eta Agustina Arana Ascasibar (1737) izan ziren, Elgetan ezkonduak 1761ean. Sei seme-alaba izan zituzten: Juan Bautista, Maria Concepcion, Agustina, Juan, Juana Maria eta Maria Angela Telleria Arana.
(Ikus VII. eranskineko genealogia)

Maria Angelari Espainiako Askatasun Gerrako (1808-1814) heroi baten lekukotasuna zor zaio. Hura gerrate solidarioa izan zen, non gizonak eta emakumeak elkar hartuta askatasunaren alde borrokatu ziren, eta aurre egin zieten frantsesen okupazio-indar ugariei.

Gerrate honetan zenbait andrazkok herri eta hirien defentsa partekatu zuten gizonezkoekin, edo gerrillarien taldeetara bildu ziren, eta beste emakume batzuk egundoko trebeziaz bete zituzten laguntza eta sostengu lanak; hala nola, espioitza eta espainiar abertzale presoen ihesaldiak ahalbideratzea.

Frantziarren aurkako gerrilaria / *Guerrillera antifrancesa*

Gure elgetarra 1809an, hogeita hamar urtekoa zela, Durangon bizi zen napoleondarren gudarosteak herria hartu zuenean, beraiekin hango eta hemengo makina bat preso zekartzatela, Santanderren 1809ko uztailean hartutakoak kasu.

el ejército napoleónico, trayendo con él numerosos prisioneros desde otros lugares, como los apresados en julio de 1809 en Santander.
Su heroica hazaña fue la liberación en varias actuaciones de unos 26 oficiales y muchos más soldados patriotas anti-franceses.

En una primera estrategia consiguió entrar en el edificio donde estaban encerrados los prisioneros, ocultando vestidos de mujer, y con ellos disfrazó a tres oficiales presos, consiguiendo burlar y traspasar la custodia de los centinelas.

Animada con este primer éxito recabó más ropas y dinero entre una red de vecinos colaboradores para conseguir la huida de otros presos.

En otra intervención entró en la cárcel con traje varonil, y bajo la capa ocultó unos cordeles. Así arropada consiguió penetrar hasta el recinto de los oficiales prisioneros, que en un buen número se descolgó por una ventana a una huerta y ella salió la última. Una vez en el exterior, a unos les repartió dinero y les indicó el mejor camino para huir y a otros los llevó a casas seguras. En su propia casa refugió a un capitán con una pierna dislocada en la huida y allí estuvo escondido durante un mes hasta su curación.

Estas actuaciones hicieron que el gobernador de Bilbao, general francés Avril, tomara medidas contundentes, concentrando soldados franceses en Durango para asegurar su captura.

Angela fue hecha prisionera y trasladada a la cárcel de Bilbao, en la que fue sometida a torturas para delatar los nombres de sus colaboradores. No lo consiguen y termina condenada a dos años de prisión en la cárcel de Durango.

Estando allí presa, el guerrillero Ignacio Alonso "Cuevillas" atacó la prisión, liberándola y llevándola como heroína a Logroño. Al conquistar los franceses esta ciudad, capturaron de nuevo a Ángela, encerrándola en la cárcel de Bilbao. En esta cárcel permaneció durante tres meses, y durante ellos enfermó gravemente por la humedad y falta de aire en el primer calabozo, hasta ser trasladada a otro en mejores condiciones.

De aquí fue llevada a Vitoria, por mandato del Gobernador francés de esta ciudad, para sustanciar su causa. A pesar de las amenazas y promesas, se mantuvo firme y leal en su patriotismo, y fue condenada a muerte.

Antes de ser ejecutada la condena, fue trasladada a San Sebastián ante el gobernador Thouvenot. Se cuenta que éste le recriminó su proceder, y ella contestó en euskara: "que nada malo había hecho en

Haren balentria heroikoa izan zen zenbait ekinalditan frantziarren aurkako 26 bat ofizial eta askoz ere soldadu gehiago askatzea.

Lehenbiziko estrategia batean presoak giltzapean sartuta zeuden eraikinera sartzea lortu zuen emakumeen jantziak gordeta zeramatzala. Soineko haiekin maskaratu zituen preso zeuden hiru ofizial eta jagoleen atea zeharkatzea erdietsi zuten.

Hasierako arrakasta honek adoretuta, janzkera eta diru gehiago eskuratu zuen auzoek osatutako laguntzaile-sare batetik, horrela preso gehiagok ihes egitea lortu zutelarik.

Beste ekinaldi batean gizonez jantzita sartu zen kartzelara eta kapa azpian soka batzuk ezkutatu zituen. Horrela jantzita ofizial presoak gordetzen zituzten esparrura sartzea lortu zuen, zeinetako leiho batetik asko eta asko soka haietatik zintzilikatuta jaitsi ahal izan ziren ortu batera, gure andrea azken tokian. Behin kanpoan, batzuei dirua banatu eta ihes egiteko biderik egokienak erakutsi zizkien, eta beste batzuk etxe seguruetara eraman zituen. Bere etxean gorde zuen ihesaldian zango bat lokatu zuen kapitain bat, eta han eduki zuen hilabetean, erabat sendatu zen arte.

Jokabide hauek eragin zuten Bilboko gobernadoreak, Avril jeneral frantsesak, neurri gogorrak hartzea; hala nola, iheslariak atzematea helburua zuten soldaduak Durangora biltzea. Angela preso hartu zuten eta Bilboko espetxera eraman. Han torturak jasan behar izan zituen bere laguntzaileen izenak jakin nahirik, baina ez zuten helburua lortu eta azkenean bi urteko kartzela aldira kondenatu zuten, Durangon beteko zuena.

Han preso zegoela, Ignacio Alonso "Cuevillas" gerrillariak espetxea erasotu eta handik atera zuen, heroinatzat hartuta Logroñora eraman zuelarik. Frantsesek hiri hau hartu zutenean, berriro atxilotu zuten Angela eta Bilboko kartzelan sartu. Espetxe horretan egon zen hiru hilabetez, eta lehenbiziko ziegako hezetasuna eta airerik eza zela eta, larri gaixotu zen. Horregatik baldintza hobeak zituen beste ziega batera eramango zuten.

Hemendik Gasteizera eraman zuten, hiri honetako Gobernadore frantsesaren aginduz, haren aurkako auzia bideratzeko. Hamaika mehatxu eta losintxa entzun behar izan bazituen ere, irmo mantendu zen abertzaletasunean eta heriotza-zigorra eman zioten.

Zigorra betearazi baino lehen, Donostiara eraman zuten, hango gobernadorea zen Thouvenoten aurrera. Honek bere jokaera gaitzetsi omen zion, eta hark euskaraz erantzun omen zion: "ez zuela inolako kalterik egin bere anaiak askatzean, eta ahal zuen guztietan gauza bera egingo zuela".

libertar a sus hermanos, y que siempre que pudiera, volvería a hacer lo mismo".

El guerrillero vizcaíno Francisco Tomás de Longa amenazó en un oficio al Gobernador francés con matar a 15 oficiales franceses secuestrados en su poder, si no se procedía a la liberación de Ángela. Ante esta amenaza, fue liberada en 1811 y se trasladó a Cádiz, lugar seguro, donde siguió siendo considerada como una heroína. Sus aventuras fueron publicadas en el periódico "El Conciso", del que se ha recogido parte de la información anterior.[22]

Las Cortes de Cádiz (30-03-1811), reconociendo su heroica labor, le concedieron una pensión vitalicia de 4.000 reales anuales.

En 1825 casó con Juan Alonso Olmedo, viviendo y muriendo en 1864 en Rosal de la Frontera (Huelva), donde tiene una calle dedicada en su honor.

El matrimonio Olmedo-Telleria tuvieron sucesión en su hija María Ángela Olmedo Telleria, casada con Alonso de Banda, que a su vez tuvieron seis descendientes: Dolores, Juana, José, Daniel, Manuel y María Banda Olmedo y Telleria.

[22] Sánchez Barbero, Francisco, "Patriotismo y heroicidad de una Española", El Conciso (Cádiz), 39 (18-03-1811), pags. 209-212).

Francisco Tomas de Longa gerrillari bizkaitarrak Gobernadore frantsesari egindako ofizio batean mehatxu egin zuen bahituta zituen 15 ofizial frantses garbituko zituela, Angela libre uzten ez bazuten. Keinada honen aurrean, 1811an jarein zuten eta Cadizera alde egin zuen. Han leku segurua izateaz gain, heroitzat hartu zuten. Haren ibilerak eta abenturak "El Conciso" egunkariak argitaratu zituen, nondik hartu dugun hemen erabilitako informazio zenbait.[22]

Cadizko Gorteek (30-03-1811), egindako lan heroikoak aintzatetsiz, hil arteko 4.000 errealeko pentsioa onartu zioten.

1825ean Juan Alonso Olmedorekin ezkondu eta Rosal de la Fronteran (Huelva) bizi eta hil zen 1864an. Herri horretan kale bati haren izena eman zioten haren ohorez.

Olmedo-Telleria senar-emazteek Maria Angeles Olmedo Telleria alaba izan zuten, zeina Alonso de la Bandarekin ezkondu eta sei ondorengo izan zituzten: Dolores, Juana, Jose, Daniel, Manuel eta Maria Banda Olmedo eta Telleria.

[22] Ikus Sanchez Barbero, F.: "Patriotismo y heroicidad de una Española", El Conciso (Cádiz), 39 (18-03-1811), pags. 209-212).

13. JUAN MARÍA EGUREN MÚGICA

Relato del primer Inspector de Educación para toda Gipuzkoa, promotor de muchas escuelas y creador de un método pedagógico hoy discutido por castellanizante.

Juan María Eguren Mugica nació en Elgeta (1828) y murió en Vitoria-Gasteiz (1880).
Casó en dos nupcias y solo conocemos la segunda esposa, Francisca Magdalena Gandarias Aldanondo, casados en Donostia (1869) y tuvieron una hija.
Sus padres fueron: Agustín Eguren Cafranga (Eibar, 1778) y Juana Mugica Arostegui (Bergara, 1781), casados en Eibar (1802). Tuvieron nueve hijos e hijas. (Ver genealogía en Anexo VIII)

Fue maestro titulado por la Escuela Normal de Madrid, que se había creado por primera vez para todo el Estado en 1837.
Ejerció de maestro elemental en Cilleros (Cáceres) y superior en Torrejoncillo (Cáceres) entre los años 1852 y 1859, tras haber obtenido estas plazas por oposición.

Ocupó el cargo, recién creado, de primer inspector de educación en Gipuzkoa (1860-76) y después en Araba (1876-79).

Libro de Eguren / Egurenen liburua

En esta segunda mitad del siglo XIX, al iniciarse como inspector, el analfabetismo en Gipuzkoa, sobre todo en áreas rurales, alcanzaba a más de la mitad de la población, y la alfabetización escolar seguía abandonada, con muy reducidos recursos.

13. JUAN MARIA EGUREN MUGICA

Gipuzkoa osorako lehenbiziko Hezkuntza-Ikuskari baten kontakizuna; eskola askoren sustatzailea, eta pedagogia-metodo baten sortzailea izan zena, gaur egun eztabaidatua dagoena gaztelaniaren aldekoa izateagatik.

Juan Maria Eguren Mugica Elgetan jaio zen 1828an eta Gasteizen hil 1880an.
Bi aldiz ezkondu zen, eta bigarren emaztearen izena ezagutzen dugu: Francisca Magdalena Gandarias Aldanondo, Donostian ezkonduak 1869an. Alaba bakarra izan zuten.
Haren gurasoak izan ziren: Agustin Eguren Cafranga (Eibar, 1778) eta Juana Mugica Arostegi (Bergara, 1781), Eibarren ezkonduak 1802an, eta bederatzi seme-alaba izan zituzten. (Ikus VIII. eranskineko genealogia)

Maisu titulua lortu zuen Madrileko Eskola Normalean, 1837an Estatu guztirako sortua zenean.
Oinarrizko maisu izan zen Cillerosen (Caceres), eta goi mailakoa Torrejoncillon (Caceres) 1852 eta 1859 urteen tartean. Oposizioz lortu zituen bi lanpostu hauek.

Ondoren, sortu berria zen Gipuzkoako hezkuntza-ikuskari kargua bete zuen, lehena izanik lanbide horretan (1860-1876), gero Arabakoa beteko zuen (1876-1879).

Eskolako argazkia / *Imagen de una escuela*

XIX. mende horren bigarren erdian, ikuskaritzan hasi zenean, Gipuzkoan, batez ere landa-eremuetan, populazioaren erdia analfabetoa zen. Eskola-alfabetatzea bertan behera utzita zegoen eta oso urriak ziren eskaintzen zitzaizkion baliabideak.

Un factor decisivo previo de este deterioro y abandono escolar fue el contexto de situación bélica y convulsa con cinco guerras intermitentes (entre los años 1701-1876), que asolaron gravemente a la población y a sus recursos tanto comunales como privados.

Con la Constitución de Cádiz (1812) se estableció la base legal de una enseñanza elemental de carácter universal y gratuito para toda la ciudadanía. Pero hasta la Ley Educativa de Moyano (1857) no se articularon las bases de esta propuesta.

La realidad educativa en Gipuzkoa presentaba múltiples carencias. El oficio docente aún no estaba perfilado ni tenía una preparación específica, y recibía una retribución precaria, que por necesidad debía ser compaginada con otras actividades. La matriculación del alumnado en cada aula era masificada y con escasa asistencia, por la distancia de los caseríos, por las enfermedades infecciosas y por los trabajos domésticos en temporadas. Los edificios escolares eran insalubres y sin espacio, y se aprovechaba cualquier lugar insospechado para su ubicación. Los materiales didácticos eran pocos e inadecuados. Todas las materias prescriptivas (leer, escribir, contar) estaban orientadas al aprendizaje del castellano, y solo se permitía el euskara en el aprendizaje del Catecismo.

En este contexto Juan María como primer Inspector desarrolló un intenso celo profesional, con la creación de más de cien escuelas nuevas, y con la construcción de más de sesenta locales nuevos para escuelas. Además de otras reformas, también intervino tanto en la creación como en la desaparición de la Escuela Normal de Maestras de Guipúzcoa entre 1865 y 1869, con sede en Tolosa.

En su cargo de inspector ejercía como funciones principales una labor de vigilancia y evaluación. Antes de su visita anual, recogía como tarea previa toda la información posible sobre los pueblos. En la visita a la escuela el principal motivo era el control de la conducta del profesorado, además del régimen interno de la escuela, materiales y métodos, y el examen del alumnado para conocer su grado de instrucción y adelantos. Terminada la visita se reunía con la Junta Local de Instrucción y presentaba un informe-memoria a la Comisión Provincial de Instrucción Primaría, con sus recomendaciones e imposiciones.

Por esta labor era un gran conocedor de la práctica educativa en Gipuzkoa. Y en ocasiones reconoce, dado el desconocimiento del español, la ingrata tarea del profesorado vasco en la enseñanza de determinadas materias. "De aquí el que los maestros tengan en las escuelas vascongadas mucho más trabajo en el ejercicio de su penosa misión, con el disgusto de no conseguir satisfactorios resultados muchas veces por más que se esfuercen, por consiguiente no progresa como debiera la enseñanza popular ".[23]

[23] Ver "Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas" (1867:VI).

Narriadura eta utzikeriazko egoera tamalgarri horretara iritsi izanaren arrazoiak argitu nahi badira, kontuan hartu behar da aldez aurretik nozitutako gerra-garai katramilatsua, non bost gerrate jazo ziren bata bestearen atzetik 1701etik 1876ra bitartean, Gipuzkoako biztanleria eta baliabide publikoak zein pribatuak larriki suntsitu zituena.

Cadizko Konstituzioak (1812) ezarri zituen oinarrizko hezkuntza orokorraren lege-oinarriak, herritar guztientzako eta doakoa izango zena. Baina Moyanoren 1857ko Heziketa-Legera arte ez ziren gauzatu hark proposatutako oinarriak.

Gipuzkoako hezkuntzaren gabeziak oso ugariak eta agerikoak ziren. Irakaskuntza-lana artean zehaztu gabe zegoen, ez zegoen prestaketa berezirik irakasle izateko, eta horretaz gain, oso gaizki ordainduta zegoen, ezinbestekoa zen aldi berean bestelako lanen batekin osatzea. Gela bakoitzeko ikasle kopurua oso handia zen, baina oso ikasle gutxi bertaratzen ziren; izan ere, kontuan hartu beharrekoak ziren hainbat arrazoi; hala nola, baserrietatik egin beharreko joan-etorri luzeak, infekzio-gaixotasunak, eta sasoian sasoiko baserrietako lanak. Eskola-etxeak osasunerako kaltegarriak ziren, ez zuten leku egokirik, edozein toki ziztrin erabiltzen zen horretarako. Material didaktikoak oso urriak eta desegokiak ziren. Irakasgai guztiak (irakurri, idatzi, zenbatu) gaztelera ikastera zeuden bideratuta, euskara kristau-ikasbidea edo dotrina ikasteko baino ezin zitekeen erabili.

Testuinguru honetan Juan Mariak, lehen ikuskaria izanik, sekulako lanak eta ahaleginak egin zituen egoera zuzentzeko. Horrela, ehundaka eskola berri sortu zituen, eta hirogeitaka lokal berri eraiki zituzten eskoletarako. Baita ere, esku hartu zuen 1865 eta 1869 urteen bitartean Tolosan ipini zuten Gipuzkoako Maistrentzako Eskola Normalaren sorreran eta desagerketan.

Haren ikuskaritza-lanean zeregin nagusienak zituen zaintza edo jagoletza, eta ebaluazioa. Eskoletara urtero egin ohi zituen bisiten aldez aurretik, herrien inguruko ahal zen informazio guztia biltzen zuen. Bisitaldiaren zio behinena irakasleriaren jokaeraren zaintza bazen ere, horrez gain beste hainbat alderdi ere hartzen ziren kontuan; hala nola, eskolaren barne erregimena, ikas-materialak eta metodoak, eta ikasleentzako azterketak beren aurrerapenak eta jakintza-maila neurtu ahal izateko. Bisitaldia amaituta Herriko Eskolatze Batzordearekin bildu ondoren memoria-txostena aurkeztuko zion Oinarrizko Eskolatzearen Probintziako Batzordeari, bertan zehazten zirela egindako gomendioak eta aginduak.

Eginkizun hau zela eta, oso ondo ezagutu zuen Gipuzkoako heziketa-jardunbidea. Zenbait aldiz aitortzen du, ikasleek gaztelaniaz duten ezjakintasuna dela kausa, irakasleek egin beharreko lan latza ikasgai batzuk erakustean. "Hona zergatik Euskal Herriko eskoletako maisuek lan neketsuagoa duten beren eginkizunetan, buru-belarri saiatuagatik emaitza egokirik lortu ezinak dakarren atsekabearekin; horiek horrela, herriaren irakaskuntzak ez du aurrera egiten behar bezala".[23]

[23] "Ikus "Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas" (1867:VI).

Su aportación pedagógica e ideológica está plasmada en dos libros: *"Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas"* (1867) y el *"Diccionario vasco-castellano"* (1868).

Tanto el método como el diccionario, con muchas ediciones, tuvieron una amplia repercusión para facilitar el castellano en las escuelas y también fuera de ellas. Se plantea básicamente la necesidad de fomentar el castellano, también fuera de la escuela, extendiéndolo a todos los ciudadanos, siendo secundario la suerte corrida por la lengua vasca. En su opinión "el conocimiento del castellano no solo será provechoso para el progreso individual, sino también para el posible ascenso social, y el poder comunicarse fuera de las fronteras vascas".

Su método completo consta de cuatro partes, en un breve manual: un pequeño diccionario vasco-castellano, ejercicios prácticos sobre la declinación del euskara, ejercicios sobre las conjugaciones de los verbos, presentación de diversas frases en castellano y vascuence para ejercitarse en la traducción, aconsejando como textos el Catecismo de Ripalda y la Historia Sagrada de Fleury.

Eguren con su método castellanizante estaba en clara oposición a otros pedagogos naturales de la Provincia como Luis de Astigarraga (Segura), Agustín de Iturriaga (Hernani) y Juan Ignacio Iztueta (Zaldibia), que con anterioridad habían promovido métodos bilingües. Estos autores eran decididos defensores de que la alfabetización de las primeras letras se debía hacer primero en euskara, partiendo de la lengua materna (la conocida) para después introducir paulatinamente el castellano (la desconocida).[24]

[24] Cainzos, M.: "Lehen hitzen irakaskuntza Debagoienean", 2019, segundo capítulo.

Bere ekarpen pedagogiko eta ideologikoa bi liburutan jasota dago: *"Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas"* (1867) bata, eta *"Dicccionario vasco-castellano"* (1876) bestea.

Bai metodoak zein hiztegiak, behin eta berriz argitaratuak, egundoko zabalkundea izan zuten gaztelania ikastea errazten zuelako bai eskoletan, baita eskolaz kanpo ere. Oinarrizko aldarrikapena da gaztelania sustatu beharra, baita eskolaz kanpo ere, herritar guztiengana hedatuz; euskal hizkuntzaren egoera bigarren mailakotzat utzita. Haren iritziz "gaztelania jakitea norbanakoaren aurrerapenerako mesedegarria izateaz gain, onuragarria da gizarte-mailan igotzea ahalbideratzeko, eta euskal mugetatik kanpo komunikatu ahal izateko".

Haren metodo osoa lau zatitan banatuta dago eskuliburu labur batean: euskara-gaztelania hiztegi txiki bat, euskal deklinabidearen ariketa praktikoak, aditzen jokaerei buruzko ariketak, gaztelaniazko eta euskarazko zenbait esaldiren aurkezpena itzulpenetan trebatzeko, lanerako testu moduan Ripaldaren Katixima eta Fleuryren Historia Sakratua gomendatzen zituelarik.

Eguren bere metodo gaztelania-zalearekin erabat aurka gertatu zen Probintziako beste pedagogo natural batzuek aldarrikatzen zutenarekin; hala nola, Luis de Astigarraga (Segura), Agustin de Iturriaga (Hernani) eta Jose Inazio Iztuetarekin (Zaldibia). Hauek aldez aurretik bultzatu zituzten metodo elebidunak eta sutsu defendatzen zuten oinarrizko hizkien lehenbiziko alfabetatzea euskaraz egin beharra zegoela, ama hizkuntzatik (ezagunetik) hasita, gero arian-arian gaztelania sartuz (ezezaguna).[24]

[24] Cainzos, M.: "Lehen hitzen irakaskuntza Debagoienean", 2019, bigarren kapitulua.

14. DOMINGO Mª (AQUILINO) ITURBE Y ALTUBE

Relato de un emigrante con ocupación en las finanzas y que al retornar a su pueblo empleó su herencia y Fortuna en una meritoria Fundación Escolar.

Domingo Mª (Aquilino) Iturbe y Altube nació en1833 en el caserío Sostoa (Zesto Gainekua) de Elgeta, y murió en su pueblo en 1912.

Los padres de Domingo fueron Gaspar Antonio Iturbe Ojanguren (1795/†1866), procedente del caserío Iturbe, y Mª Dominica Altube Aguirreveña (1803/†1877), heredera del caserío Sostoa (Zesto Gainekua). (Ver genealogía en Anexo IX).

Con la edad de 17 años emigró a América, residiendo en la República de Bolivia, durante al menos treinta y cinco años. Su trabajo estuvo relacionado con las finanzas bancarias. A su retorno consta que tenía cien acciones en el Consejo de Administración de la Sociedad Anónima "Crédito Hipotecario de Bolivia". Este fue el primer banco hipotecario privado de Bolivia, creado en 1869, con domicilio en la ciudad de La Paz. Su cometido era suministrar empréstitos a propietarios de inmuebles y tierras, previa hipoteca de sus bienes.

En los últimos años de su vida, permaneciendo soltero, se retiró a su pueblo natal de Elgeta. Al retornar no tenía familia directa (hermanos o sobrinos), y le correspondía por herencia los caseríos de Sostoa (Zesto Gainekua) y Aramburu con los pertenecidos de ambos, y la mitad de la casa Ercillacoa en la calle San Roke. Antes de morir vendió estos caseríos por un total de 52.000 pts.
Por tanto, Domingo Iturbe, además de lo que economizó en América, dispuso de otras propiedades heredadas o compradas en Elgeta.

Edificio de la Fundación / Fundazioaren eraikina

14. DOMINGO MARIA (AQUILINO) ITURBE ALTUBE

Finantza-lanetan aritu ondoren herrira itzultzean bere herentzia Eskola Fundazio txalogarri bat sortzeko erabili zuen emigratzaile baten kontakizuna.

Domingo Maria (Aquilino) Iturbe y Altube 1833an jaio zen Elgetako Zestogain baserrian, eta herri horretan hil 1912an.

Domingoren gurasoak izan ziren Gaspar Antonio Iturbe Ojanguren (1795/†1866), Iturbe baserritik zetorrena, eta Maria Dominika Altube Aguirrebeña (1803/†1877), Zestogain baserriko oinordekoa. Bost seme-alaba izan zituzten. (Ikus IX. Eranskineko genealogia).

17 urtekoa zela Ameriketara emigratu zuen, Boliviako Errepublikan bizi izan zelarik gutxienez hogeita hamahiru urtetan. Bere lanbidea banketxetako finantzekin lotuta ageri da. Herrira itzultzean adierazten du ehun akzio zituela "Crédito Hipotecario de Bolivia" Sozietate Anonimoaren Administrazio-Kontseiluan. Hau izan zen Boliviako lehen banketxe hipotekario pribatua, 1869an sortua, eta La Paz hirian egoitza zuena. Haren egitekoa zen higiezinak eta lurrak zituzten jabeei maileguak ematea, aldez aurretik euren ondasunak hipotekatuta.

Bizitzaren azken urteetan, ezkongabe iraun zuela, bere jaioterrira, Elgetara itzuli zen. Bueltatu zenean senitarteko zuzenik (anai-arreba edo iloba) ez zuenez, oinordekotzan bereak zituen Zesto Gainekoa eta Aranburu baserriak eta hauen inguruko ondasunak, eta San Roke kaleko Ercillakoa etxearen erdi bat. Hil aurretik saldu egin zituen bi baserriak guztira 52.000 pezetatan. Gauzak horrela, Domingo Iturbek, Ameriketan aurreratutakoaz gain, oinordetzan jasotako edo erositako beste ondasun batzuk eduki zituen Elgetan.

Iturberen koadroa (P. Urangarena) / *Cuadro de Iturbe (de P. Uranga)*

En 1909 inició su propia Fundación Escolar, que quedó constituida a los dos años con la denominación de las "Escuelas Cristianas de niños del Sagrado Corazón de Jesús". El objeto de la misma era "proporcionar una instrucción primaría sana y religiosa gratuita a los jóvenes de Elgeta".

Esta Fundación, definida como institución católica, estaba patrocinada por el Obispo de Vitoria, la diócesis de pertenencia en aquel momento, y una Junta de Inspección, con una mayoría de representantes eclesiales.

Domingo dejó al Patronato fundado por él la cuantiosa dotación en aquellos tiempos de 50.000 pts. y con un interés del 4% en deuda perpetua. Este tipo de deuda no permitía nunca la devolución del capital suscrito y solo se percibían los intereses convenidos.

La primera instalación en 1909 se ubicó en un local del antiguo edificio del Hospital de la Magdalena. Y en 1920, ya muerto Domingo Iturbe, la Fundación construyó su propio y amplio edificio de tres plantas (ver imagen) En esta escuela los niños podían ingresar desde los 5 hasta los 15 años, y estaban distribuidos en dos grupos de párvulos y de mayores.

Al principio estuvo bajo la dirección de tres Hermanos de la Salle venidos de Francia, y la continuaron otros de la Congregación durante dieciocho años (1909-27). A su marcha ejercieron durante dos años la docencia un maestro y una maestra seglares. Les siguieron los Hermanos Viatoristas hasta la última guerra (1929-36). Y en la última etapa permanecieron otros maestros seglares hasta 1955, una vez liquidadas las rentas de la Fundación.

Desde 1931 el Patronato incorporó la instrucción y educación de niñas, y la encargó a una comunidad de monjas (Hijas de la Unión Apostólica), que permanecieron en esta labor hasta julio de 1965.

Esta Fundación se mantuvo durante más de cincuenta años y tuvo trascendencia local por su labor pedagógica y el número de alumnado matriculado (unos cien de media anual), primero solo de niños durante veintidós años y después también de niñas.

En 1994 su pueblo de Elgeta en reconocimiento a esta obra fundacional le dedicó una calle.[25]

[25] Cainzos, M.: "Elgeta lehen eta orain", Elgeta, 2018, pags. 240-48.

1909an ekin zion Eskola Fundazioa sortze-lanari, bi urte geroago eratu zena "Escuelas Cristianas de niños del Sagrado Corazón de Jesus" izenarekin. Haren helburua zen "Elgetako gazteei oinarrizko irakaskuntza on eta erlijiosoa dohainik eskaintzea".

Fundazio hau, instituzio katolikotzat aldarrikatua, Gasteizko Gotzainak, hura baitzen orduan elizbarrutia, eta Ikuskaritza-Batzorde batek babestuta zegoen, azken hau ere nagisuki elizgizonek osatutakoa.

Domingok berak sortutako Patronatuari 50.000 pezetako diru-hornidura utzi zion, egundoko dirutza garai hartan. Kapital horrek %4ko interesak izango zituen betiereko zorrean. Zor-mota honek ez zuen sekula onartzen harpidetutako kapitalaren zatirik itzultzen, hitzartutako korrituak baino ez ziren jasotzen.

1909ko haserako kokapena Madalena Ospitaleko eraikuntza zaharrean izan zuen. 1920an, Domingo jada hilda, Fundazioak beretzako hiru solairutako eraikuntza zabala jaso zuen. Eskola horretan 5 urtetik hasi eta 15 urtera arteko mutikoak sar zitezkeen, eta bi taldetan zeuden banatuta: ume txikiena bata, eta nerabeena bestea.

Hasiera batean, Frantziatik etorritako Salletarren hiru anaiaren zuzendaritza pean lan egin zuten, geroago Kongregazio bereko beste batzuk arituko ziren hemezortzi urtez (1909-1927). Hauek alde egitean, bi urtez bi maisu-maistra sekularrek jarraitu zuten irakaskuntza-lana. Hauen ondoren Viatorista Anaidikoak aritu ziren azken gerrara arte (1929-1936). Eta azken aroan maisu-maistra sekularrek jarraitu zuten 1955era arte , jada Fundazioaren errentak kitatuta.

1931etik aurrera Patronatuak nesken irakaskuntzari egin zion leku, eta lekaimeen komunitate baten (Hijas de la Unión Apostòlica) esku utzi zuten, zeinak 1965eko uztailera arte iraun zuen zeregin horietan.

Fundazio honek zutik iraun zuen 50 hamar urte baino gehiagotan eta garrantzi handia izan zuen herrian egindako lan pedagogikoagatik, eta matrikulatutako ikasle kopuruagatik (ehunen bat urtero). Hasiera batean, 22 urtez, mutikoak baino ez zituen hartu, baina 1931etik aurrera neskak ere bai.

1994an bere Elgetako herriak, haren Fundazioaren lanak aitortuz, kale bat eskaini zion.[25]

[25] Cainzos, M.: "Elgeta lehen eta orain", Elgeta, 2018, pags. 240-48.

15. (CARLOS) VALENTÍN ELCORO ALDECOA

Relato de un empresario prominente y emprendedor, transformando y participando en importantes empresas, y con una destacada vida social en la Capital de México.

(Carlos) Valentín Elcoro Aldecoa nació en el caserío Garraztegi Azpikoa (Angiozar) en 1839 y murió en la Ciudad de México en 1917.

Sus padres fueron: Juan Bautista Elcoro Aguirrebeña (1799 /†1840) y Agustina Bonifacia Aldecoa Urcelay (1806/†1890), casados en Angiozar en 1827. Tuvieron seis hijos/as.

Valentin se casó en 1865 en la capital de México con María Berho Canderatz, nacida en 1844 en Azcain (San Juan de Luz- Iparralde), emigrante también como institutriz a este país, y tuvieron siete hijos/as.
(Ver genealogía en Anexo X).

Valentín con la edad de 20 años vivía una especial situación familiar y socio-política en el país.
En cuanto a la situación familiar, su padre había muerto en 1840, un año después de su nacimiento. El caserío de Garraztegi-Azpikoa seguía arrendado por la familia, y solo producía lo necesario para mantener a unos pocos.
Su hermano mayor, Domingo, se había casado en 1855 con Marcelina Lazpiur Ugarte, ejerciendo de cabeza de familia, y viviendo aún su madre. Su segundo hermano, Esteban, había emigrado a México en 1853. Su hermana Mª Juana se había casado cuatro años antes a otro caserío y Manuela estaba a punto de comprometerse en matrimonio.

Por otra parte la situación socio-política en España era convulsa y estaba en guerra con Marruecos, desarrollándose las operaciones bélicas en el Norte de África (1858-1861). En aquel momento muchos jóvenes optaron por emigrar a América, entre otras cosas para evitar el servicio militar ya obligatorio después de la abolición foral, o para liberar al caserío familiar, o simplemente para buscar Fortuna.

También Valentín decidió emigrar a América, pero con la ventaja de que allí le esperaba la acogida de su hermano Esteban, en donde residía desde seis años antes.

Partió en octubre de 1859 para México. Llegó al puerto de Veracruz y su destino era encontrarse en San Luis Potosí con su hermano Esteban, que tenía instalado un taller de herrería. Al llegar a México, independizado de España en 1821, la situación del país se encontraba ante un escenario de reconstrucción nacional, una situación económica difícil y un ambiente político inestable. Después soportaría guerras intestinas e incluso la invasión extranjera francesa con el emperador austríaco Maximiliano de Habsburgo (1863-67).

15. (CARLOS) VALENTIN ELCORO ALDECOA

Enpresari entzutetsu eta ekintzaile baten kontaera, zeinek enpresa garrantzitsuetan parte hartu eta eraldatu zituen, eta Mexicoko Hiriburuko gizartean nabarmendu zen.

(Carlos) Valentin Elcoro Aldecoa Angiozarko Garraztegi Azpikoa baserrian jaio zen 1839an eta Mexicoko Hiriburuan hil 1917an.

Haren aita-amak izan ziren: Juan Bautista Elcoro Aguirrebeña (1799/†1840) eta Agustina Bonifacia Aldecoa Urcelay (1806/†1890), Angiozarren ezkonduak 1827an, eta sei seme-alaba eduki zituzten.

Valentin Mexicoko hiriburuan ezkondu zen 1865ean Maria Berho Canderazekin, hau 1844an sortua Azkainen (Iparraldea). Hau ere umeen irakasle izateko emigratua zen, eta zazpi seme-alaba ekarri zituzten.
(ikus X. Eranskineko genealogia).

Valentinek 20 urte zituenean bere familiak eta, oro har, herri honek bizi zuen gizarte- eta ekonomia- egoera deskribatuko dugu hurrengo lerroetan. Familiaren egoerari dagokionez, haren aita zendua 1840an, bera jaio eta urtebetera. Garraztegi Azpikoa baserria errentan hartuta zeukan sendiak, eta gutxi batzuk mantendu ahal izateko baino ez zuen ematen.
Haren anaia nagusia Domingo 1855ean ezkondu zen Marcelina Lazpiur Ugarterekin eta bere gain hartu zuen familia-burutza, artean ama bizi zela. Bigarren anaia, Esteban, Mexicora alde egina zen 1853an. Maria Juana arreba lau urte aurrerago ezkondua zen beste baserri batera, eta Manuela ezkontzeko hitza ematear zegoen.

Bestalde, Espainiako gizarte- eta ekonomia-egoera oso zen nahasia eta Marokorekin gerran zegoen, Africako iparraldean gertatzen zirelarik gerra-ekintzak (1858-1861). Horiek horrela, garai hartan gazte askok hartu zuten Ameriketarako bidea, besteak beste, soldaduzkari ihes egin nahirik, foruen indargabetzearen ondorioz jada derrigorrezkoa zena; edo baserriari zama kentzeko; edo besterik gabe, aberastasunen bila.

Valentinek ere Americara emigratzea erabaki zuen, baina ez zen abantaila makala bere anaia Esteban han bizi izana sei urte lehenagotik, eta haren harrera eta babesa bermatuta zituela.

1859an abiatu zen Mexicorantz. Veracruzeko portura iritsi eta Esteban bere anaiarekin aurkitzekotan zen San Luis Potosín, non hark errementaritza-lantegia zuen. Mexicora iristean, 1821etik Espainiatik independente zena, nazioa berreraikitzeari aurre egin beharrean ziren, ekonomiaren egoera zaila zen, eta politika-giroa oso ezegonkorra. Gero barne-gerrak nozitu izan beharko zituzten, eta baita frantziarren inbasioa ere, Habsburgoko Maximiliano enperadore austriarra ezarri zietelarik (1863-67).



Empresa de los Elkoro en México / Elkorotarren enpresa Mexicon

En dos años, a pesar de esta situación conflictiva, los dos hermanos Elcoro fueron haciendo un nombre y aumentando su negocio, gracias a su ingenio y arduo trabajo. Sobre 1861 los Elcoro toman la decisión trascendental de dar el salto comercial a la Capital de México, instalando un depósito de hierro y una fábrica de carruajes. Pronto Valentín tomó legalmente las riendas del negocio bajo la razón social de "Elcoro y Compañía", siendo socios ambos hermanos. Y también siguen manteniendo una sucursal en San Luis Potosí.

En 1882 los Elcoro amplían la sociedad con otros accionistas, sobre la base de la solidaridad familiar y el paisanaje, formando la "Sociedad Elcoro, López y Cía" con giro al ramo de ferreterías y manteniendo un 60% de las acciones.

Para esta nueva empresa importan hierro y otros metales, productos ya diseñados o construidos, que promoverían el negocio de herrería y sus complementos en la construcción y el característico de la carrocería (ejes, ruedas, cadenas, asientos…).

Sin duda, su empresa más emblemática fue la fabricación de carrocerías (carruajes, carretas, y todo tipo de vehículos de tracción animal), emergiendo con fuerza y desplazando a otras fábricas del ramo. Tuvo éxito porque en aquella época era el medio de transporte principal, pero sobre todo por la gran adaptación a los muchos modelos y según los pedidos específicos de clientes extendidos por todo el país (industria, minería, haciendas). Para su fabricación se sirvió de los vínculos comerciales con Estados Unidos y Europa, importando innovación tecnológica y modernas máquinas, pero también registró sus propias patentes innovadoras de carruajes.

Valentineren argazkia / Foto de Valentin

Egoera nahaspilatsu hau gorabehera, Elcoro bi anaiek, euren argitasunean eta lan eskergan oinarrituta, bi urtean zehar izen bat lortu zuten eta negozioa handiagotuz joan ziren. 1861 urtea izango zen Elcorotarrek haraindiko erabakia hartu zutena, Mexicoko Hiriburura jauzi egitearena alegia. Han jarriko zuten burdina-gordetegi bat eta zalgurdiak egiteko lantegia. Laster Valentinek hartuko zuen negozioaren legezko buruzagitza, "Elcoro y Compañia" enpresa-izena emanez, non bi anaiak ziren bazkide. Horretaz gain, San Luis Potosiko sukurtsala ere mantenduko dute.

1882an sozietatea akziodun gehiagori ireki zieten, senitartekoen arteko elkarkidetasuna eta herritartasuna izan zutela oinarri. Horrela sortuko zen "Sociedad Elcoro, López y Cía", burdindegien arlora jo zutelarik akzioen % 60a mantenduz.

Enpresa berri honetarako burdina eta beste metal batzuk inportatzen dituzte, jada diseinatutako eta landutako produktuak, errementaritza eta orgen eraikuntzarako osagaien negozioa sustatuko zutenak (ardatzak, gurpilak, kateak, jarlekuak…).

Inolako zalantzarik gabe, enpresarik entzutetsuena gurdigintza izan zen (zalgurdi, orga, eta abereek tiratutako edozein ibilgailu mota), indar handiz agertu eta konpetentziako fabrikak ordezkatzea lortu zutelarik. Arrakasta erdietsi zuten sasoi hartan garraiobide nagusia zelako, baina batik bat, eredu anitzeko ekoizpenak eginez estatu osora zabaldutako merkaturen (industria, meatzaritza, nekazaritza) eskakizun berezietara bete-betean egokitzen asmatu zutelako. Ekoizpenerako Estatu Batuetako eta Europarrekin egindako merkataritza-loturak baliatu zituzten, hango berrikuntzak eta makina berriak ekarriz; baina baita ere, zalgurdiak egiteko beraiek sortutako patente berriak erregistratu zituzten.

En 1879 instaló una fábrica fundidora en los arrabales de la ciudad de México, era la primera en la ciudad, y abarcaba una gran manzana, rodeada de naves, con un frente de muchos metros, con variedad de talleres y patios interiores, e incluso un frontón de pelota. En ella se elaboraba una amplia gama de productos (varillas, viguetas, tornillos, clavos, herrajes, escaleras mecánicas, trilladoras, norias…). (Ver imagen).

Un complemento de esta fundidora como manufactura de productos fue su comercialización en un importante centro de la ciudad de México y otro en San Luis Potosí (1881) con la venta de productos varios de hierro (clavos, tornillos, limas, alambres, barras, herrajes, telas metálicas, martillos, carretillas, y muchos más productos) para clientes privados y sobre todo para instituciones gubernamentales. Una buena parte de los ingresos de este negocio provenía de máquinas importadas de países extranjeros para vender a otras empresas.

También instalan una mercería, más asociada al ramo de la papelería u otros giros (tinteros, pizarras, plumillas, todo tipo de papeles, cartones…).

Este avance empresarial de los Elcoro coincidió con los muchos años de gobierno de Porfirio Díaz (1876-1911). Su lema de gobierno era orden y desarrollo para conseguir el avance económico y la modernidad del país, y los empresarios emprendedores se vieron especialmente favorecidos. En este tiempo con la intervención estatal se diversificó la economía con el desarrollo de industrias, la construcción extensiva de vías de comunicación (ferrocarriles, teléfonos, telégrafos), la urbanización y crecimiento de las ciudades (nuevas edificaciones con hierro, drenajes, rejas, tuberías de metal para la conducción de aguas…)

En este contexto Valentín tenía negocios propios –como socio mayoritario o gerente-, compartidos con parientes y amigos al 50% del capital. Pero también, desde los años 1896 en adelante, hizo inversiones, con visión y audacia, hacia otros ramos muy diversos y algunos desconocidos: "Compañía Industrial de Cemento Privilegio, S.A." (8 % del capital), "Negociación Agrícola de Xico, S.A." (5% del capital), "El Progreso Industria Papelera, S.A." (12% del capital). "Banco de Londres y México" (2% del capital), "Compañía Minera S.A." (5% del capital), "La Cruz Blanca Cervecera". En estas empresas siempre ocupó cargos en los Consejos de Administración.

Con los negocios en auge, llevó una intensa vida social en la capital de México, participando en numerosas asociaciones filantrópicas (beneficencia y educativas) y ejerciendo como presidente del Casino Español (1905-1913). Este Casino era un lugar selectivo que relacionaba a la élite económica y política del país, y permitía entrar en un círculo de influencias.

1879an galdategi-fabrika bat ipini zuten Mexico hiriaren aldirian, lehenbizikoa zen hiri hartan, eta egundoko etxadi oso bat hartzen zuen, industria-nabez inguratuta, metro askotako aurrealdea eta era askotako lantegiak eta patioak zituelarik, pilotaleku eta guzti. Eraikuntza hartan era askotako ekoizpenak egiten ziren (hagaxkak, habexkak, torlojuak, iltzeak, ferrak, eskilara mekanikoak, gari-jotzeko makinak, noriak…). (Ikus irudia).

Produktuen ekoizpenerako galdategi honen osagarri moduan, Mexicoko hiriguneko erdi-erdian kokatutako salmenta-gune garrantzitsu bat jarri zuten, eta beste bat San Luis Potosin (1881). Burdinaz egindako era guztietako ekoizpenak zituzten salgai: iltzeak, torlojuak, limak, alanbreak, burdinagak, burdineriak, metalezko ehunak, mailuak, orgatilak, eta bestelako produktu ugariak. Bezero pribatuentzat, eta batez ere gobernuaren menpeko erakundeentzat egiten zuten lan. Diru-sarreren zati esanguratsu bat atzerritik ekarri eta beste enpresei saldutako makinetatik ateratzen zuten.

Mertzeria bat ere jarri zuten, gehienbat papergintzako arlora emana (tintontziak, arbelak, luma-muturrak, era guztietako paperak, kartoiak…).

Elcorotarren enpresen aurrerapen hau Porfirio Diazen (1876-1911) urte askotako gobernuarekin bat etorri zen. Haren gobernuaren goiburua ordena eta ekonomia-aurrerapena izan ziren, herriaren modernitatea eta garapena lortzeko balio izango zutenak; gauzak horrela, enpresari ekintzaileentzat bereziki mesedegarria izan zen. Garai horretan estatuaren partehartzerekin ekonomia dibertsifikatu egin zen, industria berriak garatu ziren, komunikabide berriak (trenbideak, telefonoak, telegrafoak) hedatu eta eraiki ziren, urbanizatzeak eta hirien hazkuntzak baliabide ugari eskatu zituzten; hala nola, eraikuntza berrietan burdina erabiltzea, drainatzeak, burdin-hesiak, urak eramateko metalezko hoditeriak…).

Testuinguru honetan Valentinek bere negozio propioak zituen -akzioen gehiengoa duen bazkide gisa edo kudeatzaile moduan- askotan senitartekoekin edo lagunekin % 50ean partekatuak. Horrezaz gain, 1896tik aurrera, etorkizun-sen eta ausardia handia erabilita, inbertsio berriak egin zituen beste hainbat arlotan, eta horietako batzuk ezezagunak: "Compañía Industrial de Cemento Privilegio, S.A." (kapitalaren % 8a); "Negociación Agrícola de Xico, S.A. (kapitalaren % 5a); "El Progreso Industria Papelera, S.A." (kapitalaren % 12a); "Banco de Londres y México" (kapitalaren % 2a); "Compañía Minera, S.A." (kapitalaren % 5a); "La Cruz Blanca Cervecera"; enpresa hauen guztien administrazio-kontseiluetan aginte-karguak bete zituen.

Negozio hauek denak goi mailan zeudela, Mexikoko hiriburuko gizarte-giroan erabat murgilduta bizi izan zen, hainbat filantropia-elkarteetan (ongintzakoak eta irakaskuntzakoak) parte hartu zuen, eta Casino Españoleko presidente era izan zen 1905etik 1913ra. Casino hau oso biltoki hautatua zen, ekonomia- eta politika-arloetako eliteko jendea harremanetan jartzen zuena, eta itzal handiko zirkuluetan sartzea ahalbideratzen zuena.

En varias ocasiones volvió desde México para visitar Angiozar, su lugar de nacimiento. Y colaboró con su familia y con ayudas económicas en mejoras del barrio. Al menos se conoce la ayuda de 7.000 pts. para la canalización de agua potable en 1913.[26]

En agradecimiento a estas ayudas se le concedió enterrar a su madre en un nicho interior de la iglesia parroquial de San Miguel. En una placa está inscrito: "Aquí yacen los restos mortales de Dª Agustina Aldecoa. Falleció el 8 de marzo de 1890. Su hijo Valentín Elcoro costeó esta urna para eterno recuerdo de su grata memoria. Año 1911. R.I.P.".[27]

[26] AME / EUA (Actas Municipales del 23 octubre de 1913).
[27] Ver más información en Zarauz, Hector Luis: "Valentin Elcoro e Hijos. Historia de una vida empresarial". Mexico. A/Editores, 2013

Zenbait aldiz itzuli zen Mexicotik Angiozar, bere jaioterria, bisitatzera. Familiari lagundu zion eta auzoan hobekuntzak egiteko diru-laguntzak eman zituen. Gutxienez ezaguna da 1913an 7.000 pezeta eman zituela ur edangarria etxeetara bideratzeko.[26]

Laguntza hauek eskertu nahirik Angiozarko San Migel parrokiaren barruko horma-hobi baten bere ama hilobiratzeko baimena ema zioten. Hango plaka baten honakoa dago idatzita: "Aquí yacen los restos mortales de Dª Josefina Aldecoa. Falleció el 8 de marzo de 1890. Su hijo Valentín Elcoro costeó esta urna para eterno descanso de su grata memoria. Año 1911. R.I.P.".[27]

[26] EUA (1913ko urriaren 23ko Udal-Agiriak)
[27] Ikus Zarauz, Hector Luis: "Valentin Elcoro e Hijos. Historia de una vida empresarial". Mexico. A/Editores, 2013

Relato de una emigrante trabajadora de hogar y que termina siendo una importante industrial editora e impresora.

Zoila Ascasibar Artola nació en Elgeta (Gipuzkoa) el 27-06-1877 y murió en Madrid sobre el año 1949.

Sus padres fueron Miguel Simón Ascasibar Elcoro (nacido el año 1839 en Angiozar y fallecido en 1888 en Elgeta) y Mª Bautista Antonia Artola Odriozabala (nacida en 1840 en Alegia y fallecida en 1895 en Elgeta).

Se casaron en la iglesia parroquial de Angiozar (1863), y tuvieron seis hijos/as: María Jesús, José Venancio, Eladia Claudia, Justa, María Josefa y Zoila. Todos ellos están bautizados/as en la iglesia parroquial de Angiozar, y solo Zoila, la más pequeña, en la iglesia parroquial de Elgeta. (Ver genealogía Anexo XI)

Al nacer Zoila ya la familia había cambiado de residencia del barrio de Angiozar al núcleo de la villa de Elgeta. En el caserío Migelena de Angiozar sus abuelos paternos tuvieron un taller textil familiar, y lo continuaron sus padres en el mismo lugar, y así seguirán con la profesión de tejedores al residir en Elgeta desde 1876. La tejería era una labor artesanal muy apreciada y con cierta remuneración económica para poder subsistir una familia. En esta artesanía se seguía un proceso complicado y laborioso, pero no requería estructuras complejas. Además de la lana se utilizaba el lino, y era frecuente que los tejedores cultivaran la sembrada de la linaza y su recogida hasta la confección de las telas.

Una revista de la imprenta / Inprimetiago aldizkaria

Neskame joan eta argitaratzaile eta inprimatzaile garrantzitsu bihurtu zen emigratzaile baten kontakizuna.

Zoila Ascasibar Artola Elgetan jaio zen 1877ko ekainaren 27an eta Madrilen hil zen 1949 urtearen inguruan.

Haren gurasoak izan ziren: Migel Simon Ascasibar Elcoro (1839an Angiozarren sortu eta 1888an Elgetan zendua) eta Mª Bautista Antonia Artola Odriozabala (Alegian jaioa 1840an eta Elgetan hildakoa 1895an).

Angiozarko parrokia elizan ezkondu ziren 1863an eta sei seme-alaba eduki zituzten: Maria Jesus, Jose Venancio, Eladia Claudia, Justa, Maria Josefa, eta Zoila. Denak ere Angiozarko parrokian bataiatuak, Zoila, txikiena, izan ezik; hau Elgetan bataiatu baitzuten. (Ikus XI. Eranskineko genealogia)

Zoila jaio zenerako familia alde egina zen Angiozar auzotik Elgetako kalean bizitzera. Angiozarko Migelena baserrian haren aitaren aldeko aitajaun-amandreek familiako ehungintza-lantegi bat jarri zuten eta gurasoek ere hantxe jarraitu zuten. 1876an Elgetara joan zirenean ere ehule izaten segituko zuten. Ehungintza orduan artisau-lan oso preziatua zen, eta familia bat mantentzeko besteko diru baliabideak sortzeko gauza zena. Eskulan honetan prozedura zail et neketsua jarraitu behar zen, baina ez zuen eskatzen egitura konplexurik. Artileaz gain lihoa ere erabiltzen zuten, eta ohikoa zen ehuleek lihoaren langintza osoa hartzea beren gai, hazia erein eta uzta biltzetik ehungintzaraino.

Zoilaren argazkia / *Foto de Zoila*

Los padres de Zoila fallecen en Elgeta, su padre en 1888 y su madre en 1895. Después de la muerte de la madre, se trasladó a Madrid, donde vivían dos hermanas, Eladia Claudia y María Josefa. De hecho en un censo de Madrid de 1900 su hermana Eladia Claudia figura residiendo desde los últimos dieciseis años.

En Madrid ejerció el servicio doméstico en la casa del periodista Manuel Alhama Montes, editor de la revista ilustrada "Alrededor del mundo", y que más tarde, sobre 1908, fundará una Imprenta.

El editor muere pronto y su imprenta pasa por varias manos. Entre los años 1905 a 1925, Zoila figura en el censo municipal de Madrid con la profesión de "jornalera", o posible trabajadora de la imprenta, localizada en la calle Martín de los Heros, nº 69.

En algún momento entre 1908 y 1923 se casó con Maríano Gracia Gracia que formaba parte del personal de la imprenta. No se conoce descendencia directa.

Desde 1924 aparece con su nombre al pie de imprenta de textos de la época, y al año siguiente en el padrón municipal como "industrial". En ese momento es ya dueña de su propia editorial e imprenta, con la denominación de "Zoila Ascasibar y Cia.". Y consta que en 1930 trabajaban en ella 40 personas, con material de impresión moderno, de día y noche, excepto los domingos.

Entre las revistas que imprimirá y editará durante los años 20 y los 30 hasta el estallido de la última guerra, hay títulos de todo signo político pero también revistas de arquitectura, finanzas, filosofía, eróticas, cómico-satíricas, industriales, de medicina o de toros, por poner solo unos ejemplos.

Desde que fue tomada Madrid en marzo de 1937 por los sublevados, no se vuelve a publicar nada con el pie de imprenta de "Zoila Ascasibar". Solo conocemos una ficha del Centro Documental de la Memoria Histórica de Salamanca en la que aparece así identificada: "Propietaria de una imprenta. Persona simpatizante de la República".

Zoilaren gurasoak Elgetan hil ziren, aita 1888an eta ama 1895ean. Ama zendu zenean Madrilera joan zen, non bizi ziren Eladia Claudia eta Maria Josefa ahizpak. Horrela azaltzen da 1900eko Madrileko erroldan, zeinetan esaten den Eladia Claudia han bizi zela azken hamasei urtetan.

Madrilen Manuel Alhama Montes kazetariaren etxean neskame lanak egingo ditu. Hau "Alrededor del Mundo" irudidun aldizkariaren editorea zen, geroago, 1908 urtearen inguruan, inprimategi bat sortuko zuena.

Argitaratzailea laster hil zen eta inprimategia eskuz aldatu zen zenbait aldiz. 1905etik 1925era doan tartean Madrileko udal-erroldan Zoila "soldatapeko" lanbidea duen legez ageri da, seguru asko inprimategiko langile zen, Martin de los Heros, nº 69 kalean kokatuta zegoena.

1908tik 1923ra doan tarteko uneren baten Mariano Gracia Graciarekin ezkondu zen, hau inprimategiko langileen artekoa zen. Ez dago inon jasota zuzeneko ondorengorik izan zuten.

1924tik aurrerantz garai hartako testuetan bere izena azaltzen da inprimategiaren datuetan, eta hurrengo urtean Madrilgo udal-erroldan "industriari" moduan ageri da. Une horretan bere argitaletxe eta inprimategiaren jabe da, "Zoila Ascasibar y Cia." duela izena. Jasota dago 1930an 40 behargin zituztela bertan, inprimatzeko material eguneratuak erabilita egunez eta gauez aritzen omen ziren, igandeetan izan ezik.

XX. mendearen 20 eta 30 hamarkadetan, gerra zibila piztu zen arte, editatu eta inprimatuko dituen aldizkarien artean aukera politiko anitzekoak daude, eta gaiak ere oso ugariak: arkitektura, finantzak, filosofia, erotikoak, komiko-satirikoak, industriagintza, medikuntza edo zezenak; adibide batzuk jartzeagatik. 1937ko martxotik aurrerantz, jada Madril hartuta, ez da ezer argitaratuko Zoila Ascasibarren inprimategiaren datuekin. Ezagutzen dugun datu bakarra da Salamancako Oroimen Historikoko Dokumentu- Zentroko fitxa bat, non honela identifikatzen duten: "Inprimategi baten jabea. Errepublikaren aldekoa".

Relato de una emigrante trabajadora de hogar, que se hace monja y muere asesinada en la encrucijada de la última guerra.

Zenona Aranzabal Barrutia nació en el caserío Iturri de Elgeta el año 1878 y murió en Madrid el año 1936. Sus padres fueron Francisco Ramón Aranzabal Aranzabal y Mª Josefa Cristina Barrutia Telleria, casados el año 1864 en Elgeta.
Tuvieron ocho hijos/as: José Modesto, María Hilaria, José María, Mª Dominica, Mª Josefa, Zenona, José Julián, Mª Juana Aranzabal Barrutia. (Ver genealogía Anexo XII)

Zenona sobre los veinte años de edad se trasladó a Bilbao para prestar un servicio doméstico, posiblemente ayudada por su hermana Mª Josefa, que ya vivía en esa ciudad y en la que moriría en 1898.

Allí ingresó en el convento de las Adoratrices de Bilbao, que ya estaba instalado desde 1884. Esta Congregación se denomina "Adoratrices Esclavas del Santísimo Sacramento y de la Caridad" (A.A.S.C.), y fue fundada en Madrid el año 1856 por Santa Micaela del Sacramento. Su función social inicial fue "liberar y promover a la mujer explotada por la prostitución o víctimas de otras situaciones que la esclavizan". Al implantarse el régimen franquista también se le encomendó la custodia de mujeres presas en las cárceles.

Zenona al entrar en la Congregación adoptó el nombre de Hermana Borja de Jesús.

Calle Costanilla de Madrid / Madrilgo Costanilla kalea

Neskame joan eta moja bihurtu ondoren azken gerratearen segadetan eraila gertatu zen emigratzaile baten kontakizuna.

Zenona Aranzabal Barrutia Elgetako Iturri baserrian sortu zen 1878an eta Madrilen hil 1936 urtean.
Haren gurasoak Francisco Ramon Aranzabal Aranzabal eta Maria Josefa Cristina Barrutia Telleria izan ziren, Elgetan ezkonduak 1864an.
Zortzi seme-alaba eduki zituzten: Jose Modesto, Maria Hilaria, Jose Maria, Maria Dominica, Maria Josefa, Zenona, Jose Julian, eta Maria Juana Aranzabal Barrutia.(Ikus XII. eranskineko genealogia)

Zenona, hogeiren bat urte zituela, Bilbora joan zen neskame lanak egitera, seguru asko bere ahizpa Maria Josefaren babespean, hau hiri hartan bizi baitzen ordurako, eta han hilgo zen 1898an.

Bilboko Adoratzaileen komentuan sartu zen, 1884tik han jarrita zegoena. Kongregazio honen izena da: "Adoratrices Esclavas del Santísimo Sacramento y de la Caridad" (A.A.S.C.). Madrilen sortu zuen 1856an Santa Micaela del Sacramentok. Hasierako gizarte-helburua honakoa izan zen: "prostituzioaren menpe eroritako edo bestelako egoeretan esklabu bihurtutako biktima emakumeak jaso eta sustatzea". Erregimen frankista ezarri zenean kartzeletan preso zeuden emakumeen zaintzeko ardura ere eman zieten.

Zenonak kongregaziora sartu zenean Borja de Jesus Ahizpa izena hartu zuen.

Zenonaren argazkia / *Foto de Zenona*

Cuando se inicia la Rebelión Militar de 1936, Madrid se mantiene fiel a la Republica, y son persistentes los ataques de los rebeldes para tomarla y muchos los bombardeos. En ese momento nuestra elgetarra con 58 años residía en el convento madrileño de las Adoratrices. Ante la tensa situación ciudadana, las monjas abandonan el convento, y se refugian en casas particulares. Pero muy pronto un grupo de ellas se agrupa en un piso de la calle Costanilla. Zenona renuncia al refugio ofrecido por unos parientes y se aloja también en ese piso.

A los tres meses fueron detenidas y fusiladas un grupo de 23 hermanas adoratrices, entre ellas la Hermana Borja, por personas afines a la República, en las tapias del cementerio de la Almudena (09-11-1936).

Estas monjas adoratrices fueron beatificadas como mártires, junto a otras 498 personas asesinadas, el 28-09-2007, siendo papa Benedicto XVI, y posteriormente enterradas en el Valle de los Caídos (Capilla del Pilar). En aquella exaltación a los altares no estaban los miembros de la Iglesia que habían sido asesinados a manos de los sublevados franquistas

1936ko Militar-Altxamendua hasi zenean, Madrilek Errepublikaren alde jarraitu zuen, eta etengabekoak izan ziren errebeldeen erasoak eta bonbardaketak. Garai hartan gure elgetarra, 58 urte zituela, Madrileko Adoratzaileen komentuan bizi zen. Herriak bizi zuen une larria zela eta, mojek komentutik atera eta etxe partikularretan bilatu zuten babesa. Baina, berehala, haietako talde bat Costanilla kaleko etxebizitza batera bildu zen. Zenonak uko egin zion senitarteko batzuk eskaini zioten babesari eta pisu horretara jo zuen.

Handik hiru hilabetera, Errepublikaren aldekoek atxilotu eta fusilatu egin zituen Almudenako hilerriaren hormetan 23 Adoratzailek osatutako talde bat, haien artean zegoela Borja Ahizpa ere. (1936-11-09)

Moja adoratzaile hauek, beste 498 pertsonekin batera, martiri gisa, dohatsu aitortu zituzten 2007ko irailaren 28an, Benedikto XVI aitasantu zela, eta gero Erorien Haranean hilobiratu, Pilarearen kaperan. Aldareetarako goresmen haietan ez ziren aintzat hartu altxatu frankisten eskutan erahilak izan ziren Elizaren kideak.

18. JORGE ITURRICASTILLO ARANZABAL

Relato de un sacerdote asesinado en la última guerra, que no tuvo el reconocimiento de la Iglesia Institucional.

Jorge Iturricastillo nació en 1902 en el caserío San Juan (Elgeta) y murió asesinado el 8 de noviembre de 1936 en Oiartzun. Sus padres fueron: Lorenzo Iturricastillo Irazabal (Elgeta, 1864/†1938) y Sotera Aranzabal Albistegui (Elgeta, 1873/†1951), casados en Elgeta en 1894. Tuvieron siete hijos/as. (Ver genealogía en Anexo XIII).

Jorge estudió en el Seminario de Vitoria-Gasteiz y allí fue ordenado sacerdote.

Al estallar la última guerra era cura ecónomo de Marín (barrio de Eskoriatza). En tal cargo ejercía de sustituto o coadjutor de las funciones del párroco de Eskoriatza, dada la necesidad de atender esta anteiglesia, distante del núcleo de la villa.

Con el alzamiento militar de julio de 1936, los sublevados consiguen ocupar casi todo Gipuzkoa en unos tres meses. Estabilizado el avance en septiembre, el frente de la guerra se situaba en la zona de Gatzaga y Marín, en donde vivía Jorge, con su hermana Juana.

Detenido el 1 de noviembre en Marín, fue llevado a la cárcel de Ondarreta (Donostia), y el día 8 de ese mes fue sacado para ser fusilado con otras personas en la carretera de Artikutza (Oiartzun).


Iturricastillo Aranzabal Jorge
Natural de Elgueta (Guipuzcoa)
Hijo de Lorenzo y Sotera
Edad 34 años
á disposicion del Sr. Juez Militar
ocurente con orden del mismo.
Ayorga el 2 de noviembre 1936
Salida en 8-11-36

Notificación de entrada a la cárcel / Gartzelara sartzeko jakinarazpena

18. JORGE ITURRICASTILLO ARANZABAL

Azken gerratean erahildako apaiz baten kontakizuna, Erakundetutako Elizaren aitorpenik jaso ez zuena.

Jorge Iturricastillo Aranzabal 1902an jaio zen Elgetako San Juan baserrian eta Oiartzunen erahil zuten 1936ko azaroaren 8an. Haren gurasoak izan ziren: Lorenzo Iturricastillo Irazabal (Elgeta, 1864/†1938) eta Sotera Aranzabal Albistegi (Elgeta, 1873/†1951), Elgetan ezkonduak 1894an. Zazpi sema-alaba izan zituzten. (Ikus XIII. eranskineko genealogia).

Jorgek Gasteizko Seminarioan ikasi zuen eta hantxe apaiztu zuten.

Azken gerratea sortu zenean Eskoriatzako Marin auzoan zegoen abade ekonomo. Kargu horretan ziharduen Eskoriatzako erretorearen ordezkari eta laguntzaile gisa; izan ere, kaletik hain urrun egoteagatik halakoxea baitzen elizate horrek zuen beharrizana.

1936ko militarren altxamendua sortu zelarik, matxinatuek ia Gipuzkoa osoa hartu zuten hiru bat hilabetetan. Hala ere, irailean aurrerabidea geratu egin zenean, gerraren frontea Gatzaga eta Marin inguruan zegoen kokatuta, eta hantxe bizi zen Jorge bere arreba Juanarekin.

Marinen hartu zuten atxilo azaroaren lehenean eta Donostiako Ondarretako kartzelara eraman zuten, eta hil horren 8an atera egin zuten beste lagun batzuekin batera eta Oiartzungo Artikutzako bide ertzean fusilatu egin zuten.

Jorgeren argazkia / *Foto de Jorge*

Jorge es encarcelado por los rebeldes franquistas, y sin juicio previo, termina asesinado. En la ficha de ingresos en la cárcel no aparece ninguna inculpación. Más bien, parece que la denuncia estuvo relacionada con la venganza de un vecino, que tenía una tienda en la anteiglesia de Marín, y Jorge había montado otra para sus feligreses del lugar, con la intención de así poder abaratar los productos y no tener que desplazarse lejos.

La situación eclesial en aquel momento tenía este contexto:

Al iniciarse la guerra, la Diócesis de Gasteiz integraba a las tres provincias vascongadas, y su Obispo, Mateo Múgica, con tendencia anterior antirepublicana, declara la ilegitimidad de la insurrección y el empleo de la fuerza. Por su actitud crítica es desterrado y exiliado en Francia, desde donde denuncia los asesinatos del clero vasco.

Los Golpistas se presentan como los defensores de la Religión Católica y de la Unidad de España, e instauran unos Tribunales Judiciales que legalicen el terror. Si este genocidio de lesa humanidad se extendió a muchas víctimas individuales y colectivas, tampoco les impidió actuar contra el poderoso estamento clerica

Estos Tribunales Judiciales, con sus decisiones, se ensañan con estos curas o frailes: porque son "nacionalistas vascos", que incitan a la ruptura de la Unidad de España; o porque ejercen el ministerio pastoral en vascuence; o porque auxilian a la "Rebelión", que en realidad era la defensa del Gobierno legítimamente constituido, y de modo especial fueron penados los capellanes de Gudaris en el bando republicano.

La magnitud de la represión acontecida tiene nombres propios y estos datos: diecisiete sacerdotes asesinados, y tres muertos en la cárcel; tres condenados a muerte (no ejecutados); quince sentenciados a cadena perpetua; otros muchos más condenados desde veinte años a un año de prisión; y unos ochocientos, exiliados en el interior peninsular o por el mundo. Todos estos sacerdotes eran tanto del clero secular como regular de la diócesis de Vitoria-Gasteiz.

En esta represión del clero participó activamente, por no condenarla, la mayoría de la Iglesia Institucional, y detrás de esa mayoría el Vaticano.

Al inicio de la contienda, Pio XI, ya enfermo, se muestra ambiguo y expectante, aunque hace una protesta por el fusilamiento de los curas vascos e incluso reparte algún donativo a los muchos emigrados vascos en Francia. Lo cierto es que, en junio de 1937, reconoce al Régimen de Franco. Y en julio de 1937 se publicó la "Carta del Episcopado Español" en defensa de la Cruzada franquista, con la excepción de solo seis obispos (Múgica, Segura, Vidal, Torres, Irastorza y Guitart).

Francozale matxinatuek hartu zuten preso Jorge eta, inolako epaiketarik egin gabe, erahil egingo dute. Espetxeko sarrera-fitxetan ez dago adierazita inolako erruztapenik. Badirudi salaketak auzokide baten mendekuarekin izan zuela zerikusia; izan ere, auzokide horrek denda omen zuen Marinen, eta Jorgek beste bat jarri omen zuen, horrela generoa merkeago jarrita, eliztarrek modu hobean erosteko aukera izan zezaten urrun joan beharrik izan gabe.

Garai hartako elizaren egoera honela laburbil daiteke:

Gerratearen hasieran Gasteizko Elizbarrutiak Euskadiko hiru probintziak hartzen zituen, eta Mateo Mugicak, gotzain zenak, aldez aurretik errepublikaren aurkako iritziak agertu zituenak, altxamenduaren eta indarkeriaren erabileraren legitimotasunik eza aldarrikatu zuen. Jarrera kritiko hau zela eta, Frantziara erbesteratu zuten, eta handik salatu zituen euskal apaizek jasandako erailketak.

Kolpistak Erlijio Katolikoaren eta Espainiaren Batasunaren aldekotzat zuten bere burua, eta Auzitegi bereziak ezarri zituzten izu-ikara legeztatuko zutenak. Genozidio eta jazarpen honek, era askotako norbanako eta talderen aurka jarduteaz gainera, eliz gizon eta emakumeak ere hartu zituen begitan.

Auzitegi hauek, hartutako erabakiekin, anker jokatu zuten apaiz eta fraideen aurka, "euskal abertzaleak" zirelako; edo Espainiaren Batasuna haustea bultzatzen zutelako; edo pastoralgintzako zerbitzuak euskaraz ematen zituztelako; edo "matxinada" laguntzen zutelako, benetan legezkotasun osoz eratutako gobernu baten aldekoak zirenean, eta bereziki zigortuak izan ziren Errepublikaren aldeko gudarien kapilauak.

Pairatutako errepresioaren ankerkeriak izen eta abizenak eta datu zehatzak ditu: hamazazpi abade erail, beste hiru kartzelan hildakoak; hiru heriotzera zigortuak (ez hilaraziak); hamabost biziarteko kartzela-zigorrera kondenatuak; beste asko hogei urtetik hasi eta urtebeteko gartzela-kondena izan zutenak; eta zortziehun inguru penintsula barrura edo urrunago deserriratuak. Abade hauek guztiak Gasteizko elizbarrutiko elizgizon sekular edo erregularrekoak izan ziren.

Apaizek jasandako errepresio honetan, ez gaitzesteagatik, zuzenean parte hartu zuen erakundetutako elizaren gehiengoak, eta gehiengo horren atzetik Vatikanoa bera zegoen, babesle gisa.

Borrokaldiaren hastapenean, Pio XI.a, jada gaixorik, epel eta zalantzati agertu zen, baina hala ere, gaitzetsi egin zuen euskal apaizak fusilatu izana, eta horrez gainera diru apurren bat ere banatu zuen Frantziara ihes joandako emigratzaile euskaldunen artean. Hala eta guztiz ere, 1937ko ekainean Francoren erregimena aintzatetsi zuen. Eta 1937ko uztailean argitaratu zen "Carta del Episcopado Español" delako dokumentua, non gurutzada frankistari babesa ematen dioten. Sei izan ziren kanpo geratu ziten apezpikuak: Mugica, Segura, Vidal, Torres, Irastorza eta Guitart.

A los dos años es elegido Pio XII y desde entonces el apoyo y la bendición al Régimen de la Cruzada será pleno y total. Una última bendición del Vaticano será en el año 2007 con la beatificación de 498 asesinados por el bando republicano, pero no estaban incluidos ninguno por el bando franquista. Tampoco en esa exaltación estaba Jorge Iturricastillo.

Solo es excepción el homenaje tardío a los sacerdotes vascos asesinados, celebrado en Julio de 2009 en la Catedral de Gasteiz, con la participación de los obispos de las tres diócesis vascongadas.

Handik bi urtera Pio XII.a aukeratuko dute, eta harrez gero Gurutzadaren Erregimenaren aldeko babesa eta bedeinkapena erabatekoa eta argia izango da. Vatikanoaren aldetiko azken benedikazioa 2007koa izango da, errepublikaren aldekoek eraildako 498 pertsona dohatsu aitortu zituztenean, baina frankistek hildakoak guztiz kanpo utzita. Jorge Iturrikastillo ere ez zen egon goretsitako haien artean.

Salbuespen gisa hartu behar da 2009ko uztailean, jada berandu, eraildako euskal abadeak Gasteizko katedralean jaso zuten omenaldia, Euskadiko hiru elizbarrutietako gotzainek parte hartu zutela.

Relato de una miliciana muerta en el frente de guerra

Isabel Berechinaga Garitaonandia nació en Elgeta el 19 de noviembre de 1911 y murió el 17 de noviembre de 1936.
Sus padres fueron: Pascual Berechinaga Suinaga (Bergara, 1884) y Bernarda Garitanoandia Basterrechea (Mallabia, 1889). Tuvieron nueve hijos/as. (Ver genealogía Anexo XIV)

Los padres de Isabel vivieron arrendados en una de las dos viviendas del caserío Barrenengua (barrio Egotxeaga de Elgeta), propiedad del marqués de Santa Cruz, y allí nacieron todos los hijos/as.
En el censo de 1937 tenían en el caserío 4 vacas, 3 terneras, 1 burro y 1 cerdo.

Isabel casó en Elgeta (1934) con Esteban Urizar Arrese (nacido en Elorrio, 1911, y fallecido en Eibar, 1988). Esteban vivía con sus padres y tíos en el caserío Iturbe (Elgeta), en el mismo barrio de Egotxeaga. Este caserío había sido comprado por la familia unos años antes.

Los recién casados se trasladaron a vivir a Bergara y Esteban empezó a trabajar en Altos Hornos. Al año siguiente tienen un hijo: Francisco Urizar Berechinaga (nacido en Bergara, 1935).

Al estallar la guerra el matrimonio se incorpora al Batallón Amuategui, compuesto por milicianos del Frente Popular, en su mayoría socialistas eibarreses. Dejan al hijo de poco más de un año en el caserío Barrenengua con los padres y hermanos de Isabel.

Avión atacando / Hegazkin bat erasoan

Gerrateko frontean hil zen miliziano baten kontakizuna.

Isabel Berechinaga Garitaonandia Elgetan sortu zen 1911ko azaroaren 19an eta 1936ko azaroaren 17an zendu zen. Haren gurasoak izan ziren: Pascual Berechinaga Suinaga (Bergara, 1884) eta Bernarda Garitaonandia Basterrechea (Mallabia, 1889). Bederatzi seme-alaba eduki zituzten.
(Ikus XIV. eranskineko genealogia)

Isabelen gurasoak Elgetako Egotxeaga auzoko Barrenengua baserriko bi etxebizitzetako batean bizi izan ziren errentan. Baserri hura Santa Cruzko markesarena zen eta hantxe jaio ziren haien seme-alaba guztiak. 1937ko erroldaren arabera baserrian 4 behi, 3 txahal, asto bat eta txerri bat zuten.

Isabel Elgetan ezkondu zen (1934) Esteban Urizar Arreserekin (Elorrion jaioa 1911an eta Eibarren zendua 1988an). Esteban Egotxeaga auzo bereko Iturbe baserrian bizi zen bere guraso eta osaba-izebekin. Baserri hau urte batzuk lehenago erosia zuen familia hark.

Ezkonberriak Bergarara joan ziren bizitzera eta Esteban Labe Garaietan hasi zen lanean. Hurrengo urtean semea izango dute: Francisco Urizar Berechinaga, Bergaran jaioa 1935ean.

Gerratea sortzean senar-emazteak Amuategi batailoian sartuko dira, Frente Popularreko milizianoek osatutakoan. Urtebeteko seme txikia Barrenengua baserrian utziko dute Isabelen guraso eta neba-ahizpekin.

Isabelen argazkia / *Foto de Isabel*

Isabel y Esteban, con el batallón Amuategui, están en Elgeta, defendiendo el primer ataque de los sublevados el 4 de octubre de 1936. Un ataque que se inició al amanecer y se prolongó hasta media tarde, con lo incierto del resultado del combate. A las cinco de la tarde los sublevados desisten en su ataque, retroceden y aprovechando la noche retiran algunas de sus muchas bajas. A partir de este día el frente se estabiliza y pasarán siete meses hasta la batalla definitiva con la toma de los Intxorta y la entrada en Elgeta de los sublevados.

Al mes de aquella primera batalla, en noviembre de 1936, Isabel, Esteban y otros compañeros viajaban hacia Bilbao en un autobús, seguramente para traer suministros al frente de Elgeta. En el viaje, a la altura de Elorrio, apareció un avión fascista, les dio tiempo a salir del autobús, refugiarse al amparo de algún lugar, pero una bomba impactó en el cuerpo de Isabel sin estallar. Fue llevada al Hospital Civil de Bilbao, donde a los pocos días falleció.

Esteban, su marido, siguió luchando en los Intxorta hasta su desenlace final, y después en otros lugares. Al terminar la guerra fue confinado en el campo de concentración de Castro Urdiales, después en el campo de trabajos forzados de Teruel. Logró escapar a un lugar de Valencia, y fue de nuevo capturado. Tuvo dos penas de muerte, una por miliciano y la otra por huido. Traído a Gipuzkoa estuvo varios años en las cárceles de Ondarreta y Bergara. Al quedar libre, se casó con su cuñada Josefa, se instalaron en Eibar, donde trabajó como pulidor en varias empresas. Tuvieron dos hijos, además de Francisco (Patxi) del primer matrimonio.

Este relato es excepcional, porque aúna el compromiso de un matrimonio con la Republica y el valor de una mujer, madre de una criatura de corta edad. La Segunda República supuso para las mujeres un momento histórico para propiciar su liberación e incorporarse de pleno derecho a la actividad pública en general.

Al comienzo de la última guerra cientos de mujeres, vinculadas a partidos y sindicatos de Euskadi, decidieron tomar las armas para enfrentarse a los sublevados golpistas. En juego estaban las conquistas sociales alcanzadas con esfuerzo y la esperanza de conseguir la tan ansiada igualdad negada durante tantos siglos. No obstante, en el ambiente y la ideología del campo republicano también seguía presente el discurso de la sublimación de la maternidad, sin atender al desarrollo del potencial humano de la mujer como persona, y tampoco sus derechos eran siempre respetados.

Lo cierto es que encontramos a muchas de estas mujeres gestionando parte de la ayuda al frente, participando en el sector de la producción y los servicios, colaborando en las brigadas de fortificaciones y convirtiéndose en propagadoras de ideas políticas. Pero también en la vanguardia, siendo aceptadas en igualdad de condiciones por los hombres, como compañeras ante las adversidades.

Isabel eta Esteban, Amuategi batailoiarekin batera, Elgetan zeuden 1936ko urriaren 4an altxatuek jo zuten lehen erasoari aurre egiten. Erasoaldia egunsentiarekin batera hasi eta arratsalde erdira arte luzatu zen emaitza garbirik lortu gabe. Arratsaldeko bostetan altxatuek utzi egin zioten erasoari eta atzera egin zuten. Gaua sartu zela aprobetxatuko dute eroritako ugarietako batzuk jasotzeko. Egun honetatik aurrera frontea egonkortu egingo zen eta zazpi hilabete igaroko ziren bi Intxortak hartu eta Elgetan sartu zireneko azken batailara arte.

Lehen erasoaldi hartatik hilabetera, 1936ko azaroan, Isabel, Esteban eta beste burkide batzuk Bilborantz zihoazen autobusean, seguru asko Elgetako fronterako hornigaien bila. Bidaian, Elorrio inguruan, hegazkin faxista bat azaldu zen; eta astia izan bazuten ere autobusetik irten eta hango zokoren batean gordetzeko, bonba batek bete-betean jo zuen Isabelen soinean, lehertu ez bazen ere. Bilboko Ospitale Zibilera eraman zuten eta handik egun batzuetara zendu zen.

Estebanek, haren senarrak, borrokan jarraitu zuen amaierara arte Intxorta inguruan, eta gero beste leku batzuetan. Gerra bukatuta Castro Urdialeseko kontzentrazio-esparrura sartu zuten, eta gero Teruelgo bortxazko lanetako esparru batera. Valentziako leku batera ihes egitea lortu zuen, baina berriro harrapatu egin zuten. Bi heriotza-zigor jarri zizkioten; bata milizianoa izateagatik, eta bestea ihes egiteagatik. Behin Gipuzkoara ekarrita, hainbat urte egin zituen Ondarretako eta Bergarako kartzeletan. Askatu zutenean bere koinata Josefarekin ezkonduko zen. Eibarrera joan ziren bizitzera eta bera leuntzaile aritu zen zenbait enpresetan. Bi seme-alaba eduki zituzten, lehen ezkontzako Franciscoz, Patxiz gain.

Kontaketa hau guztiz aparta da, senar-emazte batzuen Errepublikarekiko konpromisoa adierazteaz gain, ume txikiaren ama zen andre baten kemena erakusten duelako. Bigarren Errepublikak emakume askorentzat haize-aldaketa historiko bat ekarri zuen; izan ere, euren askapena sustatu eta, ekintza publiko guztietan eskubide osoz aritzeko aukera eman zieten.

Azken gerratearen hasieran ehundaka emakumek, Euskadiko alderdi politiko eta sindikatuetara elkartuak, erabaki zuten armak hartu eta matxinatu kolpistei aurre egitea, galzorian zeuden eta, eginaren eginez nekez lortutako gizarte-lorpenak, eta hainbeste irrikatu eta mendeetan zehar ukatu zitzaien berdintasuna. Hala eta guztiz ere, errepublikazaleen inguruko giro eta ideologian ere, orduko garai hartan artean amatasunaren sublimazioaren diskurtsoa indarrean zegoen, ez ziren aintzat hartzen emakumeak pertsona legez zituen ahalak, eta ez ziren ere haien eskubideak beti errespetatzen.

Egia da, hala ere, emakume ugari aurkitzen dugula fronteko laguntzaren alderdi bat kudeatzen, produkzioaren eta zerbitzuen arloan parte hartzen, gotorlekuak eratzeko brigadei laguntasuna ematen, eta ideia politikoen hedapenean ahalegintzen. Baina, baita ere, abanguardian, baldintza beren menpean gizonek onartuta, zoritxarrei aurre egin nahian lagun zituztela.

En octubre del 36 el Gobierno Vasco republicano reorganiza sus fuerzas, que eran una amalgama de milicias de diferente signo izquierdista, anarquista y nacionalista. Para ello proyecta un ejército regular disciplinado de hombres que aunase a todas las milicias. En dicha reestructuración también se pretendía desmovilizar a las mujeres con la idea de ocuparlas en tareas auxiliares o de retaguardia, para que la vanguardia pudiera mantenerse firme y combativa.

Isabel, como muchas otras mujeres, se mantiene en el frente de guerra, desoyendo y no compartiendo los decretos del gobierno para la desmilitarización femenina en la vanguardia. Es el testimonio de ese ejército de mujeres luchando junto a sus compañeros.

En su partida de fallecimiento, ocurrido en el Hospital Civil de Bilbao, el juez de instrucción la identifica claramente como miliciana.

1936ko urrian Eusko Jaurlaritza errepublikazaleak bere menpeko indarrak berrantolatu zituen, pentsamendu desberdinetako miliziaz osatuta zeudenak; hala nola, ezkertiarrak, anarkistak eta nazionalistak. Hori gauzatzeko aurreikusi zuen gudaroste erregular diziplinatu bat milizia guztietako gizonak bilduko zituena. Berrantolaketa horretako beste asmo bat zen emakumeak desmobilizatzea; horrela, hauek zeregin lagungarri edo atzealdekoetan arduratuta, abanguardia irmo eta oldarkor ager zedin.

Isabel, beste emakume asko bezala, gerraren frontean mantendu zen, emakumeak abanguardiatik ateratzeko gobernuak ebatsitako arauei entzungor eginez. Mutil-lagunekin batera borrokatu zuten emakumeek osatutako gudarostearen lekukotasuna adierazten du.

Bilboko Ospitale Zibilean gertatutako haren heriotzaren egiaztagirian, instrukzio-epaileak argi azaltzen du milizianoa zela.

20. MANUELA OCHOA DE ANGUIOAR UNAMUNZAGA

Relato de una maestra entregada a su profesión, y con un expediente de depuración franquista.

Manuela Eugenia Ochoa Anguiozar Unamunzaga nació en el caserío Garaicoetxea del barrio de Angiozar en 1882 y murió en Elgeta en 1957.
Sus padres fueron: Dionisio Ochoa Anguiozar Azcarate (nacido en Angiozar, 1850) y Josefa Unamunzaga Gacetaveitia (nacida en Elorrio, 1857), casados en Angiozar en 1877, y tuvieron seis hijos/as.
(Ver genealogía Anexo XV)

Manuela se desposó en junio de 1909 en Angiozar con Pablo Egea Abente (nacido el año 1875 en Páganos, una pequeña localidad a tres kilómetros de Laguardia). Este ejerció durante años como Secretario del Ayuntamiento de Laguardia (Araba), y de forma interina como Secretario de Elgeta entre los años 1926-27.

Manuela es de las pocas maestras nativas de Elgeta (cuando estaba incluida Angiozar), y es recordada aquí por su dedicación docente y porque en la última guerra fue depurada por un tiempo en el ejercicio de su profesión. Todos los informes que conocemos de la inspección de aquella época son en su totalidad altamente favorables, así como la evaluación de conocimiento de sus niñas en los exámenes. Dos de sus hijos, Julio y José, también ejercieron de maestros en Elgeta y otros lugares.

Manuela con alumnas / Manuela ikasleekin

20. MANUELA OCHOA DE ANGUIOAR UNAMUNZAGA

Bere lanbideari erabat emanda, baina frankisten garbiketa-espedientea izan zuen maistra baten kontakizuna.

Manuela Eugenia Ochoa de Anguiozar Unamunzaga Angiozarko Garaikoetxea baserrian jaio zen 1882an eta Elgetan hil 1957an.
Haren gurasoak izan ziren: Dionisio Ochoa de Angiozar Azcarate (Angiozarren jaioa, 1850) eta Josefa Unamunzaga Gazetabeitia (Elorrion jaioa, 1857). Angiozarren ezkondu ziren 1877an eta zazpi seme-alaba eduki zituzten. (Ikus XV. eranskineko genealogia)

Manuela 1909ko ekainean Pablo Egea Abenterekin ezkondu zen Angiozarren. Hau 1875ean jaioa zen Paganosen, Errioxako Guardia ondoko herritxoan. Urtetan aritu zen La Riojako Guardiako Udalerriko idazkari, eta bitarteko idazkari moduan Elgetan 1926 eta 1727 urteen artean.

Oso urriak dira Elgetan jaiotako maistrak eta Manuela horietako bat, eta oraindik askok gogoan du hark irakaskuntzan agertu zuen ardura, eta azken gerratean haren lanbidean aldi batez ikertua izan zelako. Ezagutzen ditugun garai hartako ikuskaritza-txostenetan beti oso emaitza bikainak ageri dira, eta egiten zaizkien azterketetan haren neskatilek erakusten dituzten ezagupenen ebaluazioa ezin hobea. Haren hiru seme, Jesus, Julio eta Jose, ere irakasle izan ziren Elgetan eta beste leku batzuetan.

Manuelaren argazkia / *Foto de Manuela*

La docencia de Manuela sigue la siguiente trayectoria: aparece en 1906 como maestra interina de niñas en el barrio de Angiozar, y al año siguiente también como interina en el núcleo de la villa de Elgeta. A partir de 1907 ejerció en algunos pueblos de Araba (Mendoza, Ekora…). Tenemos constancia de que en 1924 toma posesión como maestra propietaria en la escuela de niñas de Elgeta y allí se mantendrá hasta su jubilación en 1949.[28]

Con la última guerra se le incoa un proceso depurador. El expediente sancionador se le incoa a Manuela, maestra nacional en propiedad de Elgeta, por la Comisión de Cultura y Enseñanza de la Junta Técnica del Estado Franquista, Delegación de Gipuzkoa (8-11-1936).[29]

Este expediente está formalizado principalmente por la Alcaldía. Guardia Civil, Parroquia y Padres de Familia. A todos ellos se les pide información sobre Manuela en las siguientes cuestiones: cumplimiento de los deberes religiosos personales; conducta privada; afiliación sindical o asociación política; cumplimiento de los deberes profesionales, indicando los libros utilizados, y los métodos pedagógicos empleados; actuación durante el movimiento bélico (perseguida, actuante con los rojos y separatistas, actitud pasiva).

Como consecuencia de esos informes, y por acuerdo del Gobernador Civil, Manuela queda suspendida provisionalmente de empleo y sueldo (9-02-1937). Ante el recurso, y revisado su expediente por la Oficina Técnico-Administrativo, se le repone de nuevo en el cargo y en sus derechos (3-05-1937).

La depuración de la Enseñanza Primaria en Guipúzcoa fue especialmente elevada. De un total de 609 docentes en toda la provincia fueron expedientados 451 (74%), y de ellos 130 (28%) sancionados.

Veamos esta relación de expedientados en cifras (no está especificado el número de hombres y de mujeres, y algunos de ellos y de ellas con varias sanciones a la vez):

- Confirmación en el cargo/o en sus derechos: 337 (74%)
- Separación/Inhabilitación absoluta/Pérdida de todos los derechos adquiridos: 51 (11%)
- Suspensión o inhabilitación temporal o postergación en el escalafón: 23 (5%)
- Traslado de localidad: 56 (12%)
- Inhabilitación para cargos directivos: 4 (0'50%).[30]

[28] EUA / AME, Actas 22 agosto de 1924.
[29] AGA (Archivo General de la Administración) DD (05) 001.030. SIGNAGA 32/13223. Exp nº 12. Expediente de depuración político- social de la maestra Manuela Ochoa de Anguiozar.
[30] Ostolaza Esnal, M.: "El garrote de la depuración. Maestros vascos en la guerra civil y el primer franquismo (1936-194S)". Universidad del País Vasco, Donostia, 1996.

Manuelaren irakaskuntzak ibilbide honi jarraitu zion: 1906an Angiozar auzoko nesken bitarteko maistra gisa azaltzen da, eta hurrengo urtean ere bitarteko moduan Elgetako kalean. 1907tik aurrera Arabako zenbait herritan aritu zen. Badakigu 1924an Elgetako nesken eskolan maistra-postua jabetzan hartu zuela, eta hantxe jarraituko du 1949an erretiroa hartu zuen arte.[28]

Azken gerratean garbiketa-prozesuari hasiera eman zioten. Zigor-espedientea Manuelari irekitzen diote, Elgetako maistra nazional-postua jabetzan duenari, Estatu Frankistaren Junta Teknikoaren Kultura- eta Irakaskuntza-Batzordearen Gipuzkoako Ordezkaritzan (1936-11-8).[29]

Espediente hau nagusiki Alkatetzak, Guardia Zibilak, Parrokiak eta Familien Gurasoek gauzatua da. Hauei guztiei Manuelari buruzko informazioa eskatu zieten ondorengo gaiak argitu nahirik: erlijioarekiko betebeharrak zaintzen ote zituen; jokaera pribatua; sindikatuekiko eta alderdi politikoekiko afiliazioa; bere lanbidearen betebeharrak ondo zaintzen ote zituen, erabiltzen zituen liburuak eta pedagogia-metodoak ondo zehaztuta; gerrateko mugimenduan agertu zuen jokamoldea (jazarria, gorri eta separatistekin aritua, jokaera pasiboa).

Txosten hauen ondorioz, eta Gobernadore Zibilak hartutako erabakiaren bitartez, Manuela behin behinean lan eta soldatarik gabe utzi zuten (1937-02-9). Jarritako helegiteari erantzuna emanez, eta haren espedientea Bulego Tekniko eta Administratiboak berraztertu ondoren, zuen karguan berretsiko dute ostera ere, eskubide guztien jabe aitortuko dutelarik (1937-05-3).

Gipuzkoako Oinarrizko Heziketan gertatu zen garbiketa-prozesua bereziki handia izan zen. Probintzian guztira ari ziren 609 maisu-maistretatik 451ri (% 74) egin zioten espedientea, eta horietatik 130 (% 28) zigortu egin zituzten.

Azter ditzagun zenbakitan espedientea jasotako hauek (horietako zenbait behin eta berriz zigortuak). Arakatu dugun iturriak ez du zehazten emakume eta gizonezkoen artean.

- Euren karguetan edo eskubideetan berretsita: 337 (% 74)
- Baztertuta/ erabateko gaitasun-gabetuta/ erdietsitako eskubide guztiak galduta: 51 (%11)
- Aldi baterako zigorra edo gaitasun-gabetzea, edo lerrun-zerrendan atzeratzea: 23 (% 5)
- Herriz aldatuta: 56 (% 12)
- Zuzendaritza karguetarako gaitasun-gabetzea: 4 (% 0,50).[30]

[28] EUA / AME, Actas 22 de agosto de 1924
[29] AGA (Archivo General de la Administración) DD (05) 001.030. SIGNAGA 32/13223. Exp nº 12. Expediente de depuración político- social de la maestra Manuela Ochoa de Anguiozar
[30] Ostolaza Esnal, M.: "El garrote de la depuración. Maestros vascos en la guerra civil y el primer franquismo (1936-194S)". Universidad del País Vasco, Donostia, 1996.

En definitiva, con esta depuración se produjo la separación definitiva de la docencia y el traslado a otras localidades de 107 (23%) maestros/as. Esto unido a la ausencia de docentes nativos de la provincia, trajo consigo la cobertura con maestros/as traídos del resto de la península y afines a la ideología franquista. Esta situación se mantendrá durante años con el régimen implantado.

El proceso depurador franquista con los maestros/as fue un verdadero plan inquisitorial, no un hecho aislado y casual, apoyado en las órdenes y decretos que se publicaban en el Boletín Oficial del Estado. Fue una maquinaria con una organización centralizada y con sucursales en todas las provincias, actuando con unos principios y criterios represivos bien pensados y ejecutados con disciplina.

Con este plan deshumanizado y cruel se intentó un doble objetivo: sancionar duramente a quienes consideraba culpables de oposición a la Rebelión, y prevenir al resto de que la nueva España de los sublevados era un hecho incuestionable y no quedaba otra alternativa que unirse a ella.

Una vez instaurado el Régimen franquista, de la mano de la Institución Eclesiástica, promoverá una escuela nacional-católica con el control ideológico y religioso. En realidad, la Iglesia Católica recuperó el papel preponderante que tuvo hasta el año 1931, con la derogación de toda la legislación republicana. Ello le proporcionará considerables ventajas de tipo económico y volver a regular los valores morales y religiosos del nuevo régimen.

Azken batean, garbiketa hau zela eta, irakaskuntzatik behin betirako baztertuta, edo herriz aldatuta gertatu ziren 107 (% 23) maisu-maistra. Honi gehitzen badiogu ez zela probintzian jaiotako irakasle gehiegi, berekin ekarri zuen kanpotik etorritako maisu-maistrak etorri izana, ideologia frankistaren aldekoak zirenak. Egoera honek luze iraungo zuen, ezarri zuten erregimen hartan.

Frankismoak maisu-maistren artean egindako garbiketa benetako egitasmo inkisitoriala izan zen, ez noizbehinka hartutako erabaki isolatuetan oinarritutakoa; Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen ziren agindu eta dekretuetan sostengatua baizik. Antolakuntza zentralizatu bat zuen makinaria oso bat zen, probintzia guztietan ordezkaritzak zituena, eta ondo hausnartutako irizpide eta oinarriak diziplina osoz gauzatzen zituena.

Gizatasunik gabeko plangintza anker honekin helburu bikoitza lortu nahi izan zuten: Matxinadaren aurkako erruduntzat hartzen zituztenak gogor zigortzea, alde batetik; eta gainerakoak ohartaraztea matxinatuen Espainia berria egitate ukaezina zela, eta ez zegoela beste irtenbiderik haiekin bat egitea baino.

Behin Erregimen frankista ezarri zenean, Eliza ofizialak lagunduta, eskola nazional-katolikoa sustatuko da, horrek dakarren ideologia- eta erlijio- kontrol guztiarekin. Egia esan, errepublikarrek sortutako araudi guztia baliogabetuta, 1931 urtera arte eduki zuen osagai nagusia berreskuratu zuen Eliza katolikoak. Horrek ekonomia-arloko egundoko abantailak ekartzeaz gain, erregimen berriaren balore moral eta erlijiosoak berriro arautzeko aukera eman zion

21. FULGENCIO (MARTÍN) ELORZA LEGARISTI

Relato de un pasionista con capacidad de gestión, al que el Vaticano le encomendó como obispo una Prelatura eclesiástica en la selva peruana.

Fulgencio (Martín) Elorza Legaristi nació en el caserío Azula de Elgeta en 1899, y murió en Lima en 1966. El caserío Azula se localiza en el barrio Goimendi de Elgeta, a unos cuatro kilómetros del núcleo de la villa, y en aquellos tiempos comunicado sólo por caminos carretiles.
Sus padres fueron: Francisco Elorza Madina y Carmen Legaristi Unamuno, casados en Bergara en 1882 y tuvieron ocho hijos/as. La familia sobre 1889 vino como arrendataria desde Basalgo (Bergara) al caserío Azula, y allí nacieron los cinco últimos hijos/as. (Ver genealogía Anexo XVI)

Mapa de la Prelatura / Prelaturaren mapa

En noviembre de 1912, a los doce años, ingresó en el Colegio-Aspirantado de los Pasionistas de Gabiria, donde estudió humanidades durante cuatro años. En el último curso se ocupó preferentemente en el estudio del euskara. El Colegio estaba aislado del mundo y de la familia, incluso en las vacaciones, y solo se permitía alguna visita esporádica.

En 1916 ingresó en el Noviciado de los Pasionistas de Angosto (Villanañe-Araba), donde permaneció durante año y medio. Al tomar el hábito, como era costumbre en la Congregación, recibió un nombre nuevo para el resto de su vida: Martín del Costado de Jesús.

De ahí pasó a Castilla para estudiar Filosofía y Teología en Peñaranda de Aranda (Burgos), y toma contacto por primera vez con el suelo castellano durante tres años (1917-19). Los dos últimos años de Teología los estudiará en el convento de Deusto (Bilbao).

21. FULGENCIO (MARTIN) ELORZA LEGARISTI

Kudeaketarako gaitasuna zuen pasiotar baten kontaera, zeini Vatikanoak Peruko oihaneko Eliza-prelatura baten ardura eman zion gotzain legez.

Fulgencio (Martin) Elorza Legaristi Elgetako Azula baserrian jaio zen 1899an, eta Liman hil 1966an.
Azula baserria Elgetako Goimendi auzoan dago kokatuta, herriko kaletik lau bat kilometrora, eta garai hartan gurdientzako estrata bidezko lotura baino ez zuen.
Haren gurasoak izan ziren: Francisco Elorza Madina eta Carmen Legaristi Unamuno, Bergaran ezkonduak 1862an, eta zortzi seme-alaba izan zituztenak. Familia 1889 urtearen inguruan etorri zen Bergarako Basalgo auzotik Azula baserrira maizter moduan, eta hantxe jaio ziren azken bost seme-alabak.
(Ikus XVI. eranskineko genealogia)

Martineren irudia Elgetako Andra Mari plazan / *Imagen de Martin en la plaza de Andra Mari.*

1912ko azaroan, 12 urte zituela, Pasiotarren Gabiriako apaizgaientzako ikastetxean sartu zen eta humanitateak ikasi zituen lau urtetan zehar. Azken ikasturtean nagusiki euskara ikasteari eman zion. Ikastetxea mundutik eta familiarengandik erabat isolatua zegoen, baita oporretan ere, noizbehinkako bisitatxoren bat baino ez zen zilegi.

1916an Pasiotarren Angostoko (Villanañe-Araba) nobizio-etxean sartu eta, hantxe egongo zen urte eta erdiz. Abitua hartzerakoan, kongregazio horretan ohikoa zenez, izen berria hartu zuen geratzen zitzaion bizi osorako: Jesusen Saihetsaldeko Martin.

Handik Gaztelako Peñaranda de Duerora (Burgos) joan zen filosofia eta teologoa ikastera, eta lehen aldiz jarriko da harremanetan Gaztelako lurrekin, eta han egongo da hiru urtez (1917-19). Teologiako azken bi urteak Bilboko Deustuko konbentuan ikasiko ditu.

En julio de1924 fue ordenado sacerdote en Roncesvalles (Navarra) por el entonces obispo de Pamplona, Mateo Mugica. Y al año siguiente se le confía la dirección del Colegio-Aspirantado de Gabiria, impulsando una renovación pedagógica-docente con un programa de estudios y un reglamento, y conjugando la recia disciplina con un ambiente cordial y espiritual.

Con la llegada de la República en 1931 y el temor de expulsión de los religiosos del país, su Congregación le encarga una fundación en Francia (Tonneins/ Lot-et-Garonne). Aprovechando el ambiente distendido de esta gestión tomó contacto por primera vez con el extranjero y el aprendizaje del francés. De allí pasó al convento de Deusto de Bilbao, y se le encargó la compra de terrenos y construcción de un nuevo colegio en Villarreal de Urretxua, que por la situación convulsa del momento esperaría varios años para ponerse en marcha.

En julio de 1935, con 35 años de edad, es nombrado para tres años Superior Provincial de la Provincia Pasionista del País Vasco con sede en Bilbao. El contexto social y político del momento era complejo. Cuando al año siguiente estalla la rebelión militar, Martín se hallaba de visita en Gabiria, quedando el territorio en manos de la República hasta el 17 de septiembre, fecha de entrada de los rebeldes nacionales. En ese momento toma la decisión de que los alumnos fueran enviados a sus respectivos domicilios.

Durante la guerra y con el frente abierto, Martín viajó con grave riesgo para visitar algunas de sus casas religiosas, aprovechando salvoconductos del Gobierno Vasco. En el convento de Deusto, donde residía, el Gobierno Vasco instaló un Hospital de Sanidad, y en especial de enfermos contagiosos y no pocos afectados de tifoidea. La comunidad de Pasionistas fue respetada, replegándose a una parte vieja del mismo convento. Allí también se fueron concentrando otros frailes de la Congregación, huidos de otros lugares. Ante los intensos bombardeos de los rebeldes sobre Bilbao, fue también refugio seguro para los vecinos.
Terminada la guerra y su primer mandato, volvió a ser reelegido en otras dos ocasiones como Superior Provincial: la segunda (1941-44) y la tercera (1944-48). Sus biógrafos, al analizar estos cargos de responsabilidad, lo describen como una persona con dotes de gestión, y capacidad organizativa para dirigir cualquier actividad de un modo eficiente, aún en las peores condiciones. Y en su personalidad lo definen con un gran dominio de sí mismo y un control de sus reacciones.

Terminado su tercer cargo de Provincial, fue nombrado Delegado de la Provincia Pasionista para América (Perú y Colombia), y en un año del cargo realizó numerosas gestiones y visitas a las casas de la Congregación en estos territorios.

En 1949 fue nombrado Administrador Apostólico (potestad cuasi-episcopal) de la Prelatura (jurisdicción territorial con intención de convertirse en diócesis) de Moyobamba (Perú). Esta Prelatura era de nueva

1924ko uztailean apaiz ordenatu zuen garai hartan Iruñeko gotzaia zen Mateo Mugicak Nafarroako Orreagan. Hurrengo urtean Gabiriako apaizgaientzako ikastetxearen zuzendaritza eman zioten. Han pedagogia eta irakaskuntzaren berrikuntza bultzatu zituen ikasketa-plangintza eta araudi berria ezarriz, non uztartzen ziren diziplina estua eta giro adeitsua eta espirituala.

1931eko Errepublika iritsi zelarik, eta erlijiosoak kanporatuak izango ote ziren beldur zirenez, bere kongregazioak Frantzian etxe berria sortzeko agindu zion (Tonneins- Lot-et-Garonne). Kudeaketa berri honen inguruan sortutako giro lasaiaz baliatuz lehen harremana izan zuen atzerriarekin eta frantses hizkuntzaren ikasketarekin. Handik Bilboko Deustuko komentura joango zen. Handik gutxira Gipuzkoako Urretxun lurrak erosi eta ikastetxe berria jasotzeko ardura eman zioten; alabaina, orduko egoera nahasia zela eta, abian jartzeko zenbait urtez zain egon behar izan zuena.

1935eko uztailean, 35 urtekoa zela, Bilbon egoitza zuen Euskal Herriko Pasiotarren Probintziako Nagusi izendatu zuten. Une hartako politika- eta gizarte- testuingurua oso konplexua zen. Hurrengo urtean, militarren matxinada hasi zenean, Martin Gabirian zen bisitan, lurralde hau Errepublikaren esku geratu zelarik irailaren 17an nazional altxatuak sartu ziren arte. Une hartan ikasleak beren etxeetara bidaltzeko erabakia hartu zuen.

Gerrateak iraun zuen bitartean, fronteak artean irekita, Martinek arrisku handiak hartu zituen beraien erlijio-etxe batzuk bisitatzeko, Eusko Jaurlaritzaren ibiltzeko baimenak erabili zituen horretarako. Bera bizi zen Deustuko komentuan Eusko Jaurlaritzak Osasun-Ospitale bat jarri zuen, gehienbat gaixotasun kutsakorrentzat, eta bereziki sukar tifoideak jotakoak artatzeko. Pasiotarren komunitateari begirunea erakutsi zioten, komentu beraren alde zaharrean hartu zutelarik bizilekua. Haraxe jo zuten baita ere Kongregazioko hainbat fraidek ere, beste leku batzuetatik ihesi zetozenak. Matxinatuek Bilboren gainera jaurtitako bonbardaketa latzetatik babestu nahirik ere, etxe horretan aurkitu zuten babesleku segurua inguruko biztanleek.

Gerratea eta bere lehen agintealdia bukatuta, berriro bi aldiz izan zen aukeratua Probintziako Nagusi kargurako: bigarrena (1941-1944), eta hirugarrena (1944-1948). Haren biografoek, eduki zituen ardurak aztertzerakoan, kudeaketarako dohain bereziak zituen pertsonatzat jotzen dute, eta baldintzarik okerrenetan ere, zernahi ekintza modu eraginkorrean aurrera eramateko gaitasuna zuena. Haren nortasunari dagokionez, bere buruaren jabe zela eta bere erreakzioak mendean edukitzen zituela diote.

Probintziako Nagusi hirugarren aldiz izan ondoren Pasiotarren Amerikako (Peru eta Colombia) Probintziarako Ordezkari izendatu zuten. Karguan iraun zuen urtebetean hamaika kudeaketa eta bisita egin zituen Kongregazioak lurralde haietan zeuzkan etxeetara.

1949an, Peruko Moyobambako eliza-prelaturako Administratzaile Apostoliko izendatu zuten. Prelatura elizbarruti bihurtzeko xedea duen eskumen-lurraldeari deitzen zaio; eta administratzaile apostoliko, berriz,

creación, desgajada de la extensa diócesis de Chachapoyas, y unos nueve de sus pocos sacerdotes eran de la Congregación Pasionista.

El territorio de esta Prelatura ocupaba la totalidad del Departamento de San Martín, en la parte nororiental del Perú, que es conocida como la Montaña del país. Tenía una superficie de 45.200 km^2 (por comparación unas 23 veces la provincia de Gipuzkoa). Y en aquel momento con una densidad de población muy baja de 130.000 habitantes (mezcla de indios, mestizos y blancos) (siguiendo con la comparación en ese momento la provincia de Gipuzkoa tenía más del doble de esos habitantes). El territorio departamental era muy pobre, carecía de toda vía de comunicación y transporte, se alimentaba de una agricultura rudimentaria, y apenas existía comercio e industria.

Martín primero es nombrado y toma posesión como Administrador Apostólico de ese territorio, y después consagrado Obispo en febrero de 1954.

Durante diecisiete años pone en marcha esta Prelatura en ese territorio de la selva peruana, realizando un trabajo constante y continuado. En ello puso su esfuerzo, expresando en repetidas ocasiones una serie de esperanzas frustradas e ideales inalcanzados por la falta de medios y personal. Además de su misión evangelizadora, realizó una amplia labor social, de modo especial en el ámbito de la educación y formación de las comunidades locales.

Viajó incansablemente a lo largo y ancho de la selva, visitando todos los rincones de la Prelatura, a pie, en canoa o a caballo, sin víveres y durmiendo a la intemperie. Fruto de esas visitas fue la elaboración de un mapa del Departamento de San Martín, por el que se le otorgó en 1954 el nombramiento de miembro honorario de la Sociedad Geográfica de Lima.

Todo el esfuerzo realizado terminó minando su salud. Falleció de un fallo cardíaco en 1966 a los 66 años en Lima, estando de paso en esta ciudad.

En 1959, en una de sus visitas, fue homenajeado en su pueblo. Pero también, después de fallecido, se le levantó una efigie esculpida en bronce, localizada en una esquina de la plaza Andra Mari, a la izquierda de la entrada de la puerta principal de la iglesia parroquial. En una inscripción está grabado: "Elgetako Herriak Martín Elorza Gotzaiari. 1983ko ekainak 30".[31]

[31] Artola, Pedro María: "Mons. Martín Elorza. Obispo misionero pasionista" (Tomo I). C.P. Pasionistas, Deusto-Bilbao, 1988.

ia gotzain baten ahalmena duen karguari. Prelatura hau sortu berria zen, Chachapoyasko elizbarruti zabaletik bananduta, eta hango apaiz gutxietatik bederatziren bat Pasiotarren Kongregaziokoak ziren.

Prelatura honen lurraldeak San Martingo Departamentua bere osoan hartzen zuen, Peruko ipar-ekialdean dagoena eta Herriko Mendi gisa ezagutua dena. 45.200 kilometro karratuko zabalera zuen, konparazio batera, Gipuzkoako probintziaren 23 halako. Garai hartan oso populazio-dentsitate txikia zuen, 130.000 biztanle baino ez (indigenak, mestizoak eta zuriak nahasian), konparaketarekin jarraituz, Gipuzkoaren biztanleria hangoaren bikoitza baino gehiagokoa zen. Oso pobrea zen departamentu horretako lurraldea, ez zen inolako komunikabide edo garraiobiderik, garatu gabeko nekazaritzatik zetozen elikagaiak erabiltzen zituzten, eta apenas zegoen industriarik edo merkataritzarik.

Martin hasiera batean lurralde horretako Administratzaile Apostoliko izendatu zuten eta gero apezpiku kontsakratu 1954ko otsailean.

Hamazazpi urtetan zehar abian jarri zuen Peruko oihanean kokatuta dagoen Prelatura hori, etengabeko lanak eginez. Horretan saiatu zen buru-belarri; baina, hala ere, askotan zapuztu egin zitzaizkion asmoak eta itxaropenak, halakoxea baitzen era guztietako baliabideen gabezia. Misio ebanjelizatzaileaz gain, gizarte-lan sakona egin zuen, bereziki heziketa-arloan eta herrietako jende xumearen prestakuntzan.

Hango basoetan barrena luze eta zabal bidaiatu zuen nekagabe, batzuetan oinez, hurrengoan zaldiz edo kanoaz, askotan zer janik edo non lo eginik ez zuela, azkenean Prelaturako txoko guztietara iristea lortu zuen arte. Egindako bisita horien guztien fruitu izan zen taxutu zuten San Martingo Departamentuaren mapa. Horiek horrela, 1954an Limako Geografia-Elkarteko ohorezko kide izendatu zuten.

Egindako esfortzu eskerga hori kaltegarri gertatu zitzaion osasunerako, eta hala hil zen bihotzekoak jota 1966an 66 urte zituela Liman, non zegoen pasoan aldi hartan.

1959an, herrira egin zuen bisitaldi baten gorazarrea jaso zuen. Zendu ondoren ere, brontzez egindako irudi bat eraiki zuten, Andra Mari plazaren kantoi baten dagoena, parrokia-elizaren sarrera nagusiaren ezkerraldean. Hango inskripzio baten honakoa dago idatzita: "Elgetako Herriak Martin Elorza Gotzaiari. 1983ko ekainak 30".[31]

[31] Artola, Pedro Maria: "Mons. Martín Elorza. Obispo misionero pasionista" (Tomo I). C.P. Pasionistas, Deusto-Bilbao, 1988.

22. JACINTO Mª RIVAS SANZ "ELGETA"

Relato de un gudari en la última guerra, y de un artista bohemio, mito de la trikitixa, que vivió sin raíces y que murió en soledad.

Jacinto Mª Rivas Sanz, conocido por "Elgeta", nació y murió en Donostia (1906 /✝1964).
Fue bautizado en la parroquia del Buen Pastor, y en la partida de bautismo figuran como padres: Daniel Rivas Anjita (32 años), natural de Toro (Zamora) y de profesión zapatero, y María Sanz Llorente (32 años), natural de San Román de la Hornija (Valladolid).

A los quince días de nacer, su madre lo entregó a un Orfanato-Inclusa, porque su marido se encontraba preso en la cárcel del Dueso (Santoña), y no los podía atender a él y sus hermanos. En el Orfanato, como era habitual, le cambiaron el nombre por el de Baldomero Erlaiz Irazoqui.

Con cuatro meses fue entregado en adopción a una familia arrendataria del caserio Intxuzabal. Este caserío de dos viviendas está situado en el barrio Goimendi-Basalgo de Bergara, aunque está más cerca de Elgeta, que también comparte territorialmente la mitad de este barrio. De ahí que Jacinto fuera siempre conocido como "Elgeta" o simplemente como "Intxuzabal".

La familia adoptiva estaba compuesta por los esposos Juan M. Lascurain y María Gabilondo, dos hijos (hijo e hija) de ellos, y un hermano soltero del esposo.

En los primeros meses la madre adoptiva, María Gabilondo, lo amamantó. Pero al año de su crianza lo reclamó su madre biológica, María Sanz, que, según el escrito de recurso, "en su momento se vio agobiada por el peso de la desgracia (su marido preso), y obligada a poder dedicarse a trabajos que le procuraran el sustento para sus propios hijos, y a desprenderse de su tierna criatura…".

Por orden del juez el niño fue entregado, pero poco después, al no ser localizada la madre, volvió al caserío Intxuzabal con su familia adoptiva, donde creció y se desarrolló.

Parece que el tío adoptivo soltero, residente en el caserío, tenía un acordeón y con él inició su aprendizaje musical. Sobre 1918, a los doce años, ya animaba los domingos y días de fiesta en Elgeta y sus barrios de Ubera y Angiozar.

Sobre 1931 comenzó en Eibar a trabajar en la construcción, y a respirar los aires socialistas que se sentían en la villa armera. Compró el primer acordeón por 40 duros y estableció amistad con miembros de la banda local de música, con los que empezó a enriquecer su repertorio.

22. JACINTO Mª RIVAS SANZ "ELGETA"

Azken gerratean gudari ibili, eta trikitixaren mito izan, eta errorik gabe bizi izan ondoren bakartasunean hil zen artista bohemio baten kontakizuna.

Jacinto Mª Rivas Sanz, "Elgeta" izenez ezagutua, Donostian sortu eta hil zen (1906/✝1964). Buen Pastorreko parrokian bataiatu zuten.
Bataio-agirian honako aita-amak ageri dira: Daniel Rivas Anjita (32 urte), Zamorako Toron jaioa eta zapataria lanbidez; eta Maria Sanz Llorente (32 urte) Valladolidko San Roman de la Hornijan jaioa.

Jaio eta hamabost egunera bere amak umezurtz-etxera eraman zuen bere senarra preso zegoelako Santoñako El Dueso espetxean, eta ezin zituelako gobernatu hau eta bere anaiak. Umezurztegian, ohi bezala, izenez aldatu zuten, Baldomero Erlaiz Irazoki izen berria eman ziotelarik.

Lau hilabete zituela adopzioan eman zioten Intxuzabal baserrian maizter bizi zen familiari. Bi etxebizitzako baserri hau Bergarako Goimendi-Basalgoko auzokoa da, nahiz eta Elgetatik gertuago egon eta lurren erdiak partekatzen dituen. Horregatik Jazinto beti "Elgeta" izenaz ezagutua izan zen, edo "Intxuzabal" bere horretan.

Adopzioan hartu zuen familiak honako osakera zuen: Juan Maria Lascurain eta Maria Gabilondo senar-emazteak, bi seme-alaba eta senarraren anaia ezkongabea.

Lehen hilabeteetan adopzioko amak, Maria Gabilondok, bularra eman zion. Baina handik urtebetera bere ama biologikoak, Maria Sanzek, berriro erreklamatu zuen. Hark jarritako helegitean honela dio: "bere garaian ezbeharrak jota (gizona preso) oso estu ikusi zuen bere burua, eta behartuta egon zen bere seme-alabak gobernatu ahal izateko hainbat lanetan jardutera eta haurtxo txikirik gabe geratzera…".

Epaileak aginduta semea eman behar izan zioten, baina handik gutxira, ama aurkitu ezinean, Intxuzabal baserrira itzuli zen berriz adoptatu zuen familiarekin, eta hantxe hazi eta aurrera egin zuen.

Badirudi baserriko osaba ezkongabeak eskusoinu bat zuela eta harekin hasi zituen musika-ikasketak- 1918 urtearen ingururako, hamabi urtekin, jada igande eta jaiegunetako arratsaldeak girotzen zituen Elgetan eta Ubera eta Angiozar auzoetan.

1931ean Eibarren hasi zen lanean eraikuntzan, eta armagileen herri hartan sentitzen ziren aire sozialistak arnasten. Bere lehen eskusoinua erosi zuen 40 duro ordainduta eta hango musika bandako kideen lagun egin zen, eta haiekin batera aberastu zuen bere errepertorioa.

Acordeón / Eskusoinua

Después de cumplir el servicio militar, volvió al caserío para ayudar y cuidar a su madre adoptiva ya anciana.

Al estallar la última guerra se alistó como gudari voluntario en el Batallón de Trabajadores, prestando sus servicios en la fortificación del cinturón de hierro de Bilbao.

Terminada la guerra fue condenado por un juicio militar a 12 años y un día, y encarcelado en la cárcel de Santoña (Santander). Más tarde, fue trasladado a Cádiz con un batallón de 600 prisioneros para la construcción de un barco-torpedo. La condena se redujo, pues en 1942 lo encontramos liberado, apareciendo en una fotografía de una fiesta con un acordeón.

En los años de la posguerra y ya liberado de la cárcel, "Elgeta" compatibilizó sus actuaciones en fiestas y en romerías con las clases que daba de caserío en caserío. Convivía con el alumno de turno a cambio de dar clases de trikitixa. Vivió errante, sin casa ni familia, prácticamente sin raíces. Y al final de su vida como vagabundo tocaba el acordeón en los bares de la Parte Vieja donostiarra.

Un discípulo suyo, el trikitilari Iñaki Garmendia "Laja", cuenta que cuando tenía 16 años vivió en su caserío tres meses y medio. Tenía un contrato de cinco duros diarios, el mantenimiento, tres puros y el tabaco que necesitara. En las pocas fotografías conocidas aparece siempre con un puro en la boca, y un pañuelo al cuello para no ensuciar la camisa. Era extremadamente pulcro y escrupuloso en sus cosas.

De su relato sabemos también algo de sus costumbres. "Se acostaba sobre las cinco de la mañana, ocupándose largas horas en solitarios con las cartas, dormía hasta el mediodía, tomaba un café, paseábamos juntos, él siempre muy callado, y después tocábamos el acordeón uno frente al otro durante unas dos horas. Sabía mucho de trikitixa, habiéndolo enriquecido con nuevos recursos".

Jacintoren argazkia / *Foto de Jacinto*

Soldadutza egin eta gero, ostera baserrira bueltatu zen etxeko lanetan laguntzera eta jaso zuen ama zaharra zaintzera.

Gerratea sortu zenean Beharginen Batailoian sartu zen borondatezko gudari legez, eta Bilboko burdinazko ingurabidea zeritzon gotorlekuan egin zituen zerbitzuak.

Gerratea amaitu zenean auzitegi militar batek 12 urte eta egun bateko zigorra ezarri zion eta Cantabriako Santoñako espetxean sartu zuten. Geroago, 600 gatibuko batailoi baten Cadizera eraman zuten torpedo-itsasontzi bat egitera. Horiek horrela, zigorra txikitu egin bide zen; izan ere, 1942an libre aurkitzen dugu, argazki baten agertzen delarik festa baten eskusoinuarekin.

Gerraosteko urteetan, jada kartzelatik aske, "Elgetak" bateratu egin zituen jaietako eta erromerietako emanaldiak eta baserriz baserri ematen zituen eskolak. Aldian aldiko ikaslearekin bizi izaten zen, trikitixa-eskolen truke mantenua lortuz. Alderrai bizi izan zen, etxerik eta familiarik ez zuela, errorik bota gabe. Bere bizitzako azken urteetan Donostiako Alde Zaharreko tabernetan jotzen zuen akordeoia.

Haren ikastun izan zen Iñaki Garmendia "Laja" trikitilariak kontatzen du berak 16 urte zituela haien baserrian bizi izan zela hiru hilabete eta erdiz. Egindako kontratuetan eguneko bost duro, mantenua, hiru zigarro puru eta behar adina tabako eskatzen omen zituen. Ezagutzen diren argazki urrietan beti zigarro purua ahoan duela azaltzen da, eta lepoan zapia, alkandora ez zikintzearren. Erabat txukuna eta arduratsua omen zen bere gauzetan.

"Lajak" esandakoetatik dakizkigu haren ohitura batzuk. "Goizaldeko bostak inguruan oheratzen zen, kartekin bakar-jokoan ematen zituen ordu luzeak, eguerdira arte egiten zuen lo, kafe bat hartzen zuen, elkarrekin paseatzen genuen, hura beti isilik, eta gero elkarren aurrean ginela eskusoinua jotzen genuen bi orduz. Asko zekien trikitixari buruz, baliabide ugarirekin aberastu zuen".

Murió en 1964, a los 59 años, en la residencia de la Misericordia de Zorroaga (Donostia), en la que había ingresado dos meses antes. Antes de morir y en situación extrema, una cuidadora le preguntó si quería avisar a alguien y él respondió que "no tenía amigos, ni parientes directos".

Al morir dejó como única pertenencia material su acordeón diatónico, marca Florentino-Guerrini, que le había acompañado a lo largo de su vida, y que en su memoria fue restaurado por sus admiradores. Pero también legó a la posteridad un extenso repertorio de piezas que sus alumnos reconocerían como suyas, asi como una bobina abierta (cinta) grabada que fue editada mucho después como único documento de repertorio.

Fue un trikitilari muy admirado en su tiempo, por el nivel de ejecución y por el repertorio que utilizaba, y esa admiración ha perdurado hasta nosotros.

Según los expertos, fue un precursor de la trikitixa moderna, añadiendo al repertorio tradicional (fandango, arin arin, porrusalda y trikitixa etc.), valses, pasadobles, chotis, tangos y rumbas. Para ello, añadió dos octavas al teclado derecho de su acordeón.

Fue el maestro de dos generaciones de trikitilaris en la posguerra, al menos en Gipuzkoa. Con él aprendieron Sakabi, Tapia, Epelarre, Maltzeta, Auntxa, Arbe, Kataolaza, Urkiolegi, Zabaleta, Erribera, Zialtzeta, Laja y otros muchos. Todos ellos le reconocen un papel decisivo en la pervivencia del soinu txikia en Gipuzkoa, y en su renovación.

En mayo de 2006 la Asociacion de Trikitilaris/Euskal Herriko Trikitixa Elkartea publicó un libro titulado "Elgeta, sasiaren sustraiak" (Koldo Izaguirre) y un disco con las piezas y partituras de "Elgeta", y le dedicó asimismo las Jornadas de Trikitixa que se celebraron en septiembre de ese año.[32]

[32] Ver más información en Izagirre, Koldo: "Elgeta, Sasiaren sustraiak". Soinuaren liburutegia, 2001.

1964an hil zen, 59 urte zituela, Donostiako Zorroagako Miserikordia egoitzan, non bi hilabete lehenago sartua zen. Hilzorian zela, azken uneetan, zaintzaile batek galdetu zion ea baten bati abisua egin nahi ote zion, eta haren erantzuna izan omen zen "ez zuela lagun edo senitarteko zuzenik".

Hildakoan bere akordeoi diatonikoa utzi zuen ondasun material bakartzat. Florentino-Guerrini markakoa zen, bizitza osoan lagundu ziona, eta hemen utzi zituen miresleek eraberritu zutena haren oroimenez. Baina etorkizunerako utzi zituen, baita ere, trikitixa-piezen errepertorio zabal bat, haren ikastunek berak sortutakotzat jo zituztenak. Orobat, bobina ireki bat (zinta) grabatua, askoz beranduago editatuko zutena errepertorioaren dokumentu bakar moduan.

Garai hartan oso trikitilari miretsia izan zen, erakusten zuen jotze maila itzela zela eta, erabiltzen zuen errepertorioagatik. Miresmen horrek gaur egunera arte iraun du.

Adituek diotenez trikitixa modernoaren aitzindaria izan zen, betidaniko errepertorioari (fandango, arin arin, porrusalda, trikitixa…) pieza barriak gehitu zizkion; hala nola, balsak, pasodobleak, txotisak, tangoak eta runbak. Behar berri horietarako bere eskusoinuaren eskuineko teklatuari bi oktaba gehitu zizkion.
Gipuzkoan behintzat, gerraondoko trikitilarien bi belaunaldiren maisua izan zen. Harekin ikasi zuten Sakabik, Tapiak, Epelarrek, Maltzetak, Auntxak, Arbek, Kataolatzak, Urkiolegik, Zabaletak, Erriberak, Zialtzetak, Lajak eta beste askok. Horiek guztiek aitortzen dute hark egindako lan erabakigarria Gipuzkoan soinu txikiaren iraunarazpena eta berriztapena gauzatu ahal izateko.

2006ko maiatzean Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak liburu bat argitaratu zuen "Elgeta, sasiaren sustraiak" izenekoa, Koldo Izagirrek ondua, eta disko bat haren pieza eta partiturekin osatua. Baita ere, urte horren irailean burutu ziren Trikitixa Jardunaldiak hari eskaini zizkioten.[32]

[32] Ikus Izagirre, Koldo: "Elgeta, Sasiaren sustraiak". Soinuaren liburutegia, 2001.

23. FÉLIX ARANZABAL ARANZABAL, "EL CIEGO DE ANGIOZAR"

Relato de un reconocido artista, que superó su ceguera, y vivió de la práctica y enseñanza del acordeón.

Félix Aranzabal Aranzabal , conocido como el "Ciego de Angiozar", nació el año 1919 en el caserío Aguleta Gainekua (Suso) en el barrio Zabaletamendi de Angiozar. Murió en Eibar en el año 2006.

Casó en Angiozar en 1945 con María Ángeles Ugarte y tuvieron tres hijos: Fernando, Felix y Aitor Aranzabal Ugarte.

Los padres de Felix fueron: Benigno Aranzabal Arruabarrena (1881) y Segunda Aranzabal Zabaleta (1885).

Tuvieron siete hijos/as: José Francisco, Cándida, Urbano, Julián, Justa, Félix y Jesusa (1921).
(Ver genealogía Anexo XVII)

Foto de Felix / Felixen argazkia

Félix desde muy joven, con unos ocho años, acompañado de sus otros hermanos Patxi y Julián, se inició en el aprendizaje del acordeón, A los once años quedó ciego a causa de un accidente y poco después ingresó en la escuela de Sordomudos y Ciegos de Deusto (Bilbao). Allí aprendió a leer y escribir el sistema Braille, además de cultura general, solfeo, piano y violín.

Esta escuela se cerró con el inicio de la última guerra, y Félix volvió al caserío en 1938, en donde siguió practicando en un acordeón diatónico, prestado por un amigo. En ese mismo año compró su primer

23. FELIX ARANZABAL ARANZABAL, "ANGIOZARKO ITSUA"

Itsutasuna gainditu eta akordeoia joz eta erakutsiz bizi izan zen artista bikain baten kontakizuna.

Felix Aranzabal Aranzabal, "Angiozarko itsua" ezizenez ezagutua, 1919an jaio zen Aguleta Gainekua baserrian, Angiozarko Zabaletamendi auzoan. Eibarren hil zen 2006an.

Angiozarren ezkondu zen Maria Angeles Ugarterekin eta hiru seme izan zituzten: Fernando, Felix eta Aitor Aranzabal Ugarte.

Felixen gurasoak izan ziren: Benigno Aranzabal Arruabarrena (1881) eta Segunda Aranzabal Zabaleta (1885).

Zazpi seme-alaba edukii zituzten: Jose Frantzisko, Candida, Urbano, Julian, Justa, Felix eta Jesusa Aranzabal Aranzabal. (Ikus XVII. eranskineko genealogia)

Argazkia anai-arrebekin / *Foto con hermanos y hermanas*

Felix oso gazte, zortzi urte inguru zituela, hasi zen eskusoinua ikasten bere anaiak Patxi eta Julianekin batera. Hamaika urte zituela itsu geratu zen istripu baten ondorioz. Handik gutxira Bilboko Deustuko Gormutu eta itsuen Eskolan hasi zen. Han Braille sistemaren bidez irakurtzen eta idazten ikasteaz gain, oinarrizko kulturan, solfeoan eta pianoa eta bibolina jotzen ere trebatu zen.

Azken gerratea hasiaz bat itxi zituen ateak eskola horrek. Hori zela eta, Felix jaiotetxera etorri zen berriro 1938an, non jarraituko zuen lagun batek utzitako akordeoi diatonikoarekin saiakerak egiten. Urte horretan

acordeón, de la marca Larrinaga-Gerrini, empezando a tocar de pueblo en pueblo, y de barrio en barrio, y esa era su fuente de ingresos. Sin embargo, después pasó al acordeón cromático, "soinu handia", que disponía de más recursos para la ejecución de su repertorio de música más universal.

Sus actuaciones preferentes estuvieron en torno a las comarcas de Debagoiena, Debabarrena y Duranguesado, acompañando en ocasiones a bertsolaris reconocidos como Basarri, Uztapide, Zepai, Mitxelena, Xalbador eta Lasarte, entre otros.

En los inicios de su actividad musical participó en varios concursos de acordeón, consiguiendo siempre el primer premio, en su categoría de "soinu handia". Así ocurrió el año 1945 en Rentería, Hondarribi y Durango, y dos años después en Portugalete.

Desde 1951 residió en Eibar con su esposa y tres hijos. Allí fundó una academia, donde daba clases de solfeo y acordeón, aunque siguió dando conciertos y tocando el acordeón en los pueblos hasta 1979.

En 2004 fue nombrado miembro de honor de la Asociación de Acordeonistas de Euskal Herria Hauspoz en Zarautz. junto con Manuel Yaben, Migel Sagastume y Enrike Zelaia.

Es reconocido su gran esfuerzo y preparación para hacer los estudios de música y armonía, ya que era ciego y eso requería tener que pasar todas las piezas al sistema Braille. Al principio en este trabajo le ayudaba el organista de Angiozar, Ismael, y más tarde dicha responsabilidad la tomó la mujer de Félix, M. Ángeles Ugarte. En la década de los sesenta Félix empezó a tomar clases de armonía con el músico Vicente Escudero, hasta que sacó el título en el Conservatorio de Donostia.

bertan erosiko zuen bere lehen eskusoinua Larrinaga-Gerrini markakoa, eta orduantxe hasi zen herriz herri eta auzoz auzo jotzen, hori izan zelarik haren bizi bidea. Hala ere, geroago akordeoi kromatikora pasako zen, errepertorio unibertsaleko musikak jotzeko baliabide ugariago zituen "soinu handira".

Emanaldiak nagusiki Debagoiena, Debabarrena eta Durangaldeko eskualdeetan ematen zituen, sarri askotan bertsolari entzutetsuekin batera; besteak beste, Baserri, Uztapide, Zepai, Mitxelena, Xalbador eta Lasarte.

Musikari emandako bizitzaren lehen urteetan hainbat txapelketetan eman zuen izena, guztietan ere "soinu handiaren" sailean lehen saria lortuz. Horrelaxe gertatu zen 1945ean Errenterian, Hondarribian eta Durangon, eta bi urte geroago Portugaleten.

1951etik aurrera Eibarren jarri zen bizitzen bere emazte eta hiru semeekin batera. Han akademia bat sortu zuen non solfeo eta akordeoi eskolak ematen zituen. Hala ere, 1979ra arte kontzertuak ematen jarraitu zuen, eta herrietan soinu handia jotzen.

2004an, Zarauzko Hauspoz izeneko Euskal Herriko Soinujoleen Elkarteko ohorezko kide izendatu zuten, Manuel Yaben, Migel Sagastume eta Enrike Zelaiarekin betera.

Denek onartzen dute hark egindako esfortzu itzela musika- eta armonia-ikasketetan eta arlo horietan erdietsi zuen prestaketa, itsua izanik pieza guztiak Braille sisteman jartzea eskatzen baitzuen. Hasiera batean, zeregin horretan Angiozarko organojolea zen Ismaelek laguntzen zion, eta geroago Felixen emazte zen Maria Angeles Ugartek hartuko zuen ardura hori. Hirurogeigarren hamarkadan Felix armonia-eskolak hartzen hasi zen Vicente Escudero irakaslearekin, Donostiako Kontserbatorioan titulua lortu zuen arte.

24. ANTTONI TELLERIA LAMARAIN

Relato de un símbolo viviente de la cruel represión en la última guerra.

Anttoni Tellería Lamarain nació en el caserío Sestogain (Elgeta) en 1921 y murió en su pueblo en el año 2007. Sus padres fueron: Pedro Tellería Ascasibar (1883/†1937) y Francisca Lamarain Aranzabal (1887/†1937), casados en Elgeta en el año 1907.
Tuvieron cinco hijos/as: Jose Luis, Lucio, María, Felipa y Anttoni Telleria Lamarain.
(Ver genealogía Anexo XVIII)

Pedro y Francisca, padres de Anttoni / Anttoniren gurasoak

El relato de este cruel acontecimiento ocurre en el caserío Sestogain (Elgeta). En este caserío vivía el matrimonio Tellería-Lamarain y su familia. Al casarse en 1907 siguieron como arrendatarios y cuatro años más tarde lo compraron a Domingo Iturbe, que era propietario por herencia familiar. En un documento consta que Pedro Tellería Ascasibar compró el caserío Sostoa y sus pertenecidos con otras propiedades (piso en Ercillacoa) por 29.500 pts., que pagó la mitad al contado y la otra mitad a los ocho años.

En estos años la familia trabajó arduamente para cubrir los gastos resultantes de esta compra. Y cuando la familia se encontraba más desahogada estalló la última guerra.

En julio de 1936 con la rebelión militar en marcha, los sublevados ocupan en tres meses la casi totalidad de Gipuzkoa, a excepción de Eibar y Elgeta. A finales de septiembre la línea del frente del Debagoiena se establecerá en torno a Elgeta. Y sus montes Intxorta se convertirán durante siete meses en una heroica defensa y resistencia contra los sublevados militares y en defensa de la República.

24. ANTTONI TELLERIA LAMARAIN

Azkeneko gerratean gertatutako errepresio ankerraren ikur bizi baten kontakizuna.

Anttoni Telleria Lamarain Elgetako Sestogain baserrian jaio zen 1921ean, eta bere herrian hil zen 2007an. Haren gurasoak izan ziren: Pedro Telleria Ascasibar (1883/†1937) eta Francisca Lamarain Aranzabal (1887/†1937), Elgetan ezkondu zirenak 1907an.
Bost seme-alaba eduki zituzten: Jose Luis, Lucio, Maria, Felipa eta Anttoni Telleria Lamarain.
(Ikus XVIII. eranskineko genealogia)

Anttoniren Argazkia / *Foto de Anttoni*

Jazoera anker hau Elgetako Sestogain baserrian gertatu zen. Baserri horretan bizi ziren Telleria-Lamarain senar-emazteak eta haien seme-alabak. 1907an ezkondu zirenean errentari moduan jarraitu zuten, lau urte beranduago familiaren oinordekotzaz baserriaren jabe zen Domingo Iturberi erosi zioten arte. Agiri baten jasota dago Pedro Telleria Askasibarrek Sostoa baserria eta haren inguruak, beste ondasun batzuekin batera (Ertzillako etxebizitza) erosi zituela 29.500 pezetatan, horren erdia esku dirutan ordaindu zuelarik, eta beste erdia handik zortzi urtetara.

Urte haietan familiak buru-belarri jardun behar izan zuen lanean, erosketa hori zela-eta, egindako zorrak estali ahal izateko. Erosoago ibiltzea lortu zutenean sortu zen azken gerratea.

1936ko uztailean, militarren altxamendua abian zela, matxinatuek hiru hilabetetan ia Gipuzkoa osoa hartu zuten, Eibar eta Elgeta izan ezik. Irailaren hondarrean Debagoienako fronte-lerroa Elgetaren inguruan egonkortu zen. Eta Intxorta mendietan gertatuko zen altxatu militarren aurka Errepublikaren aldekoen defentsa eta erresistentzia heroikoa.

Los habitantes de muchos caseríos huyeron a Bizkaia con sus ganados. Allí permanecieron hasta la caída de Elgeta. Al volver, sobre todo los sospechosos de tendencias nacionalistas o republicanas, fueron empleados sin remuneración en la reconstrucción de la villa y requisados algunos de sus ganados.

Desde el 20 de abril, y tras cinco días de batalla, el casco urbano de Elgeta era un amasijo de cascotes, tras sufrir los ataques brutales de la aviación fascista alemana e italiana.

El día 24 a las cinco de la tarde las tropas rebeldes entraban en el pueblo, y sus mandos les daban carta blanca durante 48 horas. Aqui empezaron las represalias contra los habitantes, sufriendo el pillaje, el asesinato y la violación. Ese día el caserio Sestogain, situado al oriente y muy cercano a la villa, estaba ocupado por sus propietarios, el matrimonio Pedro (54 años) y Francisca (50 años), Victoria, madre de Pedro (86 años), y la hija pequeña Anttoni (16 años). Estaban ausentes José Luis (29 años y en Bizkaia cuidando de dos vacas), Lucio (27 años y en quintas), María y Felipa (en una granja de Ceberio –Bizkaia- con su marido Modesto y el ganado de su caserio Uriburu). En aquel momento el caserío Sestogain tenía unas cinco vacas, dos bueyes y cuatro terneras.

La crueldad de lo acontecido aquel día 24 a las tres de la mañana fue relatado por la misma Anttoni a miembros de Intxorta 1937 Kultur Elkartea (30-05-2003):

> "Estaba en el caserio con mis padres, y llegaron unos desconocidos, no eran muy negros, comparados con nosotros morenos, se expresaban bien en castellano. Mi opinión es que a aquellas horas unos desconocidos no podían localizar el caserío, que alguien del pueblo les indicó el camino. Surgió una discusión, sobre violar o no, luego empezaron a empujar, y al final le dispararon a mi padre en la cabeza, le brotaba sangre de la cabeza, entonces yo le puse la mano en la cabeza y el segundo tiro me seccionó los dedos. A mi madre le rompieron la cabeza a culatazos, no recuperó el sentido… Los violadores, al ver que no podían por las buenas, fueron por las malas. Asesinatos, violaciones y demás".[33]

A Anttoni la operaron en un centro militar de Bergara. En cambio, su madre no pudo superar la situación y a los nueve o diez días murió en la clínica San Antonio de Donostia. Anttoni, permaneciendo soltera, vivió en su pueblo hasta su muerte en 2007 con 86 años. En todos esos años, y después de fallecida, fue y es un digno símbolo viviente para sus vecinos como cruel referente de la represión en la última guerra.

[33] Unai Iturriaga: http://paperekoa.berria.info/iritzia/2012-04-25/005/003/elgeta.htm Lorea Agirre:

Hainbat baserritako bizilagunak Bizkai aldera joan ziren ihesi ganaduak ondoan zituztela. Han iraun zuten Elgeta jausi zen arte. Itzuli zirenean, batik-bat nazionalista edo errepublikazale izatearen susmopean zeudenak, herria berreraikitzeko lanetan jardun behar izan zuten inolako ordainik jaso gabe, haien zenbait abere konfiskatuak izateaz gainera.

Apirilaren 20tik aurrera, borrokaldiak iraun zuen bost egunen ondoren, Elgetako kalea harri txintxor pila bat baino ez zen, alemaniar eta italiarren hegazkin faxisten eraso bortitzak pairatu ondoren.

Hilaren 24ko arratsaldeko bostetan altxatutako tropak sartu ziren herrian, eta haien buruzagiengandik zernahi egiteko baimena jaso zoten hurrengo 48 ordutan. Orduantxe hasi ziren biztanleen aurkako errepresaliak: lapurretak, hilketak eta bortxaketak nonahi. Egun horretan Sestogain baserrian, herriko kaletik ekialdera eta oso gertu dagoena, honakoak zeuden etxean: Pedro (54 urte) eta Frantziska (50 urte) senar-emazteak; Bittori, Pedroren ama (86 urte), eta Anttoni alaba txikia (16 urte). Etxetik kanpo ziren: Jose Luis (29 urte), Bizkai aldean bi behi zaintzen; Luzio (27 urte), soldaduzkan; Maria eta Felipa Bizkaiko Zeberioko abeletxe batean bere senar Modestorekin eta haren baserria zen Uriburuko abereekin. Une hartan Sestogain baserriak bosten bat behi, idi parea eta lauren bat txahal zituen.

Anttonik berak kontatu zizkien hilaren 24an goizaldeko hiruretan gertatutakoak Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kideei 2003ko maiatzaren 30ean:

> "Ba, gu etxean geunden nire gurasoekin. Baina nik nire eritzi bat esango dot: eta goizeko hiruretan hemen kaletik nire baserria kanpotar batzuk ezin leike bilatu. Niretako da herrikoak izan zirela hor laguntzaileak, seguru eh!, orain…zeintzuk? Ba ez dakit. Eta hortik aurrera ba… izan zen eztabaida eta han ibili ginen diskutitzen eta bultzaka eta, azkenean ba izan zen heriotza gero. Aitari tiroa bota zotsen eta odolustu, hustutzera zoian ha. Eta ama kulatazoekin burua dena, eta burua dena apurtu zotsen, ia ez jakon gehiago konozimenturik hari etorri. Hau eskukoa zelan egin? Bueno, ba aitari tiroa bota otsen hemen betondoan. Tiroa lehenengo bota zotsen eta nik ha ikusi nebanean eskua ipini notsan eta bigarren tiroa egin eben eta neri atzamarrak moztu. Horrela izan zen hori. Zergatik izan zan? Ba, biolazioagatik. Biolatu ala ez biolatu. Eta zela ikusten eben ezin zeikiela egin onean ezer, ba txarrera jo eben: eta gero denak egin eta kitto!, heriotzak eta biolazioak eta denak."[33]

Bergarako militarren zentroan operatu zuten Anttoni. Haren ama, berriz, handik bederatzi edo hamar egunera hil zen Donostiako San Antonio erietxean. Anttoni herrian ezkongai bizi izan zen 2007an, 86 urtekoa zela, hil zen 1arte. Urte luze horietan, eta baita zendu ondoren ere, bere herrikideen aurrean azken gerratearen ondorengo errepresio krudelaren ikur bizi eta duina izan zen, eta da.

[33] Unai Iturriaga: http://paperekoa.berria.info/iritzia/2012-04-25/005/003/elgeta.htm Lorea Agirre:

A MODO DE EPÍLOGO: EL EXILIO INFANTIL DE DOS ELGETARRAS

Al terminar este conjunto de relatos, se me pidió participar en un homenaje a la población infantil de nuestra comarca, exiliada en la última guerra.

La organización está promovida por la Asociación Intxorta 1937, impulsora de la memoria histórica, junto con los ocho municipios de Debagoiena y Aramaio.

De los más de cincuenta niños y niñas a homenajear, figuran dos elgetarras, ya fallecidos: Pilar Gorrochategui Basauri y José Luis Arantzeta Arregi, exiliados con 15 y 12 años respectivamente. A ellos está dedicado este epilogo.

Al inicio de la guerra, en julio de 1936, las provincias de Gipuzkoa y Bizkaia se mantuvieron fieles a la legalidad de la República. Sin embargo, en dos meses este frente de defensa se fue reduciendo, y los militares sublevados entraron en Donostia el 13 de septiembre, y con ello se produjo el primer éxodo de la población civil.

Fue una huida coyuntural y temporal, propiciada en gran medida por el temor de los bombardeos o combates y las represalias de las tropas rebeldes. Se estima que en aquel momento huyeron a Francia unas 10.500 personas, en su mayor parte mujeres y niños o niñas, atravesando la frontera o aprovechando la vía marítima desde los puertos más próximos.

A finales de septiembre, tomada toda Gipuzkoa por los rebeldes, a excepción de Eibar y Elgeta, el frente se estabilizó en estas poblaciones durante unos siete meses. Entonces se produjo otra gran huida de grupos o familias hacia Bizkaia, último reducto vasco, en número aproximado de 100.000 personas, acompañadas de sus efectos personales, sus enseres, y en ocasiones de sus animales domésticos.

Ante esta situación un acontecimiento internacional fue la acogida de muchos niños y niñas vascas evacuados de esta contienda. Con ello se mitigó en cierta medida las desgracias acaecidas y las experiencias insufribles de separarse de la casa y la familia.

Las autoridades del Gobierno Vasco, con el consentimiento de las familias implicadas, llevaron a cabo evacuaciónes de emergencia. Solo era posible por vía marítima, pero el puerto de Bilbao estaba cercado por la armada rebelde. Al fin consiguen la colaboración de los gobiernos francés y británico para proteger con sus armadas a los barcos portadores de refugiados, y se organizan los centros de acogida en refugios y colonias infantiles del exterior.

EPILOGO MODUAN: BI ELGETARREN UMETAKO ERBESTERATZEA

Kontakizunen bilduma hau amaitutakoan, gure eskualdeko haurren omenaldi batean parte hartzeko eskatu zidaten, azken gerran erbesteratuak izan baitziren.

Antolatzailea Intxorta 1937 Elkartea izango da, oroimen historikoaren bultzatzailea, Debagoieneko zortzi udalen eta Aramaiokoaren laguntzarekin.

Omenaldia jasoko duten berrogeita hamar bat neska-mutikotatik bi elgetarrak dira, dagoeneko zenduta daudenak: Pilar Gorrochategi Basauri eta Jose Luis Arantzeta Arregi, hurrenez hurren 15 eta 12 urte zituztenak exiliatutakoan. Epilogo hau haiei eskainia dago.

Gerratearen hasieran, 1936ko uztailean, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurraldeak Errepublikari zerion legezkotasunaren alde mantendu ziren. Hala eta guztiz ere, defentsarako fronte hau hurrengo bi hilabetetan ahulduz joan zen, eta hara non irailaren 13rako altxatutako militarrak Donostian sartu ziren eta honek ekarri zuen populazio zibilaren lehenbiziko exodoa.

Behin behineko ihesaldi koiunturala izan zen, izuak eragindakoa batez ere; bonbardaketei, borrokaldiei eta altxatutako tropen errepresioari zioten beldurrak bultzatutakoa. Une hartan Frantziara 10.500 lagun inguruk alde egin zutela jotzen da, gehienak andreak eta neska-mutikoak. Muga zeharkatu zuten, edo inguruetako portuetatik ateratako itsas-bideak erabili zituzten horretarako.

Irailaren amaieran, behin Gipuzkoa osoa matxinatuek hartuta, Elgeta eta Eibar izan ezik, frontea egonkortu egin zen herri hauetan zazpi hilabetez. Orduantxe gertatu zen ihesaldi handia, jende-andanek eta familiek Bizkai aldera, hartu gabe geratzen zen euskal azken lurraldera jo zuten. 100.000 lagun inguru izan zirela jotzen da, norberaren gauzak eta tresneriak aldean, eta zenbait kasutan etxeko abereak ere berekin zituztela.

Egoera honen aurrean, ikaragarria izan zen gerrate hau zela-eta, kanpora ateratako euskal neska-mutilak hartzeko nazioartean sortutako mugimendua. Gauzak horrela, gozatu egin ziren neurri batean jasandako desgraziak, eta etxetik eta gurasoengandik aldenduak behar izanaren bizipen ezin mingarriagoak.

Eusko Jaurlaritzako agintariek, zegokion familien onarpena jasota, emergentziazko eraman-aldiak gauzatu zituzten. Bide bakarra itsasokoa zen, baina Bilboko portua matxinatutako armadak inguratua zuen. Egoera horren aurrean, azkenean frantziar eta britainiar gobernuen laguntza lortu zuten haien armaden babesa izan zezaten errefuxiatuak zeramatzaten itsas-ontziek, eta errefuxiatuak hartzeko aterpeak eta umeentzako babeslekuak antolatu zituzten.

Esta solidaridad aglutinó a varios países, asociaciones vinculadas a partidos y sindicatos de izquierda, organismos católicos… Hay que destacar la acogida de numerosas familias adoptivas, en unos casos receptoras de alguna ayuda estatal y en otros muchos sirviéndose de sus propios recursos. La coordinación de todo ello corrió a cargo del "Comité d'Accueil aux Enfants d'Espagne", canalizando desde el inicio la organización de los centros, las ayudas y la recaudación de fondos.

Según un informe en 1949 de la Delegación de Repatriación Española, el número de niños y niñas expatriadas alcanzaba la cifra de 32.037, y de ellos fueron repatriados posteriormente 20.266. Este es el desglose de exiliados por países: Francia (17.489), Bélgica (5.130), Inglaterra (4.435), Rusia (3.291), Suiza (807), México (430), Dinamarca (120), Norte de Africa (335).[1]

Veamos ahora el relato de las dos personas elgetarras que vivieron el éxodo infantil, en un caso de exilio permanente y en el otro de exilio repatriado.

Pilar Gorrochategui Basauri y José Luis Aranceta Arregui.

Pilar Gorrochategui Basauri

[34] (AAO. Administraritzaren Artxibategi Orokorra. Gobernuaren Lehendakaritza Saila. S 911.245/9)

Solidaritate honetan partaide izan ziren hainbat herri, ezkerreko alderdi politiko eta sindikatuei lotutako elkarteak, erakunde katolikoak eta abar. Aipagarria da adopzioko familia ugarik eskaini zuten onartze abegikorra, zenbait kasutan estatutik jasotako diru-laguntzen truke, baina beste askotan norberaren baliabideekin aurre eginez. Horren guztiaren koordinazioa "Comité d'Accueil aux Enfants d'Espagne" zeritzon erakundearen esku geratu zen, hasieratik bideratu zituelarik zentroen antolakuntza, laguntzak eta diru-biltzeak.

"Delegación de Repatriación Española" delako erakundeak 1949an egindako txosten baten arabera erbesteratutako neska-mutilen kopurua 32.037koa izan zen, eta horietatik gero 20.266 berriro aberriratu egin ziren. Honela banatu ziren exiliatuak herriz herri: Frantzia (17.489), Belgika (5.130), Erresuma Batua (4.435), Errusia (3.291), Suitza (807), Mexiko (430), Danimarka (120), Afrika Iparraldea (335).[1]

Ikus dezagun orain ume zirela erbesteratzea bizi izan zuten bi elgetarren kontakizuna; kasu baten betiko atzerriratzea izan zena; bestea, aldiz, berriro herriratuko zena.

Pilar Gorrotxategi Basauri eta Jose Luis Arantzeta Arregi.

Jose Luis Arantzeta

[34] (AAO. Administraritzaren Artxibategi Orokorra. Gobernuaren Lehendakaritza Saila. S 911.245/9)

PILAR GORROCHATEGUI BASAURI

Pilar Gorrochategui Basauri nació en Elgeta en 1922 y murió en Hendaia en 2013.
Sus padres fueron Pedro Gorrochategui Aguiriano (Elgeta, 1889) y Ascensio Basauri Ortueste (Elgeta, 1887). Pedro y Ascensio, al casarse en Elgeta el año 1916, empezaron a vivir en la calle Salbador, y allí nacieron sus cinco hijos e hijas: Jesús (1918), Juan (1920), Pilar (1922), Luisa (1924) y Julia (1927) Gorrochategui Basauri. (Ver genealogía de Anexo XIX)

Los abuelos y bisabuelos paternos figuran en los censos de población como molineros de Errota Azpikua, que estaba situado al inicio de la actual presa de Aixola, y que aprovechaba las aguas de los arroyos "Aitzola Erreka" y "Txulo Erreka".

Pedro era de profesión armero, y se implicó en la vida política. En 1931, fruto de la alianza de republicanos y socialistas, se organizó en Elgeta un Centro Republicano, con vinculación a la Casa del Pueblo de Eibar, integrando a unos 65 simpatizantes, y Pedro era uno de ellos.

Aparece en las elecciones municipales de 1931 como uno de los candidatos del Partido Republicano y consigue 77 votos, los mismos que Canuto Ugalde, su compañero de Partido, que ocupó el cargo de concejal y que fue asesinado con la entrada en el pueblo de las tropas franquistas.

En la última guerra, con el frente estabilizado durante siete meses en Elgeta, aparece como adscrito a la Comisaria de Guerra, y entre otras funciones controlaba el suministro de alimentos.

Combatió durante toda la guerra, y una vez perdido el Frente Norte pasó a luchar en Cataluña. Con el final de la contienda atravesó la frontera y llegó a Hendaia, donde su hermano Juan Pedro estaba residiendo desde 1925 y trabajaba en una fábrica de armas.

Volvamos al 24 de abril en Elgeta, fecha en la que la villa fue tomada por los rebeldes, después de siete meses de asedio y cuatro días de intensos bombardeos.

Antes de esa fecha, la familia de Pedro y Ascensio prepara la dispersión. Pedro, el padre, se mantendrá en el frente de Elgeta hasta el último momento.
Los dos hijos mayores, Jesús y Juan, con anterioridad a la guerra, ya habían emigrado a Francia para trabajar en un caserío en Aurignac, un pequeño pueblo cercano a Toulouse.

Las dos hijas pequeñas, Luisa (13 años) y Julia (10 años), fueron acogidas por sus abuelos maternos en un caserío de Angiozar.

PILAR GORROCHATEGUI BASAURI

Pilar Gorrotxategi Basauri Elgetan jaio zen 1922an eta Hendaian hil 2013an.
Haren gurasoak izan ziren Pedro Gorrotxategi Agiriano (Elgeta, 1889) eta Asentzio Basauri Ortuoste (Elgeta, 1887). Pedro eta Asentzio Elgetan ezkondu zirenean 1916an Salbador kalean jarri ziren bizitzen. Eta hantxe jaio ziren haien bost seme-alabak: Jesus (1918), Juan (1920), Pilar (1922), Luisa (1924) eta Julia (1927) Gorrotxategi Basauri. (Ikus genealogia XIX Eranskinan)

Aitaren al deko aitajaun eta birraitonak herriko erroldetan Errota Azpikuako errotari gisa agertzen dira. Errota hau gaur egungo Aixolako urtegiaren hasieran zegoen kokatuta, eta "Aitzola Erreka" eta "Txulo Erreka" errekastoen uraz baliatzen ziren.

Pedro, aita, armagina zen eta politika munduan murgildu zen. 1931an, errepublikazale eta sozialisten arteko itunaren ondorioz, Elgetan Errepublikazaleen Zentroa eratu zen, Eibarko Herriko Etxearekin lotura zuena. 65 lagun inguru bildu zituen, Pedro horietako izan zelarik.

1931ko udal-hauteskundeetan Errepublikazaleen Alderdiaren hautagai moduan ageri da eta 77 bozka lortu zituen, alderdikide zen Canuto Ugaldek erdietsi zituen bezaibeste. Azken hau, zinegotzi postua beteko zuena, eraila izango zen frankistak herrira sartu zirenean.

Azken gerratean, frontea Elgetan zazpi hilabetez egonkortu zelarik, Gerrarako Komisariara atxikita azaltzen da; eta bere zereginen artean, besteak beste, elikagaien hornidura ren begirale moduan aritu zen.

Gerra osoan gudukatu zuen, eta behin Iparraldeko Frontea galdu zenean Katalunia aldera jo zuen borrokan jarraitzera. Gerratea amaitu zenean mugaz beste aldera egin zuen eta Hendaiara iritsi zen, non bizi baitzen haren anaia Joan Pedro 1925etik , arma-fabrika baten lan egiten zuena.

Egin dezagun ostera apirilaren 24ra, matxinatuek herria hartu zuten egunera, zazpi hilabeteko setioaren eta lau eguneko bonbardaketa ikaragarrien ostean.

Data hori baino lehen Pedroren eta Asentzioren familiak sakabanaketa prestatu zuen, baina Pedrok Elgetako frontean iraun zuen azken unera arte.
Bi seme nagusiak, Jesus eta Joan, gerratea hasi baino lehen, Frantziara emigratuak ziren Frantziako Tolosa ondoko Aurignac herriko baserri batera lan egitera.

Bi alaba txikiak, Luisa (13 urte) eta Julia (10 urte) amaren aldeko aitajaun-amandreek hartu zituzten Angiozarko baserri batean.

Pilar con 15 años y su madre, Ascensio (Asensi en familia), huyeron hacia Bilbao. El 6 de junio de 1937 partieron del puerto de Santurce, embarcando en el trasatlántico "Habana", con destino al puerto de La Pallice, en la Rochelle (Francia). Era el cuarto viaje de este barco, que se convirtió en el símbolo representativo del exilio infantil vasco y que realizó hasta seis expediciones entre el 6 de mayo y el 13 de junio de 1937. En esta ocasión, el pasaje del barco alcanzó la cifra de 4.250 personas refugiadas, de las que 2.337 eran niños o niñas, acompañadas de auxiliares, maestras y enfermeras, responsables de su cuidado y protección, y en ocasiones con sus propias madres o familiares.

En el puerto francés fueron recibidos y agasajados por las autoridades y los comités de acogida, y, superados los trámites aduaneros y reconocimientos médicos, fueron distribuidos a las diversas localidades o países.

Pilar y su madre fueron destinadas con otros 474 niños/as al refugio de Selles-sur-Cher (Loir-et-Cher/Francia). Este refugio era un antiguo campamento militar construido en 1903 para cuidar los caballos del ejército, y en el que se albergaron ancianos, mujeres y niños/as de forma conjunta. En este centro se procuraba el alojamiento y la manutención básica de los allí acogidos. Sin embargo, la alimentación debía ser muy escasa porque Ascensio, la madre, solía salir por los caseríos o casas de alrededor, sin saber francés, para coser a cambio de comida y un poco de leche para llevarle a su hija. También contaba Pilar que ella se escapaba con otros niños/as del refugio para alimentarse de los frutos naturales de los alrededores.

En ese tiempo la incomunicación con la familia fue total durante meses, sin posibilidad de saber nada de ella, y con la guerra aún en marcha. Con la llegada de la época de las vendimias, madre e hija trabajaron en la recolección y consiguieron ahorrar algo para acercarse al lugar de Aurignac donde residían Jesús y Juan, los hijos mayores de la familia. Allí Pilar tuvo un primer trabajo estable, durante unos dos años, cuidando al hijo de unos maestros y aprendiendo francés.

Pedro, el padre, concluida la guerra en 1939, consiguió refugiarse en Hendaia con su hermano Juan Pedro, y como era armero de oficio consiguió un empleo en la misma fábrica de armas de su hermano. Es entonces cuando toda la familia se reunió en Hendaia, a excepción de Juan, que se había ahogado en 1938, con 18 años, en el río Garonne, cerca de Boussens.

Cuando en 1940 los alemanes ocupan la fábrica de armas, mantienen todos los obreros, y la familia sigue en Hendaia. En esa misma fábrica trabajaba José León Danjou Lopetegui, con el que Pilar se casará en 1946 y de cuyo matrimonio nacieron dos hijos/as: Juanito (Hendaia, 1948) y Marie Jose (Hendaia, 1953).[35]

[35] (Estos dos hijos fueron la fuente de información de todo lo relatado).

Pilarrek, 15 urtekoak, eta Asentzio amak, etxekoen artean Asentsi deituak, Bilbo aldera ihes egin zuten. 1937ko ekainaren 6an Santurtziko portutik atera ziren "Habana" trasatlantikoan Frantziako La Rochelle hiriko La Pallice portua helburu zutela. Euskal Herriko umeen erbesteratzearen ikur esanguratsu bilakatuko zena Itsasontzi horrek egiten zuen laugarren bidaia zen. Guztira sei joanaldi ere egingo zituen 1937ko maiatzaren 6tik ekainaren 13ra. Aldi hartan itsasontziak 4.250 pertsona errefuxiatu hartu zituen, horietatik 2.337 neska-mutikoak ziren, haien zainketaren eta babesaren ardura hartuko zuten maistrak eta erizainak lagun zituztela. Maiz amak edo senitartekoak ere bertan joaten ziren.

Frantziako portuan hango agintariek eta harrerarako komiteek abegitsu hartu zituzten, eta aduanetako izapideak eta medikuen azterketak bete ostean, hainbat herrialdetan izan ziren banatuak.

Pilar eta haren ama beste 474 neska-mutikorekin batera Selle-sur-Cher-eko babeslekura bideratu zituzten, Loir-et-Cher Frantziako departamentuan. Aterpetxe hau 1903an eraikitako militarren kanpaleku bat zen, armadako zaldiak zaintzeko eratu zena, eta hantxe hartu zuten ostatu adineko pertsonak, emakumeak eta neska-mutilak, denak batera. Zentro horretan aterpea eman eta oinarrizko mantenua ematen zitzaien bertan lekututa zeudenei. Hala eta guztiz ere, jatekoa oso urria zen nonbait; izan ere, Asentziok, amak, inguruko etxeetara eta baserrietara jotzen zuen, frantses hizkuntza tutik ere jakin gabe, joste-lanak egitera jateko edo esne pixka baten truke bere alabari eman ahal izateko. Pilarrek kontatzen zuen baita ere ihes egiten zutela babeslekuko beste zenbait umerekin batera, inguruko fruitu naturalak janez gosea kendu ahal izateko.

Garai hartan sendiarekiko komunikaziorik eza erabatekoa izan zen hilabete luzeetan, ez zutela haien inolako berririk, eta artean gerratea amaitu gabe. Mahats-biltze sasoia iritsi zenean ama-alabak lan horretara joan ziren eta zerbait aurreztea lortu zuten, Aurignac-era joan ahal izateko lain, han bizi baitziren Jesus eta Juan familiako seme nagusiak. Hantxe izango zuen Pilarrek bere lehen lan egonkorra, bi urtez iraun zuena, maisu-maistra batzuen semea zainduz eta frantsesa ikasiz.

Pedrok, aitak, 1939an behin gerratea bukatuta, Hendaiara alde egitea lortu zuen bere anaia Juan Pedrorekin batera, eta lanbidez armagina zenez, anaiak lana egiten zuen arma-fabrikan erdietsi zuen enplegua. Orduantxe bildu zen Hendaian sendi osoa, Juan izan ezik, hau itoa baitzen 1938an, 18 urte zituela, Garona ibaiaren uretan, Boussens herritik gertu.

1940an, alemanek arma-fabrika hartu zutenean, behargin guztiak mantendu zituzten, eta familiak Hendaian jarraitu zuen. Lantegi horretantxe lan egiten zuen Jose Leon Danjou Lopetegik, zeinekin Pilar ezkondu zen 1946an, eta ezkontza horretatik sortu ziren haien bi seme-alabak: Juanito (1948) eta Maria Jose (1953) Danjou Gorrotxategi, biak Hendaian sortuak.[35]

[35] (Bi seme-alaba hauek izan dira kontakizun hau egin ahal izateko informazio-iturri).

JOSÉ LUIS ARANTZETA ARREGUI

José Luis Arantzeta Arregui nació en 1925 y murió el año 2009 en Elgeta.
Sus padres fueron: Julián Aranceta Aranceta (Elgeta, 1893) y Mª Asunción Arregui Leceta (Aretxabaleta, 1899). Tuvieron tres hijos/as: Benito (1923), José Luis (1925), Mari Carmen (1931) Aranceta Arregui.

Julián y Asunción se casaron en Eibar, donde él trabajaba como armero. En 1931, como resultado de la crisis industrial, la familia se trasladó a vivir en Lazkao, ya que el padre había conseguido un puesto en la CAF (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) de Beasain.

Mientras estaban allí, la hija menor Mari Carmen, que había sido adoptada, murió de pleura y contagió a los padres. Asunción falleció con 33 años y Julián murió poco después de una breve estancia en el sanatorio.

Los dos hijos huérfanos, Benito y José Luis, fueron acogidos en dos caseríos, en los que vivían dos tíos, hermanos del padre, casados con dos tías hermanas entre ellas: Benito, en el caserío Malkorre de Aretxabaleta, y José Luis en el caserío Urrejolaegi Zahar de Elgeta. En ambos casos se sintieron siempre tratados y considerados como unos hijos más.

Al estallar la guerra, y con el frente de la contienda establecido en Elgeta desde septiembre de 1936, José Luis vivía en el caserío de Urrejolaegui Zahar. En esta situación José Luis, con 12 años, fue evacuado a Bilbao, y desde allí a Francia. Partió desde el puerto de Santurce el 6 de mayo de 1937, con destino a La Pallice, en La Rochelle. Era la primera expedición del "Habana", y que en esta ocasión llevaba un pasaje de 2.483 personas, de las que 2.273 eran niños y niñas.

Realizados los recibimientos y trámites aduaneros, una mayoría fueron trasladados a la colonia "Maison Heureuse" (Boyardville), en la isla de Oleron. Y de ellos un grupo mixto de 34, entre los que se encontraba José Luis, fueron acogidos posteriormente en la colonia "Lurdes Euzko Aur-Etxea" de Jatxou (Ustariz-Lapurdi).
La amplia casa que albergaba la colonia estaba situada en las cercanías de Ustariz, a catorce kilómetros de Bayona. Era una estructura de dos plantas. En la planta baja se encontraban la cocina, los almacenes, los servicios sanitarios, un salón-escuela con escenario y espacio de música, además de un amplio comedor y un patio cubierto para los recreos. En la primera planta se encontraban los dormitorios de los niños y niñas con los del personal encargado de su tutela. Allí residieron entre 1937 y 1939 estos 34 niños y niñas comprendidos entre los seis y los trece años de edad.

El personal cuidador estaba compuesto por tres andereños (Maritxu Barriola, Teresa y Guadalupe Urkiola), un profesor (Jose Azurza), un capellán y profesor de música (Gelasio de Aranburu), el médico de Ustaritz, Goinhetche y su hija Eugene gran colaboradora en la acogida de refugiados. Además, tenían la eficiente

JOSÉ LUIS ARANTZETA ARREGUI

Jose Luis Arantzeta Arregi Elgetan sortu zen 1925ean eta bertan hil 2009an.
Haren gurasoak izan ziren: Julian Arantzeta Arantzeta (Elgeta, 1893) eta Mª Asuncion Arregi Lezeta (Aretxabaleta, 1899). Hiru seme-alaba izan zituzten: Benito (1923), Jose Luis (1925) eta Mari Karmen (1931) Arantzeta Arregi.

Julian eta Asuncion Eibarren ezkondu ziren, hantxe lan egiten baitzuen Julianek armagin moduan. 1931ean, industria-krisiaren ondorioz, sendiak Lazkaora alde egin zuen bizitzera, aitak lanpostua lortu baitzuen Beasaingo CAF enpresan (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles).

Han bizi zirelarik, alaba txikia Mari Karmen pleuresia gaixoak jota hil zen, eta gurasoak kutsatu zituen. Horrela, Asuncion 33 urte zituela hil zen eta Julian gerotxoago zendu zen sendategian egonaldi labur bar egin ondoren.

Benito eta Jose Luis, umezurtz geratu ziren bi semeak, bi baserrietan jaso zituzten, non aitaren aldeko bi osaba bizi ziren, haien artean ahizpak ziren bi emazteekin ezkonduta zeudenak. Benito, Aretxabaletako Malkorre baserrian, eta Jose Luis Elgetako Urrejolaegi Zahar baserrian. Biak ala biak etxeko semeak balira bezala hartuak eta tratatuek izan ziren.

Gerratea sortu zenean, eta borrokako frontea 1936ko irailetik Elgetan egonkortuta, Jose Luis Urrejolaegi Zahar baserrian bizi zen. Egoera hori zela eta, Jose Luis Bilbora eraman zuten, eta handik Frantziara. Santurtziko portutik atera zen 1937ko maiatzaren 6an, La Rochelleko La Pallice portua helburu zutela. "Habana" itsasontziaren lehen bidaia zen, eta aldi horretan 2.483 pertsona eraman zituen, horietatik 2.273 neska-mutikoak zirelarik.

Dagozkion harrera-saioak eta aduanetako izapideak bete ondoren, gehienak Oleron uharteko "Maison Heureuse" (Boyardville) udalekura eraman zituzten. Hara joandakoen artean, 34 laguneko talde misto bat, Jose Luis tartean zela, geroago Jatsuko "Lurdes Euzko Aur-Etxea" udalekuan hartu zituzten.
Udalekua hartzen zuen etxadi handia Lapurdiko Uztaritzetik gertu zegoen, Baionatik hamalau kilometrora. Bi solairuko egitura zuen. Etxabean zeuden sukaldea, gordairuak, osasun zerbitzuak, eszenategia eta musikarako baliabideak zituen ikasgela bat; eta horrezaz gainera jangela zabala eta atsedenaldiko jolasetarako estalitako patio ederra. Lehen solairuan kokatzen ziren neska eta mutilen logelak, eta baita berauen zaintzaileenak ere. Hantxe bizi izan ziren 1937tik 1939ra 37 neska-mutil hauek, orduan sei eta bederatzi urte tartekoak zirela.

Zaintzaileak honakoak izan ziren: Maritxu Barriola eta Teresa eta Guadalupe Errandonea andereñoak; Jose Azurza irakaslea; aldi berean kaperau eta musika-irakasle zen Gelasio Aranburu; eta Uztaritzeko medikua zen Goinhetche eta beronen alaba Eugene, errefuxiatuen harrera-lanetan laguntzaile aparta izango zena. Horietaz

labor de una cocinera, una auxiliar, y un hortelano encargado de la huerta situada en las proximidades, que proveía al centro de alimentos durante buena parte del año.

José Luis siempre evocaba la colonia como una etapa feliz y enriquecedora, con una intensa convivencia compartida por cuidadora/es y compañeros/as. Esta colonia fue siempre calificada de ejemplar en su organización interna, dirigida por el fundador y su esposa, y su entregado personal. La educación impartida en la colonia se caracterizaba por la presencia cotidiana del euskara y la cultura vasca.

Esta colonia fue creada, financiada y organizada por Manuel Mª de Ynchausti Romero (Manila, 1900/ †1961 Ustariz). Este humanitario fundador procedía de una familia vasco-filipina, con grandes negocios (navieras, azucareras, hoteles) por todo el mundo y con la sede central en Filipinas. Su abuelo iniciador de los negocios, José Joaquín Ynchausti, fue un emigrante nativo de Zumarraga en Filipinas.

Manuel heredó la fortuna y casó con la donostiarra Ana Belén de Larrauri en 1926, de cuyo matrimonio nacieron cinco hijos/as. En 1933 vendió sus propiedades en Filipinas y se asentó en Donostia.

Con el inicio de la última guerra española se trasladó con su familia a Francia, viviendo en Paris y Ustariz (Lapurdi). Desde allí promovió con otros organismos, sobre todo católicos, la ayuda internacional a las personas refugiadas vascas de la guerra y también después al gobierno vasco en el exilio, una vez terminada la guerra. Fue uno de los creadores de la "Liga Internacional de los Amigos de los Vascos" (L.I.A.B.)

En 1939, a las puertas de la segunda guerra mundial contra Alemania, partió de nuevo con su familia hacia New York y no regresará a Europa hasta 1947. Con esta marcha de los fundadores se cerró la colonia de Jatxou, y la mayoría de los niños y niñas fueron repatriados con sus familiares al País Vasco.

José Luis retornó al caserío Urrejolaegui Zahar con sus tíos y primos. Muy pronto empezó a trabajar en "Muebles El Modelo", que después de la guerra había renacido con la fabricación de muebles de todos los estilos, y allí siguió trabajando hasta su jubilación.

José Luis y Miren Elkoro se casaron en Arrate en 1957. Vivieron los primeros años en el caserío Azurtza (Elgeta), lugar de residencia de la familia de Asunción, hasta que pasaron a vivir en un piso de la casa "Anai Etxe", construida por sus primos-hermanos los Aranzeta de Urrejolaegui. Allí nacieron sus dos hijos: José Luis (1958) y Mª Rosario (1960) Aranceta Elkoro.[36]

[36] (Estos dos hijos fueron la fuente de información de todo lo relatado).

gain, beste hainbat langileren laguntza ere izan zuten; hala nola, sukaldari batena, orotariko-laguntzaile batena eta ortuzain batena, zeinek inguruan zeukaten baratze batetik ateratzen zituen zentrorako ia urte guztiko elikagaiak.

Jose Luisek beti gogoratu izan zuen udaleku honetan igarotako aldia zoriontsu eta aberasgarri moduan, bizikide guztien eta zaintzaileen artean partekatutako elkarbizitza estuan oinarritutakoa. Udaleku hau aldiro bikaintzat kalifikatu zuten, sortzaileak eta honen emazteak eman zioten barne-antolamenduari eta bertan lan egiten zuten behargin saiatuei esker. Udalekuan emandako hezkuntza bereizten zen euskal hizkuntza eta kulturari ematen zitzaion garrantzia aintzat hartuta.

Udaleku hau Manuel Maria de Ynchausti Romerok (Manila, 1900/†1964, Uztaritz) sortu, finantzatu eta antolatua izan zen. Sortzaile onbera hau euskal-filipinar familia batekoa zen, negozio handiak zituena (itsasontzi-konpainiak, azukre-fabrikak, ostatuak) mundu osoan zehar, etxe nagusia Filipinar Irletan zuena. Negozio horien sortzailea haren aitajaun Jose Joakin Ynchausti izan zen, Zumarragan jaio eta Filipinetara emigratu zuena.

Manuelek dirutza heredatu zuen eta 1926an Donostiako Ana Belen de Larraurirekin ezkondu zen, eta ezkontza horretatik bost seme-alaba jaio ziren. 1933an Filipinetako ondasunak saldu eta Donostian jarri zen bizitzen.

Espainiako azken gerratea hasi zelarik Frantziara alde egin zuen bere sendiarekin, Parisen eta Uztaritzen bizi izan zelarik. Handik, beste zenbait erakunderekin batera, gehienak katolikoak, gerrako euskal errefuxiatuak artatzeko nazioarteko laguntza-taldeak sustatu zituen. Geroago, behin gerratea amaituta, deserrira alde egin behar izan zuen Eusko Jaurlaritza ere artatuko zuten. "Liga Internacional de los Amigos de los Vascos" (L.I.A.V.) erakundearen sortzaileetariko bat izan zen.

1939an, Alemaniaren aurkako bigarren nazioarteko gerratea sortzear zela, berriro New Yorkera alde zuen familiarekin, eta ez zen 1947ra arte itzuliko Europara. Fundatzaileek alde egite honekin batera Jatsuko udalekua itxi egin zen, eta hango neska eta mutiko gehienak beren Euskal Herriko familietara itzuli ziren.

Jose Luis Urrejolaegi Zahar baserrira bueltatu zen ostera, bere osaba eta lehengusuengana. Handik laster "Muebles El Modelo" lantegian hasi zen beharrean, gerra ostean berriro eredu guztietako altzariak egiten hasia zegoen fabrika hartan. Hantxe jardun zuen lanean erretiroa hartu arte.

Jose Luis eta Miren Elkoro Arraten ezkondu ziren 1957an. Hasierako urteak Elgetako Azurtza baserrian bizi izan ziren, Asuncionen familiaren bizitetxea, baina gero Elgetako kaleko "Anai Etxe" zeritzon etxeko pisu batera aldatuko ziren. Azken hau Urrejolaegiko lehengusuek eraikitakoa zen. Han jaio ziren haien bi seme-alabak: Jose Luis (1958) eta Mª Rosario (1960) Arantzeta Elkoro.[36]

[36] (Bi seme-alaba hauek izan dira kontakizun hau egin ahal izateko informazio-iturri).

ERANSKINAK / GENEALOGIAK

Genealogia hauek hemen deskribatutako pertsonaien arbaso batzuetara gerturatzen gaituzte.

Datu hauetako gehienak sakramentu-erregistroetatik ateratakoak dira, XVI. mendetik aurrerakoak, eta Elgetako Jasokundeko Andre Mariaren eta Angiozarko San Migelen parrokietako artxiboetatik jasotakoak batez ere. Angiozar Elgetako auzoa izan zen 1927 arte.

Estas genealogías nos acercan a algunos antepasados de personas aquí relatadas.

La mayoría de estos datos están extraídos de los registros sacramentales, iniciados desde el siglo XVI y conservados preferentemente en los archivos parroquiales de Ntra. Sra. de la Asunción de Elgeta y de San Miguel de Angiozar (barrio dependiente de Elgeta hasta 1927).

I. ERANSKINA:

JUAN OCHOA DE ELGUETAREN GENEALOGIA

I. BELAUNALDI EZAGUNA

Juan Ochoa de Elgueta (1336/†1393)
(Jaolaza Oinetxearen Jauna).
Haren semea izan zen: Garcia Ibañez de Elgueta.

II. BELAUNALDIA

Garcia Ibañez de Elgueta (1390/†1446)
(Jaolaza Oinetxearen Jauna 1393tik).
Navarra de Lasarterekin (Oñatiko Guevara familiakoa) ezkondua 1420an.
Bi seme izan zituzten: Fortun Garcia de Elgueta eta Juan Sanchez de Elgueta.

III. BELAUNALDIA

- **Fortun Garcia de Elgueta** (1426/†1460)
  (Jaolaza Oinetxearen Jauna 1446an eta Angiozarko Elizaren Ugazaba, Oñatiko Kondeak emana, 1452an)
  Mª Beltran de Guevararekin (Oñatiko Guevara familiakoa) ezkondua 1450an.
  Lau seme-alaba izan zituzten: Juan, Mª Hortiz, Constanza, Juana de Elgueta y Guevara.
- **Juan Sanchez de Elgueta**
  Maria de Echabururekin ezkondua.

IV. BELAUNALDIA

- **Juan de Elgueta y Guevara** (1450/†1483)
